

AURKIBIDEA

Oharrak, Garizuma eta Aste Santurako (<i>Paschalis sollemnitatis</i>).....	5
Martxoaren 9an, GARIZUMAKO I. IGANDEA	25
Martxoaren 16an, GARIZUMAKO II. IGANDEA	34
Martxoaren 23an, GARIZUMAKO III. IGANDEA	42
Martxoaren 30ean, GARIZUMAKO IV. IGANDEA	51
Apirilaren 6an, GARIZUMAKO V. IGANDEA	60
Apirilaren 13an, ERRAMU IGANDEA	68
Apirilaren 17an, OSTEGUN SANTUA	79
Apirilaren 18an, OSTIRAL SANTUA	88
Apirilaren 19an, PAZKO GAUBEILA	101
Apirilaren 20an, PAZKO IGANDEA	134

Ondorengo orrialdeetan, Pazko-jaien prestaera eta ospaketari buruzko gutun baten zatia argitaratzen dugu. Merezi du aldi hau arretaz prestatu eta ospatzeak. Horretan lagunduko duela espero dugu.

Pazko-jaien prestaera eta ospaketari buruz
Jainkoaren Gurtzarako Kongregazioak
«Paschalis sollemnitatis» Gutunean emandako oharpenak (1988-I-16)

GARIZUMALDIA

6. «Garizumako urteroko penitentzi bidea graziaren aldia da, bide horrek Pazkoaren mendi santura eramaten gaitu» (*Cæremoniale Episcoporum*, 249. zk.).

«Hain zuzen, Garizumak, dituen bi alderdien bidez, batean biltzen ditu pazko-misterioaren ospakizunean katekumenoak eta fededunak. Katekumenoak, bai ‘aukeratzearen’ eta ‘azterketen’ bidez, bai katekesiaren bidez, kristau-sarbideko sakramentuetara eramanak dira; fededunak, berriz, Jainkoaren hitza sarriago entzunez eta gehiago otoitz eginez eta penitentiaren pretaerarekin, Bataioko aginduak berritzen dituzte» (*ibid.*).

a) Garizuma eta kristau-sarbidea

7. Kristau-sarbidearen ibilbide osoak pazko-izaera du; hori da Kristoren heriotza eta piztuerako sakramentuzko lehenengo parte hartzea. Horregatik, Garizumak garbikuntzaren eta argitzearen denbora izanez lortu behar du bere indar betea, bereziki ‘azterketen’ eta ‘emateen’ bidez; Pazko Gaubeilak izan b ehar du unerik egokiena kristau-sarbideko sakramentuak ospatzeko (ik. *Zuzenbide Kanonikoaren Kodea*, 856. kan.).

8. Katekumenorik ez duten kristau-elkarteetan ere egin bezate otoitz, beste lekuetan, hurrengo Pazko Gaubeilan, kristau-sarbideko sakramentuak hartuko dituztenen alde. Eliz artzainek irakats biezaie fededunei Bataioko fede-aitormenaren garrantzia, beren espirituazko bizitza hazten joan dadin. Fede-aitortza hori berritzera dei egingo zaie fededunei «Garizumako penitentzi ibilbidearen bukaeran».

9. Garizuman izan bedi ardura, haurtzaroan bataiatuak izanik, geroztik kristau-katekesia hartu ez duten eta Sendotzako eta Eukaristiako sakramentuak hartu ez dituzten helduei katekesi hori emateko. Aldi honetan egin bitez penitentiako sakramenturako prestaera-ospakizunak ere, Adiskidetzaren sakramenturako presta daitezen.

10. Garizuma da, bestalde, garai egokia oraindik bataiatu ez diren hurrekin penitentziako sakramenturako prestaera-ospakizunak egiteko, katekesia hartzeko adina lortua badute; baita aspaldi bataiatuak izanik, Penitentziako sakramentua lehenengo aldiz hartu behar duten hurrekin ere.

Gotzainari dagokio katekumeno helduei nahiz hurrei formakuntza ematea eta, egoeraren arabera, ezarriak dauden ohikuneetan buru egitea, bertako kristau-elkarteak parte hartuz.

b) Garizumaldiko ospakizunak

11. Garizumako igandeek lehenetasuna dute beti Jaunaren jaiekiko eta festaburu guztiekiko. Igandez gertatzen diren festaburuak ondorengo astelehenera atzeratuko dira. Garizumako astegunek, bestalde, lehentasuna dute beharrezko oroipenekiko.

12. Batez ere, igandeetako homilian pazko-misterioaren eta sakramentuen katekesi-heziketa egin bedi; horretarako, irakurgaien testuaren eta bereziki Ebanjelio-pasartearen azalpen arduratsua egin bedi, horietan egiten baita Bataioaren eta gainerako sakramentuen, baita Jainkoaren errukiaren ere, adierazpena.

13. Eliz artzainek egin bezate sarriago eta era zabalagoan Jainkoaren hitzaren azalpena astegunetako homilietan, hitzaren ospakizunetan, penitentziako sakramenturako prestaera-ospakizunetan, prediku berezietan, bedeinkapenerako familiei nahiz familia-taldeei ikustaldi egitean. Fededunek sarritan parte har dezatela Mezan astegunetan eta, hori ezin denean, saia daitezela gutxienean dagozkien testuak irakurtzen, familian nahiz bakarka.

14. «Garizumaldiak bere penitentzi alderdia izaten jarraitzen du» (Paulo VI.a, *Pœnitementi* Konstituzio Apostolikoa, II.a, 1). «Fededunei egindako katekesian, bekatuaren ondorio sozialekin batean, azpimarra bedi penitentiaren egiazko izaera: Jainkoari egindako iraina den aldetik gorrotatzen dela, alegia, bekatua».

Penitentziak, bertute den aldetik eta beraren praxia edo jarduera bezala ere, pazko-prestaeraren alderdi beharrezko izaten jarraitzen du: bihotz-berritzetik sortu behar du penitentiaren kanpoko jarduerak, bai kristau bakoitzean bai elkarteetan; penitentzi jarduerak, gure garaiotako inguruabar eta baldintza bereziak kontuan izango baditu ere, ebanjelioko espirituaz eta senideen onari begira egina izan behar du betiere.

Ez bedi ahaztu Elizari dagokion alderdia penitentzi ekintzan eta biziki aholka bedi bekatarien aldeko otoitza, ohi baino sarriago sartuz Jainkoaren herriaren otoitz barruan (ik. *Sacrosanctum Concilium*, 109).

15. Gomendio egin bekie fededunei Garizumako liturgian eta penitentziako sakramenturako prestaera-ospakizunetan era biziago eta onuratsuagoan parte har dezaten. Batez ere, gomenda bekie hurbil daitezela aldi honetan Penitentziako sakramentua hartzera Elizaren lege eta tradizioaren arabera pazko-misterioetan bihotz garbiz parte hartu ahal izateko. Oso egokia da Garizumaldian zenbait aitorleren adiskidetze-ohikunearen arabera Penitentziako sakramentua ospatzea, banakako aitortza eta barkamenarekin, erromatar Erritualean esana dagoen moduan.

Eliz artzainak prest egon bitez adiskidetze-zerbitzurako eta, banakako aitortzak egiteko denbora luzatuz, erraztu bezate sakramentu honetara hurbildu ahal izatea.

16. Garizumako penitentzi ibilbidea lekuko Elizaren bizitza argiago adieraztera eta beraren aurrerapena lortzera zuzendua egon bedi bere alderdi desberdin guztiei dagokienez. Horregatik,

oso ondo legoke, Erromako «statio» edo eliz txango haien antzera, tokian tokiko Eliza batzarrean biltzeko antzinako ohitura gorde eta indarberritzea. Fededunen bilkura hauek egin ahal izango dira, bereziki elizbarrutiko artzainaren zuzendaritzapean, edota santuen hilobi-inguruan nahiz hiriko eliza eta santutegi nagusietan, nahiz elizbarrutiko erromes-leku ohikoenetan.

17. Garizumaldian «galarazia dago aldarea lorez apaintzea, eta musika-tresnak kantuan laguntzeko bakarrik erabil daitezke», aldi honek duen penitentzi esanahiari dagokion errespetuz.

18. Era berean, Garizumaren hasieratik Pazko Gaubeila bitarteko ospakizun guztietan ez da Aleluia esango, ezta festaburu eta jaietan ere.

19. Eukaristi ospakizunetan, eta gainerako elizkizunetan ere, aldi honi dagozkion eta liturgiako testuekiko ahal den neurrian egokiak diren kantuak aukeratuko dira.

20. Garizumarekiko zerikusi handiagoa duten elizkizun eta otoitzaldiak liturgi espirituz jantziak eta egokituak egon daitezela, esate baterako «Gurutze-bidea», fededunen gogoia Kristoren pazko-misterioaren ospakizunera errazago eramana izan dadin.

c) Garizumako egun jakin batzuen berezitasuna

21. Garizumako I. igandearen aurreko asteazkenean, fededunak, errautsa hartuz, arimaren garbitasuna helburu duen denboran sartzen dira. Bibliako tradizioan sustraiak dituen eta Elizak gaurdaino gorde duen penitentzi ohikuneekin gizaki bekatariaren izaera adierazi nahi da; fededun bekatariak bere errua aitortzen du agerian Jainkoaren aurrean, eta bere barneko bihotz-berritzearen borondatea adierazten, Jauna berarekin errukitsu izango den itxaropenez. Kanpoko seinale honen bidez ekiten dio bihotz-berritzeko bideari, eta Pazkoaren aurreko egun batean egingo den Penitentziako sakramentuaren ospakizunean iritxiko da bihotz-berritze honen helburura.

Errautsen bedeinkapena eta ezartzea Meza barruan egin daiteke, edota Mezarik gabe. Kasu honetan, Hitzaren liturgia egingo da lehenengo eta Jainkoaren herriaren otoitzarekin bukatuko.

22. Hausterre-eguna penitentzia egin beharreko eguna da Eliza osoan, eta bijilia eta baraua gorde behar da (ik. *Zuzenbide Kanonikoaren Kodea*, 1251. kan.).

23. Garizumako I. igandeak gure bihotz-berritzearen sakramentuzko seinalea adierazten du, aldi egokia dela, alegia, gure salbamenerako. Igande honetako Mezan ez dute falta izan behar horren garrantzia azpimarratuko duten osagaiak; esate baterako, Meza-sarrerako prozesioa santuen letaniak abestuz. Garizumako I. igandeko Mezan gotzainak, katedralean nahiz beste eliza batean, «kristaugaiak aukeratzeko» edota horien «izenak hartzeko» ohikunea ospatuko du, egitarau pastoralaren arabera.

24. Emakume samariarrari, itsu jaio zenari eta Lazarori buruzko Ebanjelioak, Garizumako A urteko III., IV. eta V. igandeeetan irakurtzen direnak, kristausarbiderako duten garrantzi handiagatik, B eta C urteetan ere irakurri ahal izango dira, bereziki tartean kristaugaiak badira.

25. Garizumako IV. igandeean (*laetare*) eta festaburu eta jaietan ere onartzen da musika-tresnak erabiltzea eta aldarea lorez apaintzea. Igande honetan, bestalde, kolore arrosako jantzi sakratuak erabil daitezke.

26. Garizumako V. igandetik aurrera gurutzeak eta irudiak zapi batez estaltzeko ohitura gorde daiteke Gotzainen Batzarraren iritziaaren arabera. Gurutzeak estalirik egongo dira Ostiral Santuko Jaunaren Nekaldiaren ospakizuna bukatu arte; irudiak, berriz, Pazko Gaubeila hasi arte.

ASTE SANTUA

27. Aste Santuan Elizak salbamen-misterioak ospatzen ditu, Kristok bere bizitzako azken egunetan, Jerusalemen egindako sarrera mesianikotik hasita, bizi izan zituenak.

Garizuma Ostegun Santuan bukatzen da. Pazko Hirurrenak «Jaunaren Afariko arratsaldeko Mezarekin hasi» eta «Ostiral Santuko Jaunaren Nekaldiarekin» eta Larunbat Santuarekin jarraitzen du; Pazko Gaubeilan jotzen du gailurra eta Piztuera Igandeko Bezperekin bukatzen da.

«Aste Santuko astegunek, astelehenetik ostegunera, hau ere barne, lehentasuna dute gainerako ospakizun guztiekiko». Desegokia da egun horietan Bataioa nahiz Sendotza ospatzea.

a) Jaunaren Nekaldiko Erramu Igandea

28. «Jaunaren Nekaldiko Erramu Igandearekin» hasten da Aste Santua; egun honetan, Kristo Erregearen garaipena eta beraren nekaldiaren iragarpena bateratzen dira. Erramu Igandeko ospakizunean eta katekesian agerian jar bitez pazko-misterioaren bi alderdi horiek.

29. Antzina-antzinatik, prozesio jaieratsua eginez, Jauna Jerusalemen sartu zenekoa gogoratzen da; horrela, kristauek gertaera hura ospatzen dute haur hebrearren gorapenak eta keinuak gertaberrituz eta, «Hosanna» kantatuz, Jaunaren bidera irteten zaizkiola.

Prozesio bakarra egingo da, fededunen parte-hartze handiena ziango den Meza aurretik egina; arratsaldean ere egin daiteke, bai igande bezperako larunbatean, bai igandean bertan. Eliza txikiago batean nahiz elizatik kanpo dagoen beste leku egoki batean bilduko dira eliztarrak eta eliza nagusira joango prozesioan.

Prozesio honetan eliztarrek erramu-adarrak nahiz bestelako adarrak emango dituzte eskuetan. Apaiza eta laguntzaileak herriaren aurretik joango dira beraiek ere erramu-adarrak dituztela.

Erramu-adarren bedeinkapena prozesioan eramateko egiten da. Etxeetan gordeta, prozesio honetan adierazitako Kristoren garaipenaren oroitzapen gertatzen dira fededunentzat.

Eliz arduradunak saia bitez Kristoren ohoretan egingo den prozesio hau fededunen espiritu-bizitzarako onuragarria izango den eran prestatu eta ospatzen.

30. Jaunak Jerusalemen egindako sarreraren oroigarria ospatzeko, Meza Liburuak, hemen aurrean esan bezala prozesio jaieratsuaz gainera, beste bi era aipatzen ditu, ez noski errazkerian erortzeko, baizik eta prozesioa era horretan egiteko gerta daitezkeen zailtasunak kontuak izateko.

Sarrera honen oroigarria egiteko bigarren era, prozesioa elizaz kanpo egin ezin denerako sarrera ospetsua da. Hirugarren era, berriz, sarrera ospetsua egingo ez den egun honetako beste Meza guztietan egingo den sarrera soila da.

31. Meza ospatzerik ez denean, ondo legoke Jainkoaren hitzaren ospakizuna egitea Jaunaren sarrera mesianikoaren eta nekaldiaren oroigarri, larunbat arratsaldeko nahiz igandeko ordu egoki batean.

32. Prozesio bitartean, abesbatzak eta herriak Meza Liburuan jarriak dauden kantuak abestuko ditu, esate baterako 24 [23] eta 47 [46] salmoak, nahiz beste kantu egoki batzuk Kristo erregearen ohoretan.

33. Nekaldiaren kontakizuna aparteko handitasunez egingo da. Tradizioz egin izan den moduan, hiru irakurleren artean abestua nahiz aldarrikatua izan daiteke, hau da: Kristori dagokiona, kronistarena eta herriarena. Nekaldia diakonoek edota apaizek abestu nahiz aldarrika dezakete, eta hauetakorik izan ezean, irakurleek. Kasu honetan, Kristori dagokiona apaizak aldarrikatuko du.

Nekaldiaren kondaira argimutilik eta intsentsurik gabe aldarrikatuko da, eta liburuari agurrik eta gurutzerik egin gabe; irakurleek, diakono direnean, bestela ez, bedeinkapena eskatuko diote apaizari, Ebanjeliorako ohi denez.

Fededunen on espirtualari begira, nekaldia oso-osorik aldarrikatzea komeni da, aurreko irakurgaiak ere utzi gabe.

34. Nekaldiaren kondaira aldarrikatu ondoren, ez bedi egin gabe utzi homilia.

b) Krisma Meza

35. Gotzainak, bere presbiteroekin elkarmeza emanez, krisma sagaratu eta gainerako olioak bedeinkatzen dituen Krisma Meza honek, presbiteroek beren Gotzainarekin, apaizgo berean eta Kristoren ministerioan, duten elkartasuna adierazten du (ik. *Presbyterorum Ordinis*, 7. zk.). Elizbarrutiko eskualde

guztietako presbiteroei gonbidapena egitea komeni da Gotzainarekin batean elkarmeza ematera, krisma sagaratzearen testigu eta parte hartzaile direnez, eta eguneroko ministerioan ere lankide eta aholkulari direnez. Fededunak ere izan bitez biziki gonbidatuak Meza honetan parte hartzera eta ospakizun barruan Eukaristiako sakramentua hartzera.

Tradizioz, Krisma Meza Ostegun Santuan ospatu ohi da. Baina egun honetan presbiteroak eta kristau-herria gotzainarekin elkartzea zaila gertatzen bada, bedeinkapen hau beste egun batera aurrera daiteke, baina Pazko-egunetik asko urrundu gabe. Hain zuzen, krisma berria eta kristaugaien olio berria Pazko Gaubeilan erabili beharko dira kristau-sarbideko sakramentuen ospakizunean.

36. Elizbarrutiaren bizitzan duen garrantzia kontuan izanik, Krisma Meza bakarra ospatuko da, eta katedraleko elizan egingo da ospakizuna, edota arrazoi pastoralak direla medio, bereziki ospetsua den beste eliza batean.

Parrokietan olio santuak onartzea Jaunaren Afariko arratsaldeko Meza aurretik egin daiteke edota beste une egoki batean. Onartze-ekitaldi honek lagundu egingo die fededunei olio santuen eta krisma sakratuaren esanahia eta horiek kristau-bizieran duten eragina ulertzen.

c) Penitentziaren ospakizuna Garizumaren bukaeran

37. Garizumaldia Penitentziaren ospakizuna eginez bukatzea komeni da, bai fededun bakoitzari dagokionez bai kristau-elkarteari dagokionez, horrela pazko-misterioan era sakonago eta beteagoan parte hartu ahal izateko.

Penitentzi ospakizun hau Pazko Hirurrenaren aurretik egin bedi, eta ez bedi Jaunaren Afariko arratsaldeko Meza aurretik egiteko utzi.

PAZKO HIRURRENA

38. Jaunaren Afariko Ostegun Santu arratsaldeko Mezatik hasi eta Piztuera-igandeko Bezperak arte, gizadiaren salbameneko misterio handiak ospatzen ditu Elizak urtero. Denboraldi honi, hain zuzen, «Gurutztatzu, hobiratu eta berpiztuaren Hirurrena» deritzo; «Pazko-hirurrena» ere esaten zaio, beraren ospakizunean Pazko-misterioa, hau da, Jauna mundu honetatik Aitarengana igarotzea, presente egiten eta gertaberritzen delako. Misterioaren ospakizun

honetan, zeinu liturgiko eta sakramentalen bidez, bat egiten du Elizak elkartasun bete-betean Kristo bere Senarrarekin.

39. Hirurrenako lehenengo bi egunetako pazko-baraua sakratua da; antzinako tradizioak dioenez, egun horietan Elizak, «Senarra kendu diotelako» egiten du barau. Jaunaren Nekaldiko Ostiral Santuan leku guztietan egin behar da bijilia, eta Larunbat Santura ere luzatzea gomendatzen da, espiritu arindu eta irekiaz irits dadin Eliza Piztuera-igandeko alaitasunera (ik. *Sacrosanctum Concilium*, 110. zk.).

40. Biziki gomendatzen da, Jaunaren Nekaldiko Ostiral Santuan, eta Larunbat Santuan ere, Irakurgaien Orduko eta Gorespenetako otoitza elkartean egitea. Gotzainak ospakizun honetan, katedralean, parte hartzea komeni da, eta, ahal den heinean, apaiz eta herriarekin batean.

Antzina «Iluntzekoa» edo «Gauekoa» zeritzan otoitz honek berari dagokion lekua mantentzea komeni da fededunen debozioan, Jaunaren nekaldi, heriotza eta hobiratzeari buruz egindako gogoeta eta kontenplazioa baita otoitz hori, piztueraren berri onaren itxaropenean.

41. Pazko-hirurrena era egokian ospatu ahal izateko beharrezko da zenbait ministrari eta laguntzaile izatea; arduraz prestatuak izan behar dute dagokien eginkizunerako. Eliz artzainek eman biezazkiete fededunei ospakizunen esanahiari eta egiturari buruzko azalpenak, eta presta bitzate arduraz, beren parte hartzea eginkorra eta onuragarria izan dadin.

42. Garrantzi berezia du herriaren, ministrarien eta batzarburu den apaizaren kantuak Aste Santuko ospakizunetan eta, bereziki Pazko-hirurrenakoetan, egun horietako ospeari ondo dagokiolako eta testu horiek ere abestuz ematen direnean hartzen dutelako, hain zuzen, benetako indarra.

Dei egiten zaie Gotzainen Batzarrei, oraindik ez badute egin, behar diren neurriak har ditzaten testu eta gorapen horietarako doinu egokiak sorrazteko, beren izaeragatik abestua izatea eskatzen dutelako. Hauek dira aipatu testuak:

- a) Jaunaren Nekaldiko Ostiral Santuko Jainkoaren herriaren otoitza; diakonoaren deia, egitekoa bada, eta herriaren gorapena;
- b) Gurutzearen azalpena eta adorazioa egin bitarteko kantuak;
- c) pazko-zuziarekin egingo den prozesiorako eta pazko-deirako gorapenak, «Aleluia»-ko erantzun-salmoa, santuen letaniak eta ura bedeinkatu ondorengo gorapena.

Ez bitez errazkeriaz ahaztu herriak parte hartzeko kantuen liturgi testuak; saia bitez kantu horien itzulpenei doinu egokiak egiten. Aipatu testuak prestatu gabe badaude kantatzeko, aukera bitez bitartean horien antzeko beste batzuk. Egin bedi kantu-sorta berezi bat ospakizun hauetan bakarrik erabiltzeko. Presta bitez bereziki:

- a) erramuen bedeinkapen eta prozesiorako kantuak, eta elizan sartzerakoak;
- b) olio santuekin egingo den prozesiorako kantuak;
- c) «Jaunaren Afariko» Mezako eskaintzen prestaera-prozesiorako kantuak, eta Sakramentu Santua gurtza-tokira eramateko prozesiorako gorazarrea;
- d) Pazko Gaubeilan erantzun-salmoen errepikak eta ur bedeinkatuz zirtatzekoan abestekoak.

Presta bitez doinu egokiak Nekaldiaren, pazko-deiaren eta Bataioko uraren bedeinkapenaren testuak abesteko.

Eliza nagusietan erabil bedi antzinako nahiz oraingo musika sakratuaren altxor ugaria; baina, izan bedi kontuan beharrezko dela fededunen parte-hartze egokia zaintzea.

43. Oso komenigarri da, erlijioso-elkarteek, klerikalak izan ala ez, eta elkarte laikoek ere Pazko Hirurreneko ospakizun nagusienetan parte hartzea.

Era berean, ez dira Pazko Hirurreneko elizkizunak ospatuko behar adinbat parte-hartzaile, ministrari eta abeslari ez den lekuetan; eta egin bitez ahaleginak fededunak beste eliza nagusiago batean bil daitezen parte hartzeko.

Presbitero-talde berak parrokia bat baino gehiagoren ardura duenean, eliza horietako fededunak, ahal dela, eliza nagusienean biltzea komeni da ospakizun hauetan parte hartzeko.

Parroko batek bi parrokia edota gehiagoren ardura badu, horietan fededunen parte-hartze handia bada eta ospakizunak behar den erreberentziaz eta ospez egin badaitezke, parrokoak errepika ditzake Pazko Hirurreneko ospakizunak, legediak dioena kontuan izanik.

Liturgi heziera egokia eta osoa lortu beharko dute seminarioetako ikasleek, «Kristoren pazko-misterioa bizi eta beren ardurapean izango duten herriari hori irakasten jakin dezaten» (ik. *Optatam totius*, 8. zk.). Oso komenigarri da, seminarioko prestaera-urteetan, pazko-jaietako –bereziki Gotzaina batzarburu

dela egiten direnetako— ospakizun-era jantziago eta osoagokoen esperientzia lor dezaten.

IV. Ostegun Santu arratsaldeko Jaunaren Afariko Meza

44. «Aste Santuko ostegunean, arratsaldeko orduetan ospatzen den Mezarekin, hasten du Elizak Pazko Hirurrena, eta Jesus Jauna saldua izan zen gau hura oroitzen du; munduan zeuden bereak azkeneraino maite izanik, Jainko Aitari eskaini zizkion, ogi-ardoan itxurapean, bere Gorputza eta bere Odola; eta apostoluei eman zizkien har zitzaten, aginduz, beraiek eta apaizgoan haien ondorengo izango zirenek ere eskaini zitzatela» (*Cæremoniale Episcoporum*, 297. zk.).

45. Meza honetan gogoratzen diren misterioetan jarri behar da espirituaren arreta osoa, hau da, Eukaristiaren eraketan, Apaizgo Ordenaren eraketan, eta elkarrenganako maitasunari buruzko Jaunaren aginduan. Hauek dira homilian gogoratzea komeni diren gaiak.

46. «Jaunaren Afariko» Meza arratsaldean ospa bedi, bertako kristau-elkarte osoak parte hartzeko egokiena den orduan. Presbitero guztiek elkarmeza eman dezakete, baita Krisma Mezan elkarmeza eman badute, nahiz fededunen onerako beste Meza eman behar badute ere.

47. Onura pastoralak egiaz eskatzen duen lekuetan, bertako Ordinarioak eman dezake baimena arratsaldean eliza eta otoitz-lekuetan beste Meza bat ospatzeko, eta, egiazko beharra denean, baita goizean ere, baina arratsaldeko Mezan inolaz ere parte hartzerik ez duten fededunetzat bakarrik. Izan bedi kontu, Meza hauek pertsona pribatu jakin batzuen nahiz talde berezi batzuen mesedetan izan ez daitezen, eta Meza nagusiaren kaltetan ere izan ez daitezen.

Elizaren antzina-antzinako tradizioaren arabera, galaraziak daude egun honetan herririk gabeko Mezak.

48. Ospakizunaren hasieran, sagraioak erabat hustua egon behar du. Meza honetan sagaratu behar dira fededunen jaunartzerako beharko diren ostiak, baita kleroak eta herriak hurrengo egunean jaunartzeko beharko direnak ere.

49. Sakramentu guztiz Santuaren gurtzarako presta bedi kapera bat, txukun apaindua, otoitz eta gogoeta egiteko egokia; egun hauetako liturgiari dagokion doitasun eta neurria gordetzea gomendatzen da, era guztietako gehiegikeriak baztertuz edota desagerraraziz.

Sagrarioa erdiko nabe nagusitik kanpoko kapera batean dagoenean, han bertan prestatzea komeni da adoraziorako gurtza-tokia.

50. «Aintza zeruetan» gorazarrea abesten den bitartean, leku bakoitzeko ohituren arabera, kanpaiak joko dira; Pazko Gaubeilan berriro «Aintza zeruetan» abestu arte ez da gehiago kanpairik joko, baldin eta Gotzainen Batzarrak edota lekuko Ordinarioak besterik egitea erabakitzen ez badute. Aipatu denbora horretan, bai organoa bai gainerako musika-tresnak kantuarien laguntzarako bakarrik erabiliko dira.

51. Tradizioaren arabera, oinak garbitzea egin ohi da egun honetan; Jainkoaren herriarenartetik aldezturik aurreratuak izango dira *gizon-emakumeak, gazteak nahiz adintsuak, osasuntsuak nahiz gaixoak, elizgizonak, sagaratuak nahiz laikoak* (ik. *Frantzisko Aita Santua*, 2016. urtean); Kristoren zerbitzu- eta maitasun-jarrera da ekintza honen esanahia, «Gizonaren Semea ez baitzen zerbitzatua izatera etorri, zerbitzatzaia baizik» (ik. *Mt 20, 28*). Tradizio honi eustea komeni da, berak duen esanahi bereziaren azalpena eginez.

52. Behartsuentzat bildutako diru-eskaintzak, batez ere Garizuman zehar penitentzia moduan bildu direnak, oparigaien prozesioan eramanak izan daitezke, herriak «Ubi caritas est vera» abesten duen bitartean.

53. Oso komenigarri izango da diakonoek, akolitoek nahiz ezohiko jauna-emaileek Eukaristia eramatea jaunartu nahi duten gaixoei; Jauna aldaretik hartuko dute jaunartzeko unean, horrela, ospatzen duen Elizarekiko batasuna era estuagoan adieraziz.

54. Jaunartze ondorengo otoitza esandakoan, Sakramentu guztiz Santua elizan barrena gurtza-tokira eramateko prozesioa hasiko da; gurutzea daramana joango da aurretik kandela piztuen eta intsentsu artean. Bitartean, «*Pange, lingua*» nahiz Eukaristiari buruzko beste kantu egokiren bat abestuko da. Eliza horretan, Ostiral Santuan, Jaunaren Nekaldiko ospakizuna egitekoa ez bada, Sakramentu guztiz Santua gurtza-tokira eramateko prozesiorik ez da egingo.

55. Sakramentu guztiz Santua sagrarioan edota kutxa batean ezarriko da. Ez da inoiz kustumian edota ekisainduan Jauna agerian jarri behar.

Sagrarioak nahiz kutxak ez du hilobi-tankerako forma izan behar. Ez da erabili behar «hilobi» hitza bera ere; gurtza-tokiko kapera ez da «Jaunaren hobiratzea» adierazteko antolatzen, Jaunaren Nekaldiko Ostiralean Jauna eramateko behar den eukaristi ogia gordetzeko baizik.

56. Egin bekie gonbita fededunei, «Jaunaren Afariko» Meza ondoren gurtza luzaroa egin dezaten, Sakramentu guztiz Santua era ospetsuan ezarria izan den

gauean. Otoitzaldi honetan gauza egokia da San Joanen Ebanjelioko zati bat irakurtzea (13-17. kap.).

Gauerdia igaro ondoren, gurtza hau osperik gabe era apalean egingo da, Jaunaren Nekaldiaren eguna hasia delako.

57. Meza bukatu ondoren, ospakizuna egin den aldarea erantziko da. Elizan diren gurutzeak zapi gorri nahiz more batekin estaltzea komeni da, aldeztu aurretik Garizumako V. igandean estaliak izan ez badira behintzat. Ez da kandela edota lanpararik piztuko santuen irudi aurrean.

V. Jaunaren Nekaldiko Ostiral Santua

58. «Kristo gure Pazko Bildotsa opari eskainia izan den» (1 Ko 5, 7) egun honetan, gogoeta egiten du Elizak beraren Jaun eta Senarraren Nekaldiari buruz eta Gurutzea gurtuz; bera, Gurutzean lokartua zegoen Kristoren saihetsetik sortua zela oroitzen du eta otoitz egiten mundu guztiaren salbamenerako.

59. Antzina-antzinako tradizioari jarraituz, Elizak ez du egun honetan Eukaristiarik ospatzen; Jaunaren Nekaldiaren ospakizun barruan bakarrik ematen zaie Jauna fededunei; ospakizunean parte hartzeko gai ez diren gaixoei, ordea, edozein ordutan har dezakete Jauna.

60. Jaunaren Nekaldiko Ostirala beharrezko penitentzi eguna da Eliza osoarentzat; beharturik daude denak bijilia eta barau egitera (ik. *Zuzenbide Kanonikoaren Kodea*, kan. 1251).

61. Egun honetan, debekatua dago edozein sakramentu ospatzea, Penitentzia eta Gaixoen Oliadura izan ezik. Hiletak ospa daitezke, baina ez kantu, ez organo eta kanpairik jo gabe.

62. Egun honetan, elizetan, fededunek parte hartuz, Irakurgaien Ordua eta Gorespenak ospatzea gomendatzen da (ik. 40. zk.).

63. Jaunaren Nekaldiaren ospakizuna eguerdi ondorengo orduetan, hirurak aldean (15:00), egingo da. Arrazoi pastoralak medio, beranduagoko orduren bat aukera daiteke, fededunak errazago bil daitezten: esate baterako, eguerditik arratsera bitartean, baina inola ere ez gaueko bederatziak baino beranduago (21:00).

64. Jaunaren Nekaldiko ospakizun honek hiru zati ditu: Hitzaren liturgia, Gurutzea gurtzea eta jaunartzea; leialtasun osoz gordeko da Elizaren antzinako

tradiziotik datorren hiru zati hauen ordena; inork ez du eskumenik horretan aldaketak sartzeko.

65. Apaiza eta ministrariak aldarera joango dira isiltasunean, kanturik gabe. Sarrerako hitz batzuk esan behar badira, ministrarien sarrera honen aurretik esango dira.

Apaiza eta ministrariak, aldarea agurtu ondoren, ahuspez etzango dira; egun honetako ohikune berezia den umiltasun-keinu hau begirune handiz gorde behar da, «lurretik sortua den gizakiaren» izate apala eta Elizaren tristura eta atsekabea adierazten dituelako.

Ministrarien sarrera bitartean, fededunak zutik egongo dira; gero belaunikatu eta otoitz egingo dute isilik.

66. Irakurgaiak osorik aldarrikatu behar dira. Ohi den moduan abestuko dira erantzun-salmoa eta Ebanjelio aurreko txatala. Jaunaren Nekaldiaren kontakizuna aurreko igandean (ik. 33. zk.) esan bezala abestu nahiz aldarrikatuko da. Nekaldia aldarrikatu ondoren, homilia egingo da, eta, beraren bukaeran dei egin diezaieke fededunei otoitzean jarrai dezaten isilik unetxo batean.

67. Jainkoaren herriaren otoitza Meza Liburuan jarria dagoen tradizioko testuaren eta eraketaren arabera egingo da, asmo guztiak kontuak izanik, izan ere, mundu guztiaren salbamenerako Gurutzean josia dagoen Kristoren Nekaldiak duen balio unibertsala adierazten baitu. Behar-egoera publiko larria denean, lekuko Ordinarioak baimena eman edota agindu dezake asmo bereziren bat gehitzeko. Meza Liburuan jarriak dauden otoitzen artean apaizak aukera dezake lekuko baldintzetara hobeto egokitzen direnak, Jainkoaren herriaren otoitzerako proposatuak dauden asmoen ordena aldatu gabe.

68. Gurutzea erakustekoan erabiliko den gurutzeak behar adina handia eta ederra izan behar du. Bi era eskaintzen dira Meza Liburuan Gurutzea erakusteko; bietan egokien dirudiena aukeratuko da. Ohikune hau gure salbamenaren aintzari dagokion duintasun eta handitasunez egingo da; Gurutzea azaltzekoan egingo den deia eta herriaren erantzuna ere kantuz egingo dira, eta ez bedi baztertua utzi aldi bakoitzeko belaunikatzearen jarraian egingo den gurtzarako isilunea; bitartean, batzarburu den apaizak, zutik, Gurutzea gora jasoa edukiko du.

69. Ospakizunean dauden elizgizonak eta herria Gurutzera hurbilduko dira gurtzeko; norberak pertsonalki Gurutzea gurtzea ospakizunaren osagai oso

garrantzitsua denez, fededunen kopurua oso handia denean bakarrik egingo dute gurtza denek batean.

Gurutze bakarra erabiliko da gurtzarako; hori da ohikune honen egiazkotasunak eskatzen duena. Gurutzearen gurtza bitartean, salbamen-historia era lirikoan gogoratzen duten (ik. *Mi* 6, 3-4) antifonak, «irain-hitzak» eta gorazarrea abestuko dira, nahiz beste kantu egoki batzuk (ik. 42. zk.).

70. Apaizak kantuz egingo du «Gure Aita»-rako deia, eta fededunen batzar osoak abestuko du. Ez da bake-keinurik eskainiko. Jaunartzea Meza Liburuan esana dagoen moduan egingo da.

Jaunartze bitartean 22. [21] salmoa nahiz beste kantu egokiren bat abestuko da. Jauna ematea bukatu ondoren, elizan hartarako prestatua dagoen lekura eramango da pixide edo kopoia.

71. Ospakizuna bukatutakoan, erantzi egingo da aldarea, lau kandela artean Gurutzea utzirik aldare gainean. Antola bedi elizan leku egoki bat (esate baterako, Ostegun Santuan Eukaristia ezarri zeneko lekua), eta han jarri Gurutzea fededunek gurtu dezaten, berari muin egin eta otoitzean eta gogoetan egon daitezen.

72. Ikuspegi pastoraletik duten garrantziagatik, ez dira bazterrera utzi behar deboziozko jarduerak, adibidez, «Gurutze-bidea», Nekaldiko prozesioak edota Maria Birjina guztiz santuaren atsekabeen gogorapena. Horietan erabiliko diren testu eta kantuek bat etorri behar dute eguneko liturgiaren espirituarekin. Deboziozko jarduera hauen ordutegia liturgi ospakizunaren orduarekin konpondu behar da, garbi gera dadin, liturgi ekintza, beraren izaera eta garrantziagatik, gainerako jarduera guztien gainetik dagoela.

VI. Larunbat Santua

73. Larunbat Santuz, Eliza Jaunaren hilobi ondoan egoten da, haren nekaldi-heriotzak eta infernuetara jaistea hausnartzen, eta haren piztuera itxaroten, otoitz eta barau eginez. Biziki gomendatzen da Irakurgaien Ordua eta Gorespenak, herriak parte hartuz, ospatzea (ik. 40. zk.). Hori egitea ezinezkoa denean, presta bedi egun honetako misterioari dagokion Hitzaren ospakizuna edota bestelako otoitzaldi bat.

74. Fededunen gurtzarako elizan Kristoren irudia gurutzean, nahiz hilobian nahiz infenuetara jaisten jar daitezke, Larunbat Santuko misterioa adierazten baitute, Doloreetako Birjina Santuaren irudiak bezalaxe.

75. Elizak gaur ez du inolako Mezarik ospatuko. Gure Jauna «elizakoak» emateko eran bakarrik emango da. Ez da ezkontzarik ospatuko, ezta beste sakramenturik ere, Penitentziako sakramentua edota Gaixoen Oliadura izan ezik.

76. Larunbat Santuaren izaera bereziari buruzko heziera eman behar zaie fededunei. Pazko Gaubeila Larunbat Santura aurreratu zenetik egun honetan ospatu izan diren jai-giroko ohitura eta tradizioak Pazko Gaubelara eta Pazko-egunera aldatu behar dira.

VII. Jaunaren Piztuerako Pazko Igandea

A) Pazko Gaubelako gau santua

77. Antzina-antzinako tradizioari jarraituz, gau hau Jaunaren zain erne egoteko gaua da (*Ir* 12, 32), eta, Jaunaren piztueraren oroitzapena eginez, gau santu honetan ospatzen den gau-ospakizun hau «Gaubeila santu guztien amatzat» hartu behar da. Gaubeila bitartean, Jaunaren piztueria itxaroten du Elizak eta kristau-sarbideko sakramentuekin ospatzen.

a) Pazko Gaubeila gauez ospatzearen esanahia

78. «Pazko Gaubeila osoa gauez egin behar da. Beraz, ez da ilunabarra baino lehenago hasi behar, ezta igandeko egunsentia baino beranduago bukatu behar ere». Bere esanahi zorrotzean ulertu behar da arau hau. Honen kontrako ohitura edo gehiegikeria oro gaitzetsi egin behar da; ezari-ezarian sartzen joan baita Pazko Gaubeila igandeetako bezpera arratsaldeko Mezen orduan ospatzeko ohitura, eta hori ez da ontzat eman behar.

Pazko Gaubelaren ordua aurreratzeko inoiz jarri ohi diren arrazoiak, esate baterako, gaueko segurtasunik eza, ez da kontuan izaten Eguberri gauean edota gisa horretako beste bileretan.

79. Faraoiaren esklabotzatik askatu behar zituen Jaunaren igarotzea itxaron zuten hebrearrek Pazko Gaubelari, eta orduz geroztik horren «oroitzapena» eginez ospatu zuten gau hura; Kristoren zinezko Pazkoaren irudi zen gaubeila hura, egiazko askatasun-gauaren eta «Kristo, heriotzaren kateak hautsirik, hilen artetik garaile atera zeneko» gauaren irudi.

80. Hasiera-hasieratik ospatu izan du Elizak gauez urteroko Pazko Gaubeila ospe handiz, hori da, izan ere, festabururik nagusia. Kristoren piztuera da, hain zuzen, gure fedearen eta itxaropenaren oinarria; Bataioaren eta Sendotzaren bidez Kristoren pazko-misterioan txertatuak gertatzen gara; berarekin hiltzen gara, berarekin hobiratzen eta berarekin berpizten, errege ere izan gaitezen berarekin betiko (ik. *Sacrosanctum Concilium*, 6. zk.; ik. *Erm* 6, 3-6; *Ef* 2, 5-6; *Kol* 2, 12-13; *2 Tm* 2, 11-12).

b) Pazko Gaubeilaren egitura eta beraren osagai eta zati desberdinen garrantzia

81. Hau da Pazko Gaubeilaren egitura: Argiaren liturgia eta pazko-deia egin ondoren (hau da gaubeilaren lehenengo zatia), Jainkoak bere herriaren alde hasieratik egindako miragarriak hausnartzen ditu Eliza santuak (hau da bigarren zatia, Hitzaren liturgia); gero, Bataioaz jaiotza berria izan duten kideekin batean (hirugarren zatia), Jaunak bere herriarentzat prestatua duen mahaira gonbidatua izango da, haren heriotza eta piztueraren oroigarria egiteko, beraren azken etorreraren zain dagoelarik (laugarren zatia).

Inork ez du eskubiderik ohikunearen egitura hau bere nahierara aldatzeko.

82. Lehenengo zatian, ekintza eta keinu sinboliko sorta bat egiten da; hauek era duin eta adierazgarrian egitea komeni da, oharpen eta otoitzen bidez adieraziko den berorien esanahi berezia jaso dezaten egiaz fededunek. Ahal dela elizatik kanpo piztuko da sua, toki egoki batean, su berria bedeinkatzeko; su honen argitasunak gai izan behar du iluntasuna desegin eta gaua argitzeko.

Ezaugarriaren egia errespetatuz, argizariz egindako pazko-zuzia prestatuko da, urtero berria, bakarra, tamaina nahiko nabarmenekoa, baina ez kandela-itxura duen beste zerbaite, baizik eta Kristo munduko argia dela gogorarazteko gai izango dena. Pazko-zuziaren bedeinkapena Meza Liburuan esandako zeinuz eta hitzez egingo da, nahiz Gotzainen Batzarrak ontzat emandako beste zeinu eta hitz batzuen bidez.

83. Herria elizan sartzan deneko prozesioa pazko-zuziaren argiaz bakarrik egingo da. Israeldarrek gauez gidari suzko zutabea zuten bezala, horrela kristauak Kristo berpiztuari jarraitzen diote. Ez dago eragozpenik «Eskerrak Jainkoari» erantzunari, Kristori zuzendutako beste gorapenen bat eransteke.

Pazko-zuziko sua fededunek eskuetan dituzten kandlelara pasatuko da pixkanaka; argi elektrikoak itzaliak egongo dira artean.

84. Pazko-deia, salbamenaren asmoa bere osotasunean adierazten duen pazko-misterioari buruzko olerki liriko bikaina, aldarrikatuko du diakonoak. Diakonorik ez delako nahiz batzarburu den apaizak ezin duelako, behar izanez gero, beste abeslari batek aldarrika dezake pazko-deia. Gotzainen Batzarrek egin ditzakete egokitzapenak pazko-deian, gorapen batzuk sartuz fededunentzat.

85. Gaubeilaren bigarren zatia Liburu Santuko irakurgaiek osatzen dute. Berorietan salbamen-historiako une gorenak aipatzen dira; eta erantzun-salmo, isilune eta apaizaren otoitzaren bidez giro egokia sortzen da, entzundakoa hausnar dezaten fededunek.

Gaubeilaren egitura eraberrituan Itun Zaharretik hartutako zazpi irakurgai eskaintzen dira, Legearen eta Profeten liburuetatik atereak eta Ekialdeko eta Mendebaldeko antzinako liturgi tradizioetan askotan erabiliak izan direnak; Itun Berritik, aldiz, beste bi irakurgai, Apostoluarena eta Ebanjeliokoa. Horrela, «Moisesengandik hasi eta profetaz profeta» (*Lk 24, 27; ik. Lk 24, 44-45*) Kristoren pazko-misterioa adierazten du Elizak. Horregatik, ahal dela, aldarrika bitez esandako irakurgai guztiak, Pazko Gaubeilaren izaera berezia dagokion eran gorde ahal izateko, behar den iraupena emanez.

Hala ere, egoera pastoralak kontuan izanik, irakurgaien kopurua murriztu beharra ikusten bada, aldarrika bitez Itun Zaharreko hiru irakurgai gutxienez, Legea eta Profetak entzun daitezen; ez dira inoiz irakurri gabe utzi behar Irteerako 14. kapitulua eta berari dagokion kantika.

86. Itun Zaharreko testuen esanahi tipologikoak Itun Berrian ditu bere sustraiak, eta hori irakurgai bakoitzaren ondoren batzarburu den apaizak esaten dituen otoitzetan azaltzen da, batez ere; esanahi hau arretaz jaso ahal izateko baliagarri izan daiteke irakurgaia aldarrikatu aurretik oharpen laburra egitea. Apaizak berak nahiz diakonoak egin ditzake oharpen hauek. Nazioetako nahiz elizbarrutietako liturgi batzordeak ahalegin bitez zerbitzu egokiak prestatzen artzainen lagungarritzat.

Irakurgai bakoitzaren ondoren erantzun-salmoa abestuko da herriak erantzungo duelarik.

Osagai hauek errepikatzean erritmo egokia erabiltzea komeni da, fededunek debozioz parte har dezaten. Ez bedi inolaz ere onartu erantzun-salmoen ordeztan nolanahiko kantu herrikoiak abestea.

87. Itun Zaharreko irakurketa bukatutakoan, «*Aintza zeruetan*» abestuko da, leku bakoitzeko ohituren arabera kanpaiak jo, Mezako otoitza esan eta Itun Berriko irakurgaiak aldarrikatuko dira. Bataioak Kristoren pazko-misterioan txertatzen gaituela adierazten duen Apostoluaren aholkua irakurriko da.

Gero, denak zutik jarririk, «*Aleluia*» abestuko du apaizak hiru aldiz, aldi bakoitzean ahotsa goratuz, eta kristau-batzarrak errepikatuko ditu. Behar izanez gero, salmolariak nahiz abeslariak «*Aleluia*» abestu eta herriak errepikatuko du, 118. [117] salmoko txatalak tarteka aldarrikatzen direlarik, izan ere sarritan aipatzen zuten salmo hau apostoluek beren predikuan (ik. *Eg* 4, 11-12; *Mt* 21, 42; *Mk* 12, 10; *Lk* 20, 17). Jarraian, Jaunaren Piztuera iragarriko da Ebanjelioa aldarrikatuz, eta hau da Hitzaren liturgia osoaren unerik gorena. Ebanjelioaren aldarrikapena bukatuakoa, ez da homilia egin gabe utzi behar, laburra izango bada ere.

88. Bataioaren liturgia da Gaubeilaren hirugarren zatia. Kristoren Pazkoa eta gurea sakramentuan ospatzen da orain. Hau era osoagoan adierazten da bataioko ponteak duten elizetan, eta are gehiago helduen kristau-sarbidea, edota gutxienean haurren Bataioa, ospatzen denean. Bataiorik ez balitz ere, parroki elizetan bataioko uraren bedeinkapena egingo da. Bedeinkapen hau bataioko pontean ez, baizik eta presbiterioan egitekoa bada, bataioko ura bataio-lekura eramanez behar da eta han gordeko Pazkoaldi osoan. Bataiorik ez bada eta bataioko ura bedeinkatu behar ez bada ere, bedeinkatu egingo da ura berarekin fededunen batzarra, Bataioaren oroigarritzat, zirtatzeko.

89. Ondoren, Bataioko aginduak berrituko dira, batzarburu den apaizak sarrerako oharpena eginez. Fededunek, zutik eta kandela piztuak eskuetan dituztelarik, galderei erantzungo diete. Gero, ur bedeinkatuz zirtatzea egingo da; keinu hauek eta horiei buruz esandako hitzek egun batean hartu zuten Bataioa gogoraraziko die fededunei. Apaizak elizan barrena ibiliz egingo du zirtaketa; bitartean fededunen batzarrak «*Vidi aquam*» antifona nahiz Bataioari buruzko kantu egokiren bat abestuko du.

90. Eukaristiaren ospakizuna da Gaubeilaren laugarren zatia eta gorena; hau da, hain zuzen, pazko-sakramenturik bikainena, gurutzeko sakrifizioaren oroitzapena, Kristo berpiztua presente egin, kristau-sarbidea burutu eta betiko pazkoa aldeztu aurretik gozarazten diguna.

91. Arreta handia jarri behar da Eukaristiaren liturgia ondo egiten, eta ez presaka; ahaleginak egin behar dira, egingo diren ohikune eta hitz guztiek

dagokien indar eta adierazgarritasun guztia izan dezaten: hala nola, denen aldeko otoitzak, izan ere bataiatu berriek lehenengo aldiz parte hartuko dute otoitz honetan, erret apaizgoa erabiliz; edota oparigaien prozesioak, bataiatu berriek ere, baldin halakoak badira, bertan parte hartzea komeni da; lehenengo, bigarren nahiz hirugarren Eukaristi Otoitzak, ahal dela kantatuz eta dagozkion enbolismo edo zati bereziak erabiliz; jaunartzeak, hau da, izan ere, ospatzen den misterioaren parte-hartze betearen unerik gailurrena. Jaunartze bitartean egoki litzateke 118. [117] salmoa abestea, «*Kristo gure pazko Bildotsa*» antifonarekin, edota 34. [33] salmoa «*Aleluia, aleluia, aleluia*» antifonarekin, nahiz pazko-poza adierazten duen beste kantu egokiren bat abestea.

92. Oso ondo legoke Pazko Gaubeilako jaunartzean eukaristi ezaugarria erarik adierazgarrienean egitea, sakramentua ogi-ardoen itxurapean ematea, alegia. Lekuko Ordinarioek ikus bezate baimen hori ematea bidezkoa ote den eta zein eratan egin daitekeen.

c) Ikuspegi pastoreko ohar batzuk

93. Arreta handiz egin bedi Pazko Gaubeilaren liturgia, bertan esango diren otoitzetan eta egingo diren ohikuneetan aurkitzen diren aberastasunak kristau-herriarengana irits daitezen; beharrezko da zeinuen egiazkotasuna errespetatzea, fededunen parte-hartzea zaintzea, eta ospakizuna ondo egiteko beharrezko diren ministrari, irakurle eta abeslariak izatea.

94. Hurbiltasuna dela-eta nahiz parte-hartzaile gutxi direlako, kristau-elkarte guztietan Pazkoaren ospakizun osoa eta jai-giroan egina ziurtatzerik ez dagoenean, desiragarria izango litzateke, ingurumariak kontuan izanik, elkarte bat baino gehiago eliza jakin batean biltzea.

Zaindu egin behar da, ordea, bateraturik egindako Pazko Gaubeilan talde desberdinek parte har dezaten, fededun guztiek, kristau-batzar bakarra osatzen dutelarik, eliz elkarte bat berekoak direlako bizikizun sakonagoa izan dezaten.

Oporretan direlako, liturgia beren jatorrizko parrokian ospatzerik ez duten fededunak izan bitez gonbidatuak, orain aurkitzen diren lekuko ospakizunean bat egitera.

95. Pazko Gaubeilaren ospakizuna iragartzekoan ez da komeni «Larunbat Santuko» azken ekintza dela esatea. Alderantziz, Pazko Gaubeila «Pazko gauean ospatuko dela» esango da, eta bere osotasunean ospakizun bat bera dela.

Eliz artzainei arren eta arren eskatzen zaie, fededunei emango dieten hezieran azpimarra diezaietela, Pazko Gaubeila osoan parte hartzea komeni dela.

96. Pazko Gaubeila benetan era onuragarrian ospatu ahal izateko, eliz artzainek berek ere ahaleginak egitea komeni da, testuak eta ohikuneak hobeto uler ditzaten, horrela, egingo duten mistagogia edo ospakizuna egiazkoagoa izan dadin.

B) Pazko-eguna

97. Pazko-eguneko Meza ere Gaubeilako jai-giro eta ospe berean ospatu behar da. Damu-otoitzaren ordeztu, Gaubeilako ospakizunean bedelinkatutako urarekin zirtaketa egitea komeni da; zirtaketa bitartean, «*Vidi aquam*» antifona nahiz Bataioari buruzko beste kantu egokiren bat abes daiteke. Elizako sarrera-ateetako ur bedelinkatu ontzietan ere bedelinkatutako ur hau jartzea komeni da.

98. Pazko-eguneko Bataioari buruzko Bezperak ospatzeko ohitura bizirik dagoen lekuetan mantendu bedi tradizio hori, edota ahal izanez gero eraberritu bedi, eta prozesioa egingo da bataio-pontera.

99. Irakurtoki ondoan edota aldare ondoan kokatuko da pazko-zuzia; Pazkoaldiko liturgi ospakizun nagusi guztietan piztuko da gutxienez, bai Mezetan, bai Gorespen eta Bezperetan, Pentekoste-igandea bitartean. Ondoren, bataio-lekura eramango da eta han edukiko ohore handiz, bataiatu berrien kandelak bertatik piztu ahal izateko. Hileta-ospakizunetan hilkutxaren ondoan jarriko da pazko-zuzia, kristauaren heriotza beraren Pazko berezia dela adierazteko. Pazkoaldiaz kanpo, ez da piztu behar pazko-zuzia, ezta presbiterioan eduki behar ere.

GARIZUMAKO BEDEINKAPEN NAGUSIA

Jauna zuekin. R̥. Eta zure espirituarekin.

Makur zaitezte, Jaunaren bedeinkapena hartzeko.

(Eskuak herriaren gain zabalik bedeinkapena esango du:)

**Jainko Aita errukitsuak eman diezazuela guztioi,
seme hondatzaileari bezala,
aitaren etxera itzultzeko poza.** R̥. Amen.

**Otoitz- eta bizitza-eredu den Kristok
eraman zaitzatela, Garizumako bidetik,
egiazko bihotz-berritzera.** R̥. Amen.

**Jakinduria eta ahalmen Espirituak
indar zaitzatela gaiztoaren kontrako borrokan,
Kristorekin batera pazko-garaipena ospa dezazuen.** R̥. Amen.

**Bedeinka zaitzatela Jainko ahalguztidunak:
Aitak, eta Semeak, ✠ eta Espiritu Santuak.** R̥. Amen.

Martxoaren 9an **GARIZUMAKO I. IGANDEA**

Agurra

Bihotz-berritzera dei egiten digun Jesu Kristoren grazia eta maitasuna zuekin.

Sarrerako oharpena

Berrogei eguneko ibilbideari ekin genion joan zen asteazkenean, hautsaren ezaugarriarekin. Garizuma berezia dugu aurtengoa, Jubileu urtearen baitan, itxaropenezko ibilbidea gerta baitaiteke. Itxaropen erromes den herriaren bihotz-berritze bide. Igandea ospatzeak, Kristoren heriotza eta piztuerari begira jartzen gaitu, horretan gozatzen baita gure fedea, gure gizatasuna.

Misterio handi honek lagun diezagula gure bizitzako basamortu eta lehorteetan fedearen argia aurkitzen.

Damu-otoitza

Senideok: Jainkoak ez du bekatariaren heriotza nahi, baizik bihotz-berri dadila eta bizi. Ospakizun honen hasieran, jar dezagun geure uste osoa Jainko Aitagan eta dei egin diezaiogun:

—Jesus Jauna, uraren eta Espirituaren bidez / jaiotza berria eman diguzuna: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, gure barruan bihotz berria sortzeko, / Espiritu Santua bidali diguzuna: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, betiereko salbamena ekarri diguzuna: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

Otoitza

**Jainko ahalguztiduna,
egizu, Garizumako urteroko jarduerak eraman gaitzala
Kristoren misterioa hobeki ezagutzera
eta berari dagokion eran bizitzera.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. *℟*. Amen.**

Hitzen liturgiari oharpena

Jainkoak bere Herriarekin duen hartu-emana, elkarriketa jatorra da: salbamen-historia berritzailea. Esperientzia horixe da berritu nahi duguna eta bizi nahi duguna. Jainkoaren Hitza dugu horretarako lagunik bikainena, otoitzarekin batera.

Hitzen liturgiari oharpena

Jainkoak bere Herriarekin duen hartu-emana, elkarriketa jatorra da: salbamen-historia berritzailea. Esperientzia horixe da berritu nahi duguna eta bizi nahi duguna. Jainkoaren Hitza dugu horretarako lagunik bikainena, otoitzarekin batera.

Lehenengo irakurgaia (Dt 26, 4-10)

Deuteronomioa liburutik

Moises honela mintzatu zitzaion Israel herriari: «Apaizak zure eskutik lehen-fruituen saskia hartu eta Jaunaren zure Jainkoaren aldare aurrean jarriko du.

Orduan, Jaunaren zeure Jainkoaren aurrean esango duzu: “Nire aita noraezean zebilen aramearra zen; Egiptora jaitsi eta etorkin gisa bizi izan zen han, lagun bakar batzuekin. Egipton herri handi egin zen jendez eta indarrez.

Egiptoarrek tratu txarra eman ziguten, zapaldu eta morrontza gogorra ezarri. Deiadar egin genion Jaunari, gure arbasoen Jainkoari; Jaunak gure deiadarra entzun zuen eta gure atsekabea, nekea eta estualdia ikusi zuen. Eta Egiptotik atera gintuen Jaunak ahalmen handiz eta esku indartsuz, etsaiengan beldur-ikara sortuz, ezaugarri eta egintza harrigarriak eginez. Toki honetara ekarri gintuen eta lurralde hau eman zigun, esnea eta ezia darion lurraldea. Orain, hona hemen non dakarzkizudan, Jauna, Zeuk eman didazun lurreko emaitzen lehen-fruituak”.

Hori esanik, Jaunaren zeure Jainkoaren aurrean utziko duzu eskaintza, eta Jauna zeure Jainkoa ahuspez gurtuko duzu».

Erantzun-salmoa (Sal 91 [90], 1-2. 10-11. 12-13. 14-15)



- ✠. Goi-goikoaren aterpean bizi zaren horrek,
gaua Ahaltsuaren itzalpean ematen duzun horrek,
esaiozu Jaunari: «Zu nire babesleku eta gaztelu,
ene Jainko, Zugan dut konfiantza». ✠.
- ✠. Ez zaizu zoritxarrik gertatuko,
ez da zure etxolara izurrik hurbilduko,
bere aingeruei agindu baitie,
zu bide guztietan zaintzeko. ✠.
- ✠. Besoetan eramango zaituzte,
harriekin estropezu egin ez dezazun.
Suge eta sugegorrien gainean ibiliko zara,
oinazpian hartuko dituzu lehoia eta herensugea. ✠.



℣. «Onik aterako dut, niri atxikia dagoelako,
toki seguruan jarriko, nire izena aitortzen **du**elako.
Dei egingo dit, eta Nik **er**antzungo;
berekín izango nau larrialdian, '
libratuko dut eta os**pez** jantziko». ℟.

Bigarren irakurgaia (Erm 10, 8-13)

San Paulo Apostoluak Erromatarrei egindako gutunetik

Senideok: Hau dio Liburu Santuak: «Hurbil duzu hitza, zeure ahoan eta zeure bihotzean». Hitz hori, hain zuzen, guk hots egiten dugun sinesmenaren mezua da. Izan ere, zeure ahoz aitortzen baduzu Jesus Jauna dela, eta zeure bihotzean sinesten baduzu Jainkoak hilenartetik piztu zuela, salbatuko zara. Zeren bihotzez sinesten duena zuzentzat hartzen baitu Jainkoak, eta ahoz aitortzen duena salbatu egiten da. Liburu Santuak dio: «Harengan sinesten duena ez da lotsagarri gertatuko».

Judu izan ala ez, ez dago bereizketarik, bat bera baita guztien Jauna, dei egiten dioten guztientzat eskuzabala. Izan ere, «Jaunaren izenari dei egiten diona salbatuko da».

Ebanjelio-aurreko gorapena (Mt 4, 4b)



Je - su-kris- to gu - ri min-tza, ar - gi gu-re bi-ho - tza



℣. Gizakia ez da ogiz baka**rrik** bizi,
Jainkoaren ahotik ateratzen den hitz guzti**tik** baizik. ℟.

Ebanjelioa (*Lk 4, 1-13*)

Homiliarako argibideak

0. Espirituaz beterik

Hausterre Egunarekin Garizumako bidea hasi dugu urtero bezala. Badirudi urtero aukera berri bat ematen zaigula gure kristau fedearen misterioa fundamentuz sakontzeko eta bizitzeko. Horixe da Garizumaren muina, gure fedearen sakramentua: Jesus hil eta biztuko dela.

Garizumako lehen igandeko honetako ebanjelioak Lukasen idatzitit abiatzen zaigu Jesus basamortuko tentaldiak bizitzeko prest. Ohartu gaitezen Eguberriko garaia Jesusen bataioarekin amaitu genuela eta, utzi genuen tokian, hasten dugula oraingo Garizuma, gaurko ebanjelioaren pasarte.

Bataioarekin Jesusek Jainkoaren seme izatea sentitu du, Mesias bezala gantzutua izan da eta Espiritu Santuaz beterik basamortuan barneratuko da.

Espiritu Santuak bultzatu du, bere indarrez beterik hasiko du itxurazko kontrako bidea, bere misioa balantzan jarri dezaken bide aldrebesa.

1. Basamortua

Basamortua tentaldien tokia da Biblian, gaizkiaren tokia, espiritu txarrek gizakia frogan jartzen duten esparrua.

Baina, era berean, basamortua Jainkoarekin topagune da, erabakiak hartzeko parajea, salbamenerako tokia. Gabeziaren toki horretan, gutxienekoak ere faltan diren horretan, Jainkoarekin aurrez-aurre topo egiteko aukera agertzen da.

Horrela historian zehar basamortua aukeratu dute hainbat gizon-emakumeek euren barne aukerak Jaunaren aurrean agertzeko, Jainkoak zer eskatzen dien galdetu eta erantzun bila jartzeko.

Geuk ere gure espiritu-bizitza zaindu nahi badugu -horrela aurkezten digu Donostiako gotzain Fernandok "Harengan gure itxaropena" bere Pastoral Gutunean "kristau bakoitzak... Jainkoaren Hitza ardatz duen otoitz une txiki bat egitea... Etxe bakoitzean otoitzaren txokoa" irudikatzea. Posible diren ametsak basamortua bila dezakete Jainkoak gutaz zer nahi duen barneratzeko.

Gure etxea, natura, zabalik dagoen elizako isiltasunean aurki genezake geure basamortu pertsonala.

2. Berrogei egun

Basamortuko berrogei egunak Garizumako berrogei egunekin parekatu ditzakegu. Berrogei horiek zenbaki sinbolikoa adierazten dute Biblian. Israel herriak basamortuan berrogei urte igaro zituen, berrogei egun eta gau izan ziren uholdeak iraun zuena, berrogei egunez egon zen Moisesi mendian, Eliasek berrogei egun egin zituen basamortuan.

Jesusen berrogei egun horiek bere bizitza osoa laburbiltzen dute deabruak Jaunaren asmoa bertan behera uzteko, Jesusen misioa zapuzteko. Eta deabruak tentaldian jartzen dituen hiruak hauexek dira: lehena, gizaki bidari izateari uko egin, ogien tentaldia, justiziaren ogia kendu eta mirarikerien arrakasta erabili.

Bigarren tentaldiak mundu honetan erreinuak gurtzea da. Senide-elkartasunaren zerbitzuan aritu beharrean botere eta gizakia hankapean hartzeko tentaldia da, indarrez lortzen den autoritatea, bestea menderatzea.

Hirugarren tentaldia Jainkoa bera tentatzen du. Fedea indarrez lortzea, arrakastaren bide laburra egitea, fedea ikuskizun bihurtzea da. Jauna tentatzea gurutzeari uko egitea da, bertatik jaitsi eta gurutziltzatuak ahaztea.

Hiru tentaldiekin hasi dugu Garizuma. Berrogei egunez gure bizitzari errepaso sakona emateko aukera dugu. Bide honetan Jesus dugu bidaide, bideko lagun. Berak gaintitu zituen basamortuko tentaldiak. Bere laguntzarik gabe, geuk ez dugu lortuko.

Jainkoaren herriaren otoitza

Senide maiteok egiogun otoitz zeruko Aitari, gizaki guztientzat errukia eta bekatariontzat barkamena eskatuz:

Erantzuna: Kyrie, eleison!



- Garizumaldi honetan, Jainkoak bere fededunei gaitzaren aurka egiteko, bere okerretatik zuzentzeko eta onbidera itzultzeko behar duten indarra eman diezaiei. Egigun otoitz. R̃.
- Ondasunez oparo bizi direnek, daukatena behartsuen onerako erabiltzen jakin dezaten, eta mundu honetako ondasunetan liluratuta bizi ez daitezen. Egigun otoitz. R̃.
- Gure eskandalu eta epeltasunengatik Elizatik urrundu direnak Jainkoaren familiara itzul daitezen eta Jainkoak geure jarrera horien bekatua barka diezagun. Egigun otoitz. R̃.
- Garizumako penitentziaren bidez gure bihotzak, berriz ere, Jainkoaren hitzak fruitu oparoa emango duen lur emankorra izan daitezen. Egigun otoitz. R̃.

Entzun, Jauna, munduko basamortutik dei egiten dizun Zure Elizaren otoitza, zabaldu gugana Zure beso errukitsua eta egizu, penitentziaren eta otoitzaren bidez tentaldia garai dezagula. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. R̃. Amen.

Oparigaien gaineko otoitza

**Jauna, opari honekin hasten gara
pazko-misterioa ospatzeko prestatzen;
egizu, gure jarrera izan dadila
eskaintza honek eskatzen duenaren arabera.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ℟. Amen.**

Prefazioa

Garizumako I. igandeak bere prefazioa du, Meza liburuko 158. orrialdean.

Jaunartze-ondorengo otoitza

**Hartu dugun ogi santu honek, Jauna,
sinesmena bizkortzen digu,
itxaropena sendotzen eta maitasuna indartzen;
egizu, ikas dezagula
egiazko ogi bizia den Jesusen gose izaten
eta zure ahotik ateratzen diren hitzetan bizia aurkitzen.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ℟. Amen.**

Herriaren gaineko otoitza eta bedeinkapena

Jauna zuekin. ✠. Eta zure espirituarekin.

Makur zaitezte, Jaunaren bedeinkapena hartzeko.

(Eskuak herriaren gain zabalik bedeinkapena esango du:)

**Etor bedi, Jauna, ugari zure bedeinkapena
zure herriaren gainera;
emaiozu estualdietan itxaropen handiagoa,
tentaldian indar sendoagoa eta betiko salbamena.**

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ✠. Amen.

**Bedeinka zaitzatela Jainko ahalguztidunak:
Aitak, eta Semeak, ✠ eta Espiritu Santuak.** ✠. Amen.

Zoazte Jaunaren bakean. ✠. Eskerrak Jainkoari.

Herriaren gaineko otoitzaren ordezt, erabil daiteke Bedeinkapen Nagusia (Ikus Liburuxka honetan 24. or.).

Martxoaren 16an
GARIZUMAKO II. IGANDEA

Gure Elizbarrutietako Misioak

Agurra

Bihotz-berritzera dei egiten digun Jesu Kristoren grazia eta maitasuna zuekin.

Sarrerako oharpena

Garizumako bigarren urrats honetan Kristoren piztuerari begira jartzen gara. Itxaropenean erromes garenok, Aitarekin bat egitetik datorren antzaldatzea behar dugu, gugan piztueraren indarra nagusitzen dela antzeman dakigun.

Gaur, gainera, Elizbarrutiko Misioak gogoan izango ditugu gure otoitzean, bai gure diru-bilketan ere.

Eukaristia dugu esperantzaren iturri. Ospa dezagun fedez.

Damu-otoitza

Senideok: Bekatuak aldendu egiten gaitu Jainkoagandik eta geure anai-arrebengandik. Egin ditzagun bakeak, damuturik bekatuen barkamena eskatuz:

—Jesus Jauna, gure erruak gar**bi**zen dituzuna: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, gugan bihotz garb**ia** sortzen duzuna: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, salbamenaren poza berriro em**at**en diguzuna: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

Otoitza

**Oi Jainko, zeure Seme maiteari entzuteko esaten diguzu;
emaiozu gure espirituari zeure hitzaren janaria,
gure barne-begiak argiturik, zure aintza pozez ikus dezagun.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. *Ix.* Amen.**

Hitzaren liturgiari oharpena

Lehenengo irakurgaiak konfiantza izatera deitzen gaitu, Abraham deitu zuen bezala. Jainkoaren deia entzun eta uste on izan: berak aldatuko gaitu, bere Seme Kristoren neurrira aldatuko ere. Entzun dezagun arretaz Jainkoaren Hitz bizi-emailea.

Lehenengo irakurgaia (*Has 15, 5-12. 17-18*)

Hasiera liburutik

Egun haietan, Jaunak kanpora aterarazi zuen Abram eta esan zion: «Begira zerura eta konta itzazu izarrak, ahal baduzu». Eta, gainera, esan zion: «Horrenbeste izango dira zure ondorengoak». Abramek sinetsi egin zuen Jaunagan, eta Jaunak zuzentzat hartu zuen. Eta esan zion: «Ni naiz Jauna, kaldearren Ur hiritik atera zintuena, lurralde hau zuri jabetzan emateko».

Abramek esan zion: «Jainko Jauna, nondik ezagutuko dut lurraldearen jabe izango naizela?» Jaunak erantzun zion: «Ekariezazkidazu hiru urteko txahal bat, hiru urteko ahuntz bat, hiru urteko ahari bat, usapal bat eta usakume bat». Ekarri zituen Abramek hauek guztiak eta erdibi egin zituen, eta puskak bata bestearen aurrez aurre ipini; hegaztiak ez zituen erdibitu. Hegazti harrapariak sarraskira zetozen, eta Abramek uxatu egiten zituen.

Eguzkia sartzean, lozorroan murgildu zen Abram, eta ikara handia sartu zitzaion. Eguzkia sartu eta ilun-beltz egin zenean, labe bat ketan eta zuzi bat sutan agertu ziren eta abere-zatien artetik igaro. Egun hartan Jaunak agintzari hau egin zion Abrami: «Zure ondorengoei emango diet lurralde hau, Egiptoko ibaitik hasi eta Eufrates ibai handiraino».

Erantzun-salmoa (Sal 27 [26], 1. 7-8b. 8c-9c. 13-14)



- ✠. Jauna dut argi **eta** salbamen,
nork **ni** beldurtu?
Jauna biziaren babes,
nork **ni** izutu? ✠.
- ✠. Entzun, Jauna, nire **dei**-hotsa,
erruki zakizkit **eta** erantzun.
Bihotzak **es**aten dit:
«Bila ezazu haren **aur**pegia». ✠.
- ✠. Zure aurpegi bila **nabil**, Jauna,
ez ezkutatu niri zeure **aur**pegia.
Ez baztertu zeure zerbitzari **hau** haserre,
Zu baitza**it** laguntza. ✠.
- ✠. Ziur dakit Jaunaren ontasuna gozatu**ko** dudala
bizidu**nen** lurrean.
Itxaron Jaunagan! ‘
Eutsi gogor, **izan** bihotz!
Itxa**ron** Jaunagan! ✠.

Bigarren irakurgaia (*Flp* 3, 14 – 4, 1 edota, laburrago *Flp* 3, 20 – 4, 1)

San Paulo Apostoluak Filipoarrei egindako gutunetik

Senideok: [Izan zaitezte nire antzeko, eta begira nigan duzuen ereduaren arabera bizi direnei. Izan ere, asko dira Kristoren gurutzearen etsai bezala bizi direnak. Askotan esan dizuet eta berriro diotsuet orain malko artean. Horrelakoen azkena hondamendia da; sabela dute jainko, beren lotsarietan harrotzen dira eta lurreko gauzetan bakarrik pentsatzen dute.

Gu, ordea,] zeruko hiritar gara eta handik itxaro dugu Salbatzailea, Jesu Kristo Jauna. Hark antzaldatuko du gure gorputz ezerez hau, bere gorputz aintzatsuaren irudiko eginez, gauza guztiak bere menpe jartzeko duen ahalmenari esker.

Horrela, bada, ene senide gogoko eta maiteok, nire poza eta nire koroa, iraun ezazue horrela Jaunari leial, maiteok.

Ebanjelio-aurreko gorapena (Ik. *Lk* 9, 35)

℣. Hodei distiratsutik Aitaren ahotsa **ent**zun zen:
Hauxe da nire Seme maitea. Entzuiozue. ℟.

Ebanjelioa (*Lk* 9, 28b-36)**Homiliarako argibideak****0. Mendira igo zen**

Otoitzean ari zela aurkezten digu gaurko ebanjelioak Jesusen Antzaldatzea. "Pertsonen bihotzean egin behar da lehenbizi zinezko eraberritzea. Egiatzko konbertsiorik gabe, axalean gelditzeko arriskua dugu". Hauxe digu Fernando Prado gotzainak "Harengan gure itxaropena" Pastoral Gutunean Elizbarrutiko Eraberritze pastoral eta misiolaria bultzatzeko.

Gauzak aldatzeko neuk aldatu behar dut lehenbizi. Eliza eraberritzeko neure bihotza eraberritu behar dut.

Garizumako bigarren urrats honetan Jesus mendira igo zen Jaunaren borondatea hausnartzeko, nondik nora jo behar duen miatzeko.

Pedro, Santiago eta Joan ikasleak eraman ditu berarekin. Ez dago bakarrik. Baina, une erabakigarri honetan ikasleak lo hartuko dute. Ez dute oraindik Jesusen bide sakon eta mingarriarekin bat egin. Iritsiko da honetarako garaia eta hiru diszipuluek hori adierazteko aukera izango dute.

1. "Bai ederki gaudela hemen!"

Jesusen Antzaldatzeak halako zirrara sortuko zuen ikasleengan eta Jesusen jarraibideak arrakastaren bidea erakusteko tentazioa adierazi zien, ziurrenik. Herriak espero zuen Salbatzaile bera espero zuten ikasleek: herria salbatuk duen buruzagia, Mesias politiko eta arrakastatsua.

Jainkoak ukitutakoa zela jabetzea, Jesusen Antzaldatzearen bizipena partekatzean Pedrok hartzen du hitza: "Maisu, bai ederki gaudela hemen!". Oraingoan ere Pedrok ez du ezer ulertu, Jesusekin bide luzea du egiteko oraindik, gurutzeko bidea iristen denean zer egingo ote dute ikasleek?

Badirudi Antzaldatzea eta Gurutzea ez doazela bat. Jesusek argi eta garbi adieraziko dien heriotzaren eta biztueraren bidea oraindik ulertzeko gai ez dira. Guk ere horretan nahiko lan dugu oraindik. Nahiago dugu hiru txabola egin eta bertan geratu, Antzaldatzearen gozotasun eroso horretan.

Baina, ez! Ez da hori bidea!

2. Misiolari gara

Gaur gure Elizbarrutiko Misioak ditugu gogoan. Garai oparagoetan herrialde desberdinetan egin ginen presente eta Jesusen Berri Ona eramateko gai izan ginen, justiziaren eta bakearen hazia ereiten saiatu ere Angola, Ruanda eta Ekuadorreko herrietan.

Bataiotik gara denok misiolari eta gure presentziak ahulago izanik ere ezin dugu elkartasunaren zerbitzua alde batera utzi. Garai batean erakustera joaten baginen, orain asko dugu ikasteko ere, gure apaltasunean misiolari izateari ezin diogu huts egin.

Ikasleek hodeitik ateratako ahotsa entzun zuten moduan geuk ere gaur Jesusi entzuteko premia aldarrikatzen dugu Garizumako bigarren pauso honetan, gure Elizbarrutiko Misioak oroitzean. Ikasleak mutu geratu ziren erakutsitako bide horretan. Baina, Jesusi jarraitu zioten euren apaltasun eta ahuldadean.

Jainkoaren herriaren otoitza

Egiogun otoitz senideok gure egintzen epaile den Aita errukitsuari eta gure bihotzen ezkutukoena ezagutzen dituen Jainkoari eta damu-espirituz eska diezaiogun entzun dezala bere herriaren otoitza:

*Erantzuna: **Kyrie, eleison!***



—Jainkoak eman diezaien bere senideei Garizumako egun hauek egiazko penitentzi jarreraz bizitzea eta barkamenaren sakramentua oparo ospatzeko prestatzea. Egigun otoitz. R̃.

—Onbidetik urrundu eta bekatuagatik hil direnek Jainkoaren Semearen ahotsa Garizumaldi honetan entzunik bizi daitezen. Egigun otoitz. R̃.

—Elizbarrutiko misioen alde: lurralde behartsuetan gu guztion izenean Jesusen berri ona zabaltzen ari diren gure misioen alde, hemendik haiei laguntzeko ahalegina egiten dugunon alde. Misiolaritza Elizaren jarrera ezinbestekoa dela jabetu gaitzen. Egigun otoitz. R/.

—Garizumako penitentzialdiak ondasunekiko gure gehiegizko jarrera zuzen dezan eta gure espiritua sendotuz betirako diren ondasunetara begira jar gaitzan. Egigun otoitz. R̃.

Jainko on eta leiala, bihotz zintzoz bilatzen zaituztenei Zure errukia agertzen diezu; entzun gure otoitzak eta suspertu gurutzearen misterioarekiko gure fedea, Zure nahia geure eginez Zure Semearen hitza entzun dezagun. Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. R̃. Amen.

Oparigaien gaineko otoitza

Jauna, eskaintza honek garbi gaitzala geure bekatutik eta santu egin ditzala zure fededunen gorputz-arimak, pazko-jaiak ospatzeko gai izan daitezen.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. R̃. Amen.

Prefazioa

Garizumako II. igandeak bere prefazioa du, Meza liburuko 168. orrialdean.

Jaunartze-ondorengo otoitza

**Misterio aintzagarriak hartu ditugunok
eskerrak ematen dizkizugu, Jauna,
lur honetan gaudela ere
zeruko ondasunen jabe egin gaituzulako.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *℟*. Amen.**

Herriaren gaineko otoitza eta bedeinkapena

**Jauna zuekin. *℟*. Eta zure espirituarekin.
Makur zaitezte, Jaunaren bedeinkapena hartzeko.**
(Eskuak herriaren gain zabalik bedeinkapena esango du:)
**Bedeinkatu, Jauna, etengabe zeure fededunak
betiereko bedeinkapenez, eta egizu,
zure Seme bakarraren Ebanjelioari atxikirik bizi daitezela,
hark Apostoluei erakutsi zien aintza
gogo biziz bilatu eta zoriontsu eskura dezaten.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *℟*. Amen.
Bedeinka zaitzatela Jainko ahalguztidunak:
Aitak, eta Semeak,  eta Espiritu Santuak. *℟*. Amen.
Zoazte Jaunaren bakean. *℟*. Eskerrak Jainkoari.**

Herriaren gaineko otoitzaren ordezt, erabil daiteke Bedeinkapen Nagusia (Ikus Liburuxka honetan 24. or.).

Martxoaren 23an
GARIZUMAKO III. IGANDEA

Agurra

Bihotz-berritzera dei egiten digun Jesu Kristoren grazia eta maitasuna zuekin.

Sarrerako oharpena

Garizumako hirugarren igandea dugu: Jauna gurekin dago pazko-argirantzako gure ibilbidean. Penitentzia aldia da Garizuma, baina ondoan behar ditu horrek justiziaren eta karitatearen aldeko borroka. Honela gertatzen da garizumako ibilbidea egiazko bihotz-berritze, Jaunari bihotz askez jarraitzeko bide.

Esperantza horrek eraginik, presta gaitezen Eukaristiarako.

Damu-otoitza

Ospakizun hau hastean, eska diezaiogun Jainkoari eman diezagula egiaz bihotz-berritzea; era honetan, adiskideturik, Jainkoarekiko eta senideekiko gure batasuna sendotuko zaigu.

- Jesus Jauna, gizadiaren salbamena gurutze-habeen **ezarri** zenuena: erruki, Jauna.
- Jesus Jauna, guk zure urratsei jarraitzeko, / gugatik nekaldia **jasan** zenuena: Kristo, erruki.
- Jesus Jauna, gu, bekaturako hilik, santutasunerako bizi gaitezen / gure bekatuak zeure bizkarrean habe gainera eram**an** zenituen: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

Otoitza

Jainko errukitsua, on guztien iturria,
 baraua, otoitza eta erruki-egintzak
 ipini dizkiguzu geure bekatuen sendabide;
 begira bihotz onez geure ahuleria aitortzen dugunoi
 eta bizkor gaitzazu zeure erruki handiaz
 bekatuaren zamapean aurkitzen garenok.
 Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
 Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
 Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. *℟*. Amen.

Hitzaren liturgiari oharpena

Gizakiaren historian parte hartzen du Jainkoak. Gizakien lurrean bizi da, gudan. Eta hau “lur santua da”, aukera ematen zaiona, lehenengoan moztan ez dena: bihotz-berritzearen eta salbamenaren Jainkoa dugu aurrez-aurre.

Lehenengo irakurgaia (*Ir* 3, 1-8a. 13-15)

Irteera liburutik

Egun haietan, Moisesek bere aitaginarreba Jetroren, Madiango apaizaren, ardiak zaintzen zituen. Behin, basamortuan barna eraman zituen eta Horebera, Jainkoaren mendira, iritsi zen. Han Jaunaren aingerua agertu zitzaion, sasi artean pizturiko sugarrean. Moisesek ikusi zuen sasia, sutan egonik ere, ez zela erretzen.

Moisesek esan zuen: «Hurbil nadin gauza harrigarri hori ikustera: nola izan liteke sasia ez erretzea?» Begiratzera zetorrela ikustean, Jaunak dei egin zion sasi artetik: «Moises, Moises!» Honek erantzun: «Hemen nauzu». Eta Jaunak: «Ez hurbildu; kendu oinetakoak, zauden tokia lur santua da eta». Eta gaineratu zuen: «Zure arbasoen


Jainkoa naiz Ni, Abrahamen Jainkoa, Isaaken Jainkoa eta Jakoben Jainkoa». Moisesek aurpegia estali zuen, Jainkoari begiratzeko beldurrez.

Jaunak esan zion: «Ikusi dut neure herriaren atsekabea Egipton eta entzun dut haien oihua beren zapaltzaileen zigorpean; bai, jabetu naiz haien oinazez. Eta haiek egiptoarren eskuetatik libratzera etorri naiz, eta lurralde hartatik lurralde on eta zabal batera, esnea eta ezia darion lurraldera, igoaraztera».

Moisesek esan zion Jainkoari: «Hara, joango naiz israeldarregana eta “Zuen arbasoen Jainkoak bidali nau zuengana” esango diet; baina haiek “Nola du izena?” galdetzen badidate, zer erantzun behar diet?» Jainkoak esan zion: «Naizena naiz Ni. Hau esango diezu israeldarrei: “Naizena naiz” deritzanak bidali nau zuengana».

Gainera Jainkoak esan zion Moisesi: «Esan israeldarrei: “Jaunak, zuen arbasoen Jainkoak, Abrahamen Jainkoak, Isaaken Jainkoak eta Jakoben Jainkoak, bidali nau zuengana. Horixe izango da nire izena betiko; honela deituko nauzue belaunez belaun”».

Erantzun-salmoa (*Sal* 103 [102], 1-2. 3-4. 8 eta 10. 12-13)





- ✠. Bedeinka beza nire arimak Jauna,
 nire barren osoak haren izen santua.
 Bedeinka beza nire arimak Jauna,
 ez bedi ahaztu haren mesedeaz. ✠.
- ✠. Erru guztiak dizkizu barkatzen,
 gaitz guztiak sendatzen;
 zure bizia hilobitik askkatzen du,
 maitasunez eta errukiz koroatzen zaitu. ✠.
- ✠. Jaunak justizia egiten du,
 zapaldu guztien eskubideak defendatzen ditu.
 Bere egitasmoak agertu zizkion Moisesi
 bere egintza handiak israeldarrei. ✠.
- ✠. Bihozbera eta errukiorra da Jauna,
 haserregaitza eta onginahiz betea.
 Ez gaitu erabiltzen gure bekatuek merezi bezala,
 ez digu ordaintzen geure erruen arabera. ✠.

Bigarren irakurgaia (1 Ko 10, 1-6. 10-12)

San Paulo Apostoluak Korintoarrei egindako lehen gutunetik

Senideok: Jakin behar duzue, gure arbasoak denak egon zirela hodeipean eta denek igaro zutela itsasoa; denek hartu zuten bataioa hodeian eta itsasoa, Moisesekin bat egiteko; denek jan zuten espirtuzko janari bera, eta denek edan espirtuzko edari bera. Izan ere, berekin zihoan espirtuzko harkaitzetik edaten zuten; eta harkaitz hura Kristoren irudi zen. Hala ere, haietako asko eta asko ez zitzaion atsegin izan Jainkoari, eta hilda gelditu ziren basamortuan.

Gauza hauek guretzat ikasbide izateko gertatu ziren, gaiztakeriarik irrika ez dezagun, haiek irrikatu zuten bezala. Ez zaitezela marmarrean ari, haietako batzuk ari izan ziren bezala, eta aingeru suntsitzailearen esku hil ziren.

Hau guztia gure ikasbiderako gertatu zitzaien eta gure eskarmenturako idatzi zen, azken garai hauetan bizi garenok zentzarazteko. Beraz, zutik dagoela uste duena ibil bedi kontuz, eror ez dadin..

Ebanjelio-aurreko gorapena (Mt 4, 17)



✠. Bihotz-berri zaitezte, dio Jaunak,
hurbil da-eta zeruetako erreinua. ✠.

Ebanjelioa (Lk 13, 1-9)

Homiliarako argibideak

0. Bihotz-berritzen ez bagara...

Bagoaz aurrera eta gaurko ebanjelioak egun bizi dugun errealitatearen irakurketa egiteko aukera aproposa eskaintzen digu. Pilatok hil zituen galilear batzuen patua salatzea hurbildu dira Jesusengana berak urrats bat eman dezan gatazka horretan.

Ikasleek eman dute galilearren inguruko epaia: bekatariak dira eta kito. Merezita zeukaten.

Jesusen erantzuna gogorra da eta gure bihotz gogorreko atea jotzen du: bihotz-berritzen ez bagara, denok galduko gara.

Hauxe da gaurko aldarria, Garizumako oihua, uneoro Jesusek larri egiten digun eskaria: denok bihotz-berritu beharrean gaude. Goitik behera eta barrutik kanpora, denok bihotz-berritzeko deia jaso behar dugu.

Erazegi epaitzen ditugu besteen joera eta ekimenak. Errazegi ematen dugu egoera desberdinen konponbiderako epaiak eta irtenbideak. Errazegi eragozten diogu Jaunari gure zorigaitza. Eta, egoera fundamentuz irakurtzeko gai ez bagara, Jaun Onaren bizkarrean jartzen dugu gure zama: Jainkoaren zigorra.

Baina, ez gara gu barnetik konprometitzen, axaletik aztertzen ditugu eta ez gara inplikitzen.

1. Pazientzia

Jaunak inork baino hobeto ezagutzen ditu gure gabezia eta kontraesanak. Jesusi Pilatoren zuzengabekeria salatzerantz joan zirenei bueltan etorri zitzaizen konbertsiorako larritasuna.

Jainko Onak ondo asko daki gure berri eta gure bihotzaren amarauna ezagutzen. Lukas ebanjelariak pikondoaren parabola sartzen du gaurko premiari oinarritzeko jarrera bat eskaintzeko: pazientzia.

Jainkoak gurekin duen pazientzia lagun hurkoarekin jartzea tokatzen zaigu uneoro. Jainko Onak ez du lurra alferrik jaten ari garela pentsatuko. Jauna gure bizitzako Mahastizaina da eta fruituak jasotzeko denbora hartuko du, behar dena, guk maite ditugunei ematen diegun denbora baino gehiago.

Pazientzia, azkenik, maitasun keinu bat da; hurkoak behar duen denbora hartzeko nik izan behar dudana pazientzia santua.

2. Alferrik

Erazegi uzten ditugu bide ertzean lagun-hurkoak lurra alferrik jaten ari direnaren aitzakian. Horrela, geure gustukoak ez direnak alboratzen ditugu, gure ideiarekin bat egiten ez dutenarekin ez dugu kontatu nahi izaten eginkizunetarako.

Bakoitzak bere denbora behar du eta Jesusen bihotz-berritzearen presak gaur bertan gure kontzientziaren ikuskaritza lasaia eta zintzoa egitera eraman behar gintuzke.

Europar nahiz Amerikar Estatu Batuetan diruz pobre direnak ez ditugu onartzen, ez diegu behar adinako abegirik egiten eta horrela, sufrikarioari bizkarra emanda lasai bizi nahi dugu. Mundu honetan inor ez dago alferrik, denok gara garrantzitsuak.

Kristauaren eginkizuna, gatz eta argi bagara, gure bizitzako ingurua aitzurtu eta ongarria botatzea tokatzen zaigu, elkartasuna jarritz, bidegabekeriak salatuz eta Jainkoaren Erreinua gertuago dagoela adieraziz esaten duguna egunerokora eramateko gai bagara.

Jainkoaren herriaren otoitza

Basamortuan otoitzari emana bizi izan zen Jesus gure Jaunaren ereduari jarraituz, egiogun otoitz guk ere aspergabe Jainkoari:

Erantzuna: Kyrrie, eleison!



—Fededun guztiak, Garizumako penitentzi eta ekinaldien bidez, beren erruetatik garbituak eta kristau bizitzan sendotuak izan daitezen. Egigun otoitz. R̃.

- Herri guztiek iris dezaten beharrezko bakea baretasuna eta ongizatea, era horretan zeruko ondasunak errazago bila ditzaten. Egigun otoitz. ✠.
- Ondasunak dituztenei, Jainkoak eskuzabaltasun jarrera eman diezaien eta lurreko ondasunak denon onerako ugari ditzan. Egigun otoitz. ✠.
- Jaunak bihotz-berritzeko egiazko gogoia gudan sorraraz dezan, pazko-sakramentuak ospatzeko behar bezala presta gaitezen. Egigun otoitz. ✠.

Aita errukiorra, Zuk ez dituzu zeure seme-alabak sekula eskutik uzten, baizik eta Zure izenaren aintza agertzen diezu; entzun gure otoitzak eta egizu, Zure erakutsiak haurren xalotasunez onartu eta egiazko bihotz-berritzearen fruituak eman ditzagula. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ✠. Amen.

Oparigaien gaineko otoitza

**Jaun errukitsua, sakrifizio honek irits diezagula,
zure barkamena eskatzen ari garenoi,
geure senideei barkatzen jakiteko grazia.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ✠. Amen.**

Prefazioa

Garizumako I. edota II. prefazioak erabil daitezke (Meza liburua 478-480 orr.).

Jaunartze-ondorengo otoitza

Betiko salbamenaren agiria da, Jauna,
lur honetan jadanik,
hartu dugun zerutar ogia;
egizu, orain sakramentuz ospatu duguna
egintzetan bete dezagula.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *℟*. Amen.

Herriaren gaineko otoitza eta bedeinkapena

Jauna zuekin. *℟*. Eta zure espirituarekin.
Makur zaitezte, Jaunaren bedeinkapena hartzeko.

(Eskuak herriaren gain zabalik bedeinkapena esango du:)

Gida ezazu, Jauna, zeure fededunon bihotza
eta eman errukitsu zeure zerbitzarioi grazia hau:
Zuganako eta lagun hurkoaganako maitasunean iraunez,
zure aginduak oso-osorik betetzea.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *℟*. Amen.

Bedeinka zaitzatela Jainko ahalguztidunak:
Aitak, eta Semeak,  eta Espiritu Santuak. *℟*. Amen.

Zoazte Jaunaren bakean. *℟*. Eskerrak Jainkoari.

Herriaren gaineko otoitzaren ordezt, erabil daiteke Bedeinkapen Nagusia (Ikus Liburuxka honetan 24. or.).

Martxoaren 30ean **GARIZUMAKO IV. IGANDEA**

Agurra

Bihotz-berritzera dei egiten digun Jesu Kristoren grazia eta maitasuna zuekin.

Sarrerako oharpena

Jubileua deitzeko Buldan haxe esan zigun Aita Santuak San Pauloren hitzekin: «Itxaropenak ez du huts egiten» eta itxaropen horren ezaugarrietako bat da alaitasuna. Garizumako laugarren igande honi «laetare» igandea deitu izan zaio: alaitasunaren igandea, gertu dagoelako jada Pazko jaia. Otoitz sutsuagoa egiteko deia egiten zaigu: Jainkoarekiko eta senideekiko elkartasuna indartzeko. Aitaren etxeko senti gaitezen: Kristok prest du guretzat gaur ere mahaia: Hitz bizia, bere Gorputz zatitua, bere Odol isuria.

Damu-otoitza

Jesu Kristo, zuzena denak, Aitarekin adiskidetzen gaitu. Ager dezagun gure bekatua eta damu-jarrera Jaunaren mahaira gerturatzeko.

- Jesus Jauna, onginahi hutsez sal**bat**zen gaituzuna: erruki, Jauna.
- Jesus Jauna, zure graziaz aber**ast**en gaituzuna: Kristo, erruki.
- Jesus Jauna, gurutzean Jainkoaren maitasun neurrigabea era**kuts**i diguzuna: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

Otoitza

**Oi Jainko, zure Hitzaren bidez
miragarriro adiskidetu zenituen gizon-emakumeak Zeurekin;
egizu, kristau-herria, maitasunean bero eta sinesmenean alai,
presta dadila hurbiltzen ari diren pazko-jaietarako.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. *Rx.* Amen.**

Hitzaren liturgiari oharpena

Jainkoaren aurpegi ederrenetarikoa agertzen digute gaurko Irakurgaiek: Salbamenaren lurrera garamatzan bide-laguna, barkamenaren eta adiskidetzearen Aita errukitsua. Entzun dezagun bihotz zabalez.


Lehenengo irakurgaia (Jos 5, 9a. 10-12)

Josue liburutik

Egun haietan, Jaunak esan zion Josueri: «Gaur kendu dizuet gainetik Egiptoko lotsaria».

Israeldarrek Gilgalen jarri zuten kanpalekua eta hilaren hamalauan, arratsaldean, Pazko-jaia ospatu zuten Jerikoko zelaian. Pazko-biharamunean lurraldeko fruituetatik jan zuten: legamiagabeko ogiak eta gari-ale txigortua.

Lurraldeko fruituetatik jaten hasi ziren egunetik aurrera, bukatu egin zen mana. Israeldarrek ez zuten gehiago manarik izan, eta urte hartan Kanaango lurraldeko emaitzez janaritu ziren.

Erantzun-salmoa (*Sal* 34 [33] 12-3. 4-5. 6-7)

- ✠. Bedeinkatuko dut aldi oro Jauna,
nire ahoan beti haren goresp^{en}a.
Harro nago Jaunarekin,
entzun bezate apalek eta poztu bitez. *R.*
- ✠. Handietsi nirekin batera Jauna,
gora dezagun elkarrekin haren izena.
Jaunagana jo nuen, eta hark erantzun,
beldur guztietatik ninduen libratu. *R.*
- ✠ Begiratzen diotenak distiratsu egongo dira,
ez zaie aurpegia lotsaz gorrituko.
Dohakabeak dei egin zuen, eta Jaunak entzun,
eta estualdi guztietatik zuen salbatu. *R.*

Bigarren irakurgaia (2 *Ko* 5, 17-21)

San Paulo Apostoluak Korintoarrei egindako bigarren gutunetik

Senideok: Errukian aberatsa den Jainkoak halako maitasun neurrigabeaz maita izan baikaitu, geure bekatuengatik hilda geundelarik, bizia eman zigun Kristorekin batean –onginahia hutsez zaudete salbatuak–, eta Kristo Jesusekin batean berpiztu gintuen eta zeruetan eserarazi. Honela, Jesu Kristogan guretzat hain ona izanez agertu nahi izan die datozen gizaldiei, zein ugaria eta eskuzabala den bere onginahia.

Onginahi hutsez salbatuak zaudete fedearen bidez; eta hori ez dator zuengandik, baizik eta Jainkoaren dohaina da; ez dator egiteetatik, inor harro ez dadin.

Izan ere, Jainkoak eginak gara; hark sortu gaitu Kristo Jesusengan, on egiten saia gaitezen, Jainkoak guretzat alde z aurretik erabakia zuen bezala.

Ebanjelio-aurreko gorapena (Lk 15, 18)



℣. Jaiki, aitagana joan eta esango diot:
Aita, bekatu egin dut Jainkoaren eta zure aurka. ℟.

Ebanjelioa (Lk 15, 1-3. 11-32)

Homiliarako argibideak

0. Jesusen lagunak

Jesus zergalari eta bekatarien artean gustura dabil. Ez dira konpainia onak jendearen ustetan. Orduko jende erlijiosoak honengatik kritikatzten dute Jesus halako bekataria ongi hartzen dituelako eta beraiekin jan ere egiten duelako.

Hauxe da gaurko historia hunkigarri bezain errealaren abiapuntua. Jesusek kontatutako parablek bizitza errealetik abiatzen da eta egunerokorako ikasbidea ematen du. Orduan eta gaur.

Halako kontakizunetan Jesusek gizarteak kanporatu dituen pertsonen harrera egiten die, gizarteak marjinatutakoengana hurbiltzen da inor ez bezala.

Jarrera eta jokabide honekin Jainkoaren izaera nolakoa den adierazten digu Jesusek. Jainkoa gizarteak baztertu dituengana hurbiltzen da, horiekin errukiorra da.

Jesus da Jainkoaren aurpegi bizia, errukitsua, hurbila eta abegikorra.

1. Seme gazteena

Seme gazteenak oraindik tokatzen ez zitzaion senipartea aurreratzea eskatu dio aitari. Aitaren ondasunen zatiketak bihotza bera zatitu du.

Seme gazteenak lurra jotzen duenean jabetzen da zer utzi zuen aitaren etxean eta bera nola aurkitzen den: gose, txerrizain (judutar batentzat lotsa handienetakoa), txerrien ezkurren inbidian.

Ondoa jo ondoren bere egoeraz jabetzen da eta orduan aitarengana itzultzeko diskurtsoa prestatzen du. Gosea eta lotsa dira seme gaztearen damuaren ataria.

2. Aita ona

Seme gaztearen itzulerak ezusteko erreakzioa sortuko du aitarengan. Ez da logikoa, bihotzak agintzen baitu. Aitaren besarkadak semearen diskurtso txukuna eten egin du. Maitasuna eta errukia semearen urruntzea baino indartsua gertatu da. Aitaren ondasuna funditu du, baina aitaren bihotza ez du gogortu.

Eta hementxe gaurko ebanjelioaren muina, ia esango genuke Jesusen Berri Onaren zeharkako arrastoa: Jainkoaren maitasuna eta errukia gure bekatua baino indartsuagoa da, ezbairik gabe.

Aitak semearen itzulerarekin festa handia antolatzeko eskaera egin du. Errukia festarako arrazoia da: soinekorik ederrena, eraztuna eta oinetakoak eta festa-otordua, hila zegoena bizi delako eta galdua zegoena aurkitu dugulako.

Hori da festa! Kristauok, beldurraren aitzakiarekin, errukiaren festa ospatzea ahaztu zaigu edo, okerrago, oraindik ez dugu ikasi edo ulertu.

3. Seme zaharrena

Seme zaharrena, itxuraz aitaren zerbitzuan egon dena urtetan, ez du aitaren jokabidea ontzat hartzen, bere anaiaren aitzakiarekin.

Haserreak indar gehiago du aitaren etxera festa egitera sartzea baino. Eta hortxe seme zaharraren bekatua: aitaren maitasun zabala eta oparoa ez onartzea. Etxean bizi da, baina ez du etxea errukiaren etxetzat. Ez du maitasunaren legea onartu.

Guztiok dugu hiruetatik zerbait. Denok noizbait etxetik alde egin dugu, bekatu egin dugu eta aitaren bihotz ona ahaztu. Denok seme zaharrena egin dugu, besteen bekatuak ikusi eta geurea estali. Denok gara gonbidatuak aitaren errukia eskaintzea min egin digunari eta maitasunaren indarrez besarkadarekin harremanak berreskuratzea.

Ez dago munduak maitasuna eta errukiaren eraldaketa geratu dezaketen indarrik. Patxi Loidik zioen moduan: «Goizero irteten zara balkoira eta hodeiertza begiztatzen duzu itzultzen ote naizen. Goizero esaten didazu belarrira udaberriko ahotsaz: gaur, ezerezetik has zaitezke berriro».

Jainkoaren herriaren otoitza

Senideok, egin diezaiogun otoitz Jaunari, ez baitu nahi bekatariaren heriotza, bihotz-berritu eta bizi dadila baizik, eta eska diezaiogun izan dezala errukia bere herri damutuarekin:

Erantzuna: Kyrie, eleison!



- Garizumaldi honetan adiskidetzearen sakramentua hartzeko prestatzen direnak Jaunak sendo ditzan eta euren erruen egiazko damua iristen lagun diezaien. Egigun otoitz. *R̃*.
- Jaunak fedegabeen adimena eta bihotza zabal ditzan egia ezagutzera iritsi daitezen, euren bihotzak amesten duen egiazko atsedena iritsi dezaten. Egigun otoitz. *R̃*.
- Gaixoiei, behartsuei, tentaldian bizi direnei eta sufrimenduarekin Kristoren Gurutzearekin bat egiten duten guztiei Jainkoak bere laguntza eman diezaien. Egigun otoitz. *R̃*.
- Garizumako bidean aurrera eginez bihotz-berrituak eta argituak iris gaitezen gertu ditugun Pazko jaietara. Egigun otoitz. *R̃*.

Errukian aberatsa zaren Jainkoa, barkamen besarkadaz onartzen dituzu damuturik zugana itzultzen direnak; entzun gure otoitzak eta gure bekatuak barkaturik jantzi gaitzazu ezta-soinekoz, pazko-otorduan parte hartu ahal izan dezagun. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *R̃*. Amen.

Oparigaien gaineko otoitza

**Pozik eskaintzen dizugu, Jauna, betiko sendabide den oparia,
eta apalki eskatzen:**

**ospa dezagula begirunez eta eskaini
munduaren salbamenerako.**

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ℟. Amen.

Prefazioa

Egokia da gaur IV. Eukaristi Otoitza erabiltzea, bere prefazioarekin, irakurgaietan azaltzen diren Jainkoaren itun desberdinak Kristorengan betetzen direla adieraziz.

Jaunartze-ondorengo otoitza

**Oi Jainko, Zuk argitzen dituzu
mundu honetara etorri diren gizon-emakume guztiak;
argitu gure bihotza zeure graziaren distiraz,
Zuri atsegin zaizuna erabil dezagun beti gogoan
eta Zu benetan maita zaitzagun.**

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ℟. Amen.

Herriaren gaineko otoitza eta bedeinkapena

Jauna zuekin. ✠. Eta zure espirituarekin.

Makur zaitezte, Jaunaren bedeinkapena hartzeko.

(Eskuak herriaren gain zabalik bedeinkapena esango du:)

**Zaindu itzazu, Jauna, zure laguntza eske dituzunok,
indartu ahulak eta argitu beti zeure argiaz
herio-ilunpean dabiltzanak,**

**gaitz guztietatik bihotz onez aterata,
ondasun gorenak eskura ditzaten.**

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ✠. Amen.

Bedeinka zaitzatela Jainko ahalguztidunak:

Aitak, eta Semeak, ✠ eta Espiritu Santuak. ✠. Amen.

Zoazte Jaunaren bakean. ✠. Eskerrak Jainkoari.

Herriaren gaineko otoitzaren ordezt, erabil daiteke Bedeinkapen Nagusia (Ikus Liburuxka honetan 24. or.).

Apirilaren 6an **GARIZUMAKO V. IGANDEA**

Agurra

Bihotz-berritzera dei egiten digun Jesu Kristoren grazia eta maitasuna zuekin.

Sarrerako oharpena

Garizumako azken igandea dugu gaurkoa, datorren igandean hasiko baitugu, Erramuekin, gure fedearen **ASTE NAGUSIA**. Jesus, Jerusalemera gerturatzen ari da eta berarekin darama Eliza osoa, historiaren une erabakigarria: Bera da historiaren Jauna eta pazko misteriora gerturatzen ari da, bidean salbamena ereinez.

Goazen gu ere Jesusekin. Elkar onartuz, inor gaitzetsi gabe, denean maitasuna eta bihotz ona agertuz.

Damu-otoitza

Gure fedearen misterioa ospatzera bildu gara. Eska dezagun lehenik barkamena eta onar dezagun Jainkoaren erruki berritzailea.

- Jesus Jauna, gure sufrimenduetan samintzen **za**ren Senidea: erruki, Jauna.
- Jesus Jauna, gu biziaraziz goretsia **za****ren** Jainko-Semea: Kristo, erruki.
- Jesus Jauna, gu heriotzatik ateratzen gaituzun Piztu**er**a eta Bizia: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

Otoitza

**Jainko gure Jauna, zure Semeak
bere bizia emateraino maite izan zuen mundua;
egizu, guk ere maitasun bera izan dezagula beti.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. *Rx.* Amen.**

Hitzaren liturgiari oharpena

Harriak neurrigabe botatzeko gai gara besteren hutsegiteen gainera. Jainkoaren Hitzak gure bihotzaren erdian barkamenaren “lehen-harria” jartzen du, Erreinua eraikitzeko gai izan gaitezen.

Lehenengo irakurgaia (Is 43, 16-21)

Isaias Profetaren liburutik

Honela mintzo da Jauna:

Jaunak bidea zabaldu zuen itsasoan, bidexka ur oldartsuetan;
gurdi eta zaldi, gudaroste ahaltsua atera zuen gudura;
hara, erori dira etsaiak, berriro ez jaikitzeke,
itzali dira, bukatu, kandela-metxa bezala.

«Ez oroitu iraganean gertatuez, ez gogoratu antzinakoez.
Begira, dena berri egitera noa:
hasia da sortzen, ez al diozue antzematen?
Bidea irekiko dut basamortuan, ibaiak landa lehorrean.
Basapiztiak, txakal eta ostrukek goretsiko naute,
ura emango baitut basamortuan,
ibaiak sorraraziko landa lehorrean,
neure herriari, neure aukeratuari, edaten emateko.
Eta neuretzat eratu dudan herriak
nire gorespena iragarriko du».

Erantzun-salmoa (*Sal* 126 [125], 1-2b. 2c-3. 4-5. 6)

- ℣. Jaunak Sionen zoria aldatu zuenean,
ametsetan bezala geunden.
Barrez bete zitzaigun orduan ahoa,
poz-oihuz mingaina. ℟.
- ℣. Jentil-herrietan ere esan zuten:
«Handikiro jokatu du Jaunak haien alde».
Handikiro jokatu du Jaunak gure alde,
eta pozarren gaude! ℟.
- ℣. Aldatu, Jauna, gure zoria,
euri-jasek basamortua bezala.
Malkoz erein zutenek
pozez biltzen dute. ℟.
- ℣. Negarrez joan ziren,
hazi-zorroa eramanez;
poz-oihuka datoz,
gari-balak ekarriz. ℟.

Bigarren irakurgaia (*F/p* 3, 8-14)

San Paulo Apostoluak Filipoarrei egindako gutunetik

Senideok: Nire ustez, ez du ezerk deus ere balio Kristo Jesus nire Jauna ezagutzearen neurrigabeko ondasunaren aldean. Kristogatik dena galdu nuen eta dena zaborraren pareko jotzen dut, hura irabaztearren eta harekin bat eginda bizitzearren. Ez naiz neurez salbatzen, legea betetzeagatik alegia, Kristogan sinesteagatik baizik, Jainkoak sinemenaren bidez salbatzen nauelako alegia. Kristo ezagutu nahi dut, haren piztueraren indarra neuregan sumatu eta haren nekeetan partaide izan nahi dut, haren antzeko bihurtu heriotzan, horrela hildakoen piztueran ere parte izango dudana itxaropenez.

Ez dut esan nahi hori lortu dudanik edota helmugara iritsi naizenik; baina lehian jarraitzen dut ea eskuratzen dudana, Kristo Jesusek ni neu eskuratu ninduen bezala. Senideok, ez dut uste dagoeneko eskuratua dudanik; baina, atzean gelditu denaz ahazturik, aurrera jotzen dut eta helbururantz lehiatzen naiz, saria iristeko; horretara deitzen baitit Jainkoak goitik, Kristo Jesusen bitartez.

Ebanjelio-aurreko gorapena (Ik. // 2, 12-13)



✠. Hau dio Jaunak:
Itzul zaitezte Nigana bihotz-bihotzez,
bihozbera eta errukitsua bainaiz. ✠.

Ebanjelioa (Jn 8, 1-11)

Homiliarako argibideak

0. Maitasunaren azterketa

Garizuma amaitzen ari zaigu eta gaurko ebanjelioan errukiaren harian jarraitzen du. Nola jokatzeko du Jesusek, nolakoa izango litzateke gure errukia?

Gaurko atala azken arteketan sartuko da. Beraz, abisatuak gaude. San Joan Gurutzekoak garden asko esan zigun: “bizitzaren ilunabarrean maitasunaren azterketa egingo digute”.

Gaurko ebanjelioak gure maitasunaren azterketa egiten digu eta gure karitatea oinarritik neurtzen digu.

Gaurko ebanjelioaren pasartea tenpluan gertatzen da. Tenplua lepo bete zegoen eta hantxe adulterioan harrapatutako emakume bat ekarri zioten. Lege-maisuak eta fariseuak dira tiraka ekartzen dutena. Israelen, adulterioa delitu publikotzat eta Jainkoak agindutakoaren aurkako faltatzat hartua zen. Legeak heriotzarekin zigortzen zuen.

Bitxia da Legearen interpretazioa erabat matxista zela, gizonaren bekatua lausotua geratzen zelako eta, zenbaitetan bezala, emakumearen gainean erortzen zen karga-proba.

1. Epaia

Halako egoeraren aurrean lege-maisuak bizkortasun handiz egin dute euren epaia: heriotza.

Ebanjelioak behin eta berriz antzeko egoerak agertzen dizkigu: besteei epaietan oso zorrotzak gara eta geure buruarekin, berriz, samurragoak. Era berean, Jesusen garaiko erlijio sistemak eta zenbaitetan ere oraingoak ere, ez du inongo gupidarik adierazten eta Jesusen jokabide errukitsuaren aurkako tokian jartzen da.

Epaia da indar hartzen duena. Bizkor hartu behar dira erabakiak eta traban dagoen, geure ezkutuko lotsak bistan uzten dituenaren paretik kendu behar da, hil edo, hobe esanda, erail. Erlijioaren izenean.

Halako zuzengabekeriaren aurrean Jainkoak hitza hartzen du Jesusen ahotan. Ez ditu Jesusek hitz asko behar izan moralki zorrotzak direnak, ustezko erlijioaren kunpliztaileak lotsatan uzteko. Epaia bertan behera eroriko da.

2. Harrika

Jendeak eskuartean harrikatzeko harria prest zeukan bitartean Jesus, makurtuta atzamarrez lurrian idazten omen zuen. Jakin nahi nuke zer idazten ote zuen...

Eta zutik jarrita esaldi motz bezain irmoa bota zuen: “Zuetan bekaturik gabe dagoenak bota diezaiola lehenengo harria”. Muturreko halako egoera haren aurrean Jesusek konponbidea jarri du: emakumeari bizitza salbatu du eta salatzaileak etxera bidali ditu lotsatuta.

Jesusek emakumearekiko adierazten duen errukia bera eskatzen zaigu guri gaur. Eta errukia bizitzako moralaren iparrorratz bada, ez genuke hain erraz epaituko lagun-hurkoa, besteekin errukitsuak izango ginateke eta geure buruarekin zorrotzagoak, zintzoagoak. Denok gara bekatarik eta inor ez da nor harria hartu eta bestea salatzeke.

Beti, beti, lagun hurkoarekin Jainkoak nirekin duen errukiaz jokatzeko prest egon behar dut. Bestela, lege-maisu haien antzeko bihurtuko naiz.

Jesusek hondarretan egindako marratxo haiek ezusteko eragina izan zuten talde moralista eta salatzailea hartan. Emakumeak, berriz,


bizitza salbatu eta aske sentitu zen, ziurrenik, bere biziaren norabidea zuzentzeko Jesusek adierazitako errukiari esker.

Gu ere izan gaitezela errukitsuak Jainkoa gurekin errukitsua den bezala!

Jainkoaren herriaren otoitza

Egigun otoitz, senide maiteok, eta eska dezagun Jaunaren errukia, bere herriarekiko onginahiz beterik gure eskariak entzun ditzan:

Erantzuna: Kyrie, eleison!



—Bere herria biziartzeko bere burua heriotzara eman zuen munduaren Salbatzaileak, Eliza gaitz guztitik libra dezan. Egigun otoitz. *℟*.

—Gurutziltzatu zutenen alde gurutzean otoitz egin zuen munduaren Salbatzaileak, bekatarien alde Aitaren aurrean bitarteko egin dezan. Egigun otoitz. *℟*.

—Gurutzean sufrimendua eta ezina pairatu zituen munduaren Salbatzaileak, sufritzen duten guztiekin erruki izanez indarra eta laguntza eman diezaien bere minetan. Egigun otoitz. *℟*.

—Egun hauetan Bere Gurutze-bidea gurtu eta oroitzeko prestatzen garenok, munduaren Salbatzaileak bere piztueraren garrez indaberri gaitzan. Egigun otoitz. *℟*.

Kristogan mundua berritu nahi duzun Aita, ikus gure ezinak eta Zure Semea mundua salbatzera bidali zenuenez, eta ez kondenatzera, entzun gure otoitzak eta sorrarazi gure bihotzetan bizi-gogoa eta alaitasuna. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *℟*. Amen.

Oparigaien gaineko otoitza

**Entzun iezaguzu, Jainko ahalguztiduna, eta egizu,
sakrifizio honek garbi gaitzala
kristau-sinesmenaz argitu gaituzunok.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. R̃. Amen.**

Prefazioa

Garizumako I. edota II. prefazioak erabil daitezke (Meza liburua 478-480 orr.).

Jaunartze-ondorengo otoitza

**Jainko ahalguztiduna, egizu,
orain Kristoren Gorputz Odolekin bat egin dugunez gero,
haren gorputzeko atal izan gaitzela beti.
Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. R̃. Amen.**

Herriaren gaineko otoitza eta bedeinkapena

**Jauna zuekin. R̃. Eta zure espirituarekin.
Makur zaitezte, Jaunaren bedeinkapena hartzeko.**

(Eskuak herriaren gain zabalik bedeinkapena esango du:)

**Bedeinka ezazu, Jauna,
zure errukia itxaro duen zeure herria,
eta emaiozu bihotz zabalez Zuk argiturik eskatzen duena.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. R̃. Amen.**

**Bedeinka zaitzatela Jainko ahalguztidunak:
Aitak, eta Semeak, ✠ eta Espiritu Santuak. R̃. Amen.**

Zoazte Jaunaren bakean. R̃. Eskerrak Jainkoari.

Herriaren gaineko otoitzaren ordezt, erabil daiteke Bedeinkapen Nagusia (Ikus Liburuxka honetan 24. or.).

Apirilaren 13an
JAUNAREN NEKALDIKO ERRAMU IGANDEA

Agurra

Aitaren eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean. ✠. Amen.

Jauna zuekin. ✠. Eta zure espirituarekin.

Sarrerako oharpena (*Batzarburuak berak*)

Senide maiteok: Garizumako aldi honetan bihotza prestatzen aritu gara penitentziaz eta maitasun-egintzez. Hurbil dugu Pazko-jaia. Jaunaren pazko-misterioari, hau da, haren nekaldiaren eta piztueraren misterioari, Eliza osoarekin bat eginik hasiera emateko ospakizuna egitera bildu gara gaur. Misterio hori betetzeko sartu zen Jauna Jerusalemgo hiri santuan. Ospa dezagun, beraz, fedez eta maitasunez, gu salbatzeko egin zuen sarrera horren oroitzapena, eta jarrai diezaiogun geure Jaunari, grazia lagun dugula haren gurutzean bat eginda, haren piztueran eta bizian ere bat egin dezagun.

Bedeinkapen otoitza

Ondoren eskuak bildurik otoitz hauetako bat egingo du.

**Jainko ahalguztidun betierekoa,
bedeinka itzazu ✠ erramu-adar hauek;
eta egizu, Kristo Erregeari
goraka eta kantari jarraitzen diogunok,
haren bidez betiko Jerusalemara heldu gaitzela.
Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. ✠. Amen.**

Edota:

**Oi Jainko, indar ezazu Zugar uste on dutenen fedea
eta entzun bihotz onez gure otoitzak:
gaur Kristo garailea erramu-adarrekin goraiatzan dugunok,
berarekin bat eginik, egintza onen fruituak eman ditzagun.
Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. *℟*. Amen.**

Ondoren (intsentsua erabiltzen bada liburua lurrinduz) Ebanjelioa hots egingo du.

Ebanjelioa

✠ Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik (19, 28-40)

Aldi hartan, Jesusek Jerusalemgo bidean gora jarraitu zuen denen aurretik. Oliamendi ondoko Betfage eta Betania herrixketara hurbildu zenean, ikasleetako bi bidali zituen, esanez: «Zoazte aurreko herrixka horretara; sartzean, astakume bat aurkituko duzue lotua, gainean inoiz inor jarri ez zaiona; askatu eta ekarri. Eta norbaitek zergatik askatzen duzuen galdetuko balizue, erantzun: “Jaunak behar du”».

Joan ziren, bada, bidalitakoak, eta Jesusek esan bezala aurkitu zuten. Astakumea askatzen ari zirela, jabeek esan zieten: «Zer ari zarete astakumea askatzen?» Eta haiek erantzun: «Jaunak behar du».

Jesusi ekarri zioten eta, beren jantziak astakumeari bizkarrean ezarririk, gainean eserarazi zuten. Aurrera egin ahala, bere jantziak zabaltzen zizkion jendeak bidean. Oliamenditik behera hartzera zihoala, ikasle-talde handia, pozez beterik, Jainkoa ozenki goستن hasi zen, ikusi zituzten mirari guztiengatik: «Bedeinkatua Jaunaren izenean datorren erregea! Bakea zeruan eta aintza zeru-goienetan!»

Jende arteko fariseu batzuek esan zioten Jesusi: «Maisu, egiezu errieta ikasleei!» Hark erantzun zien: «Hona zer diotsuedan: hauek isilduko balira, harriek egingo lukete deiadar».

Prozesioa

Ohargileak prozesiorako gonbidapena egin dezake hitz hauekin:

Erramu-adarrak eskuetan ditugula, Jesus goretsi zuen jendearen antzera, lagun diezaigun guk ere Jaunari, pozez kantari.

Damu-otoitza

Prozesiorik eta Sarrera Nagusirik egin ez denean bakarrik. Herria agurtu eta Damu-otoitza egingo da, eta ondoren kolekta-otoitza.

«Pazko festaburua baino sei egun lehenago, Jauna Jerusalemen sartzean, bidera atera zitzaizkion haurtxoak, palmadarrak eskuetan zituztela eta pozez oihuka: Hosanna zeru goienetan! Bedeinkatua Zu, erruki handiz gugana zatozen Hori!».

Jo dezagun guk ere Jaunarengana, eta eska diezaigun Bere errukiz berri gaitzala Aste Santuaren hasiera honetan.

- Jesus Jauna, bekaturik izan ez arren geure bekatuen zama **hartu** zenuena: erruki, Jauna.
- Jesus Jauna, gure bekatuen barkamenarako gurutzean odola **isuri** zenuena: Kristo, erruki.
- Jesus Jauna, hilenartetik piztuz heriotza **garaitu** zenuena: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira. ℟. Amen.

Otoitza

Aldarera iritsi eta agurtu ondoren, jarlekura joango da eta otoitza esango du:

**Jainko ahalguztidun betierekoa,
gizon-emakume guztiei apaltasun-bidea erakusteko,
gure Salbatzailea, giza haragia harturik,
gurutzean hiltzea nahi izan zenuen;
egizu, arren, har ditzagula gogoan
haren nekaldiko irakaspenak,
haren piztueran parte izan dezagun.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. *℟*. Amen.**

Hitzaren liturgiari oharpena

Bizia ematen dakien Jainkoaren irakaspenak gure itxaropena arnasberritzen du. Beheratzen dakiena gertatuko da gizadiaren altxagarri eta heriotzatik piztuerara igarotzeko bide. Bera hitzak sendotzen gaitu.

Lehenengo irakurgaia (Is 50, 4-7)

Isaias profetaren liburutik

Jainko Jaunak hitz egiteko trebatu nau,
bihotz-eroriei adore-hitza esateko.

Goizero dit belarria ernearazten,
ikasle onak bezala entzun dezadan.
Jainko Jaunak belarria ireki dit,
eta nik ez diot aurka egin, ez atzera jo.

Bizkarra eskaini nien jotzen nindutenei,
masailak, bizarretik tiraka ari zitzaizkidanei.
Ez nien aurpegia saihestu irainei eta listuei.

Jauna dut laguntzaile;
 horregatik, ez naiz kikildu;
 horregatik gogortu dut aurpegia, harkaitza bezala,
 bai baitakit ez naizela lotsagarri gertatuko.

Erantzun-salmoa (Sal 22 [21] 8-9. 17-18a. 19-20. 23-24)



Ni - re Jain-ko - a, nun zau - de Zu? No -la es-ku-



tik u - tzi nau - zu.



- ✠ Ikusten nautenek burla egiten didate,
 ezpainak okertuz, buruari eraginez:
 «Jaunagana jo du, libra dezala!
 Salba dezala, hainbeste maite te badu». ✠
- ✠ Zakur-taldeak nau inguratzen,
 gaizkile-multzoak erdian hartzen.
 Esku-oinak zulatu dizkidate,
 hezur guztiak zenbatu ditzaket. ✠
- ✠ Nire jantziak banatzen dituzte,
 nire soinekoa zotz egiten.
 Baina Zu, Jauna, ez egon urrun!
 Ene indar, zatoz laster ni laguntzera. ✠
- ✠ Iragarriko diet zure izena neure senideei, '
 goretsiko zaitut batzarraren erdian.
 Goretsazue Jauna, begirune diozuenok;
 ospa ezazue, Jakoben ondorengo guztiok,
 izan haren beldur, Israelen seme-alabok. ✠

Bigarren irakurgaia (*Flp 2, 6-11*)

San Paulo Apostoluak Filipoarrei egindako gutunetik

Kristo Jesusek, Jainkoaren izaera bereko izanik,
ez zion gogor eutsi Jainkozko bere mailari;
bestela baizik, zegokion aintza utzi
eta esklabo-izaera hartu zuen, gizakien antzeko eginez.
Eta gizaki bezala agertuz, apaldu egin zuen bere burua,
menpeko eginez heriotzaraino, gurutzean hiltzeraino.

Horregatik, denen gainera goratu zuen Jainkoak
eta izen guztietan bikainena eman zion,
Jesusen izenaren omenez denen belaunak makur daitezen,
zeruan, lurrean eta lurpean,
eta mingain guztiek aitortzen dezaten Jesu Kristo dela Jauna,
Jainko Aitaren aintzarako.

Ebanjelio-aurreko gorapena (Ik. *Flp 2, 8-9*)

Je - su-kris- to gu - ri min-tza, ar - gi gu-re bi-ho- tza.

- ✠. Kristo gugatik menpeko egin zen heriottzaraino,
gurutzeko heriotzaraino.
Horregatik Jainkoak goratu **egin** zuen,
eta izen guztien gaineko izena **eman** zion. ✠.

Ebanjelioa (*Mk 14, 1 – 15, 47 edota, laburrago Mk 15, 1-39*)

Homiliarako argibideak

0. Jerusalemgo bidean gora

Gogoan izango duzue Mendi Santuan Jesusen Antzaldatzearen aurrean ikasleek zuten esperantza. Bai ederki zeudela hantxe!

Gaurko ebanjelioak Tabor menditik jaitsi eta Jerusalemgo igoera erakusten digu. Handik jaitsi eta hona igo, jakinda hangoak arrakasta izan zezakeela eta hemengoak ezer onik ez diola ekarriko. Baina, Jesusen bidai honetan, itxuraz gaur hain eder irudikatzen dugun Jerusalemgo sarrera eder honetan ez da inongo dotoreziarik, lau egun barru Jesus saldua izango delako.

Jesusen ibilbide guztia gaur hasten dugun Aste Santuaren egunotan laburbilduko da. Egun hauetan kontatu, entzun eta hausnartuko duguna Jesusen Heriotzaren eta Biztueraren misterio handiena da.

Egun gutxi barru Jesusi egingo dioten iruzurrezko judizioan Pilatosi haxe esango dio: “horretarakoxe jaio eta etorri naiz mundura”. Mundura bakearen, zuzenbidearen eta maitasunaren Erreinua ekartzeko.

Eta Jainkoak, beti bezala, emango du lehen pausoa gure alde, gu salbatzeko.

1. Sarrera apala

Gaurko liturgian bi ebanjelio iragarri ditugu. San Lukasen liburutik egindako Jesusen sarrera Jerusalem eta bere Nekaldiaren kontaketa.

Biak aurkakoak dirudite. Lehenengoan arrakastak agintzen du. Baina, jabetu gaitezen Jesus astakume batean sartu zela, hori dela Jainkoak gureganatzeko aukeratu duen sarrera apala, xumea.

Espero zuten Jainkoa ahaltsua asto baten gainean sartu da Hiri Santuan eta Oliamenditik behera egiten duela bidea ikasle-talde handiarekin batera. Egun gutxi barru, Oliamendi bertan sentituko du Jesusek izua eta bakardadea.

Gaurko festa gure izate kontraesankorraren argazkia da. Batetik ongi etorri zaratatsua eta, bestetik, saldukeria. Gizakion estampa tristea, Jaunaren maitasunaren leialtasuna.

2. Ezin isildu

Jerusalemen Pazkoa ospatzera doaz eta Jesusen sarrera zalapartatsuak hiria, hiri santua hankaz gora jarriko du. Juduen pazkoa inork eta ezerk zapuztu ez dezan, eliz-agintariak bizkor ibili beharko dute Jesusen aurkako karguak prestatzen. Halako pertsonaiak euren ospakizunen distira izorratu dezake.

Baina, Jesusek hartutako bideak ez du atzera bueltarik. Jainkoaren Erreinuko ereileak bere bizia emango du gure alde eta fariseuek isilarazi nahi arrear, “harriek egingo lukete deiadar”. “Haren maitasuna betikoa baita”.

Jainkoaren herriaren otoitza

Senideok: gurutzean Aitari otoitz egin zion Jesus Salbatzaileari eska diezaiozun gure alde eta gizaki guztien alde:

Erantzuna: Kyrie, eleison!



Ky-ri-e, Ky-ri-e, e - lei-son! Ky-ri-e, Ky-ri-e, e - lei - son!

—Gurutzean bere erasotzaileen alde otoitz egin zuen Jaunak, izan dezala erruki bekatu egin dutenentzat, eta adiskidetzearen bidetik eman diezaiela barkamena eta bakea. Egigun otoitz.

- Jesusen eskaintza izan dadila lagungarri ezjakintasunak, gogorik-
-ezak, gaiztakeriak edota tentaldi orok Jainkoagandik urrundu
dituenentzat. Egigun otoitz.
- Gurutzean bakardaderen tristura eta garraztasuna nozitu zituen
Jaunak izan dezala errukia gaixoeekin, atsekabetuekin eta
zapalduekin, eta gure bihotzak ere horiei begira jar ditzan. Egigun
otoitz.
- Lapur ona paradisuan hartu zuen Jaunak, eman diezagula guri ere
bihotz-berritzeko gogoia eta har gaitzala egun batean bere
bakezko erreinuan. Egigun otoitz.
- Garizumako bidean aurrera eginez bihotz-berrituak eta argituak
iris gaitezen gertu ditugun Pazko jaietara. Egigun otoitz. *℟.*

Jaingo ahalguztidun betierekoa, zeure Semea mundura bidali
zenuen, bere nekaldiaz bekatua eta heriotza suntsitu eta bere
piztueraz bizitza eta zoriontasuna guri eskuratzeko; entzun zeure
herri honen otoitzak, eta egizu goza ditzagula Jesu Kristoren gurutze
aintzatsuaren fruituak. Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. *℟.*
Amen.

Oparigaien gaineko otoitza

**Jauna, zure Semearen nekaldiari esker
betorkigu laster zure barkamena;
eta, zure bihotz onberaz,
emaguzu, haren sakrifizio bakarrari esker, zeure errukia,
geure egintzengatik merezi ez badugu ere
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *℟.* Amen.**

Prefazioa

Erramu igandekoa, Meza-liburuan 219. or.

Jaunartze-ondorengo otoitza

**Zure misterio santuaz indarberriturik otoizka gaituzu, Jauna:
zure Semearen heriotzari esker,
sinesten dugun bizi betea itxarotea eman diguzun bezala,
emaguzu, haren piztueraz, bizi hori eskuratzea.
Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. *℟*. Amen.**

Bukaerako oharra

Bagoaz Jesusen eskutik. Aukera ugari izango dugu aste honetan Kristoren heriotza eta piztuera gertaberritzeko. Ahalegin berezia egin behar genuke guztiok larunbat santu gauean Kristoren Piztuera ospatzera biltzeko. Hori da, dudarik gabe, urteko elizkizun nagusia.

Herriaren gaineko otoitza eta bedeinkapena

Jauna zuekin. *℟*. Eta zure espirituarekin.

Makur zaitezte, Jaunaren bedeinkapena hartzeko.

(Eskuak herriaren gain zabalik bedeinkapena esango du:)

**Begira, Jauna, zeure familia honi,
honengatik nahi izan baitzuen Jesu Kristo gure Jaunak
bere bizia gaizkileen eskuetan utzi
eta gurutzeko heriotza hartu.
Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. *℟*. Amen.**

**Bedeinka zaitzatela Jainko ahalguztidunak:
Aitak, eta Semeak,  eta Espiritu Santuak. *℟*. Amen.**

Zoazte Jaunaren bakean. *℟*. Eskerrak Jainkoari.

Edota:

Bedeinkapen Nagusia

Jauna zuekin. . Eta zure espirituarekin.

Makur zaitezte, Jaunaren bedeinkapena hartzeko.

(Eskuak herriaren gain zabalik bedeinkapena esango du:)

**Errukiaren Aitak maitasunaren ikasbidea eman dizue
bere Semearen nekaldian;**

**egin zaitzatela Jainkoaren eta gizakien zerbitzari
eta eman diezazuela**

bere bedeinkapenaren dohain miragarria. . Amen.

Kristoren heriotzak

**betiko heriotzatik atera zaituztenez gero,
eman diezazuela betiko bizia ere.** . Amen.

Kristori maitasun-bidean jarraituz,

izan zaitezela haren lagun piztueran ere. . Amen.

Bedeinka zaitzatela Jainko ahalguztidunak:

Aitak, eta Semeak,  eta Espiritu Santuak. . Amen.

Apirilaren 17an
JAUNAREN AFARIKO OSTEGUN SANTUA

Agurra

Jaungoiko gure Aitaren eta Jesu Kristo gure Jaunaren grazia eta bakea zuekin.

Sarrerako oharpena

Jesusen Azken Afaria, Bere bizitzaren ondorio da: bizitzan egindako zerbitzua eta eskaintza bildu zitueneko eguna. Gurutzean egingo zuena ezaugarri bidez –ogiaren eta ardoaren bidez– agerian jarri zituen. Piztueraren bidez gertatuko zena aurreratu zuen.

Arratsalde honetan, gu, Jesusen ikasle eta jarraitzaileok, berak buru den mahaiaren inguruan biltzen gara Apostoluak gau hartan bezala. Han egin eta esan zuena, Jesusek berak, hemen esan eta egingo du, gure artean, egia eta maitasun berberaz.

Poztu gaitezen Gurutzeko eskaintzaz, Gurutzetik datorkigu osasuna, Gurutzetik gure piztuera eta bizia, Gurutzetik salbamena eta askatasuna.

Damu-otoitza

Senideok: aitor ditzagun gure bekatuak, misterio santuak ospatzeko gai izan gaitezen.

—Jesus Jauna, zurekin parte izan zezaten ikasleei oinak garbitu zenizkiena: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, betiko bizi gaitezen zerutik jaitsitako biziaren ogia zarena: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, zure odolaz itun berri eta betikoa eratu duzuna:
Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik,
eraman gaitzala betiko bizira. *℟*. Amen.

Aintza (*bitartean jo daitezke kanpaiak eta txilinak*)

Otoitza

**Oi Jainko, zure Seme bakarrak
bere burua heriotzara eman aurretik
betiko Itunaren sakrifizio berria utzi zion Elizari;
haren maitasun-agiri den Afari santua ospatzera
bildu gaituzu arratsalde honetan;
egizu, misterio handi hau ospatzeak
bete gaitzala maitasunez eta bizi berriz.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. *℟*. Amen.**

Hitzaren liturgiari oharpena

Gaurko Meza honetan, oso garbi ikusten dugu Meza guztietan gertatzen dena: entzuten dugun Hitza bete egiten dela ospakizunean bertan, gudan. Gaur herri askatua gu gara, gaur Kristok guretzat ematen du Bere burua, gaur Kristo gure zerbitzari egiten da guk ere gure burua eskaintzen eta guztien zerbitzari izaten ikas dezagun.

Lehenengo irakurgaia (*Ir 12, 1-8. 11-14*)

Irteera liburutik

Egun haietan, honela mintzatu zitzaien Jauna Moisesi eta Aaroni Egipton: «Hilabete hau izango duzue hilabete nagusia, urte guztiko lehenengoa. Esaiozue israeldarren elkarte osoari: “Hil honen hamarrean, bakoitzak abere xehe bat hartuko du, familia eta etxe bakoitzeko bana. Abere osoa jateko familia aski ez bada, aldameneko bizilagunekin elkartuko da, bakoitzak jan dezakeenaren arabera zenbat lagun behar den kontuan harturik. Aberea akatsik gabea izango da, arra, urtekoa, arkume nahiz antxume. Hilaren hamalaua arte gordeko duzue, eta egun horretan, ilunabarrean, israeldar elkarteko guztiek hilko dute. Gero, odola hartu eta jango duzuen etxeko atearen bi zutoinak eta ateburua odoleztatuko dituzue. Gau horretan, sutan errea jango duzue haragia, legamiagabeko ogiz eta belar mingotsez lagundurik.

Honela jango duzue: gerria loturik, oinetakoak jantzirik eta makila eskuan, abiatzeko prest; presaka jango duzue, Jaunaren Pazkoa baita, hau da, Jaunaren igarotzea. Gau horretan Egipto osoan zehar igaroko naiz, eta hil egingo ditut Egiptoko lehen-ume guztiak, bai gizakienak eta bai abereenak, eta neure epaia emango diet Egiptoko jainkoei. Ala Ni Jauna! Odola izango duzue ezaugarri zuek zaudeten etxeetan. Odola ikustean, aurrera igaroko naiz; horrela, Nik egiptoarrak jotzean, izurriak ez zaituzte suntsituko.

Egun hau gogoangarri izango duzue eta jai nagusiz ospatuko duzue Jaunaren ohoretan. Jai honen ospakizuna betiko lege izango duzue belaunez belaurik».

Erantzun-salmoa (*Sal* 116 [115], 12-13. 15 eta 16bc. 17-18)

- ✠. Nola ordainduko diot **Jaunari**
egin didan on **guztia**?
Salbamen-edontzia dut al**txa**tuko
eta Jaunaren izenari dei **egingo**. ✠.
- ✠. Mingarri zaio **Jaunari**
bere fededunen her**ri**otza.
Zure zerbitzari ezereza **naiz**, Jauna,
askatu dituzu nire **kateak**. ✠.
- ✠. Gorespen-oparia dizut es**kai**niko
eta Jaunaren izenari dei **egingo**.
Beteko dizkiot Jaunari **promesak**,
herri guztiaren **aur**rean. ✠.

Bigarren irakurgaia (*1 Ko* 11, 23-26)

San Paulo Apostoluak Korintoarrei egindako lehenengo gutunetik

Senideok: Jaunagandik hartu nuen nik, neure aldetik zuei eman dizuedan hau: Jesus Jaunak, saldu zuten gauean, ogia hartu eta, esker onezko otoitza eginez, zatitu zuela eta esan: «Hau nire Gorputza da, zuentzat emana. Egizue hau nire oroigarri».

Afalondoan gauza bera egin zuen kalizarekin, esanez: «Kaliza hau itun berria da, nire Odolaz sinatua; egizue hau, edaten duzuen bakoitzean, nire oroigarri».

Beraz, ogi honetatik jaten eta kaliza honetatik edaten duzuen bakoitzean, Jaunaren heriotza iragartzen duzue, hura etorri arte. Era berean, kalizarekin ere afal ondoan, hitz hauek esanez: «Kaliza hau itun berria da nire odoletan; egizue hau, edaten duzuen bakoitzean, nire oroigarri».

Ebanjelio-aurreko gorapena (lk. *Jn* 13, 34)



✠. Agindu berria ematen dizuet, dio Jaunak:
maita dezazuela elkar,
Nik maite izan zaituztedan bezala. ✠.

Ebanjelioa (*Jn* 13, 1-15)

Homiliarako argibideak

0. Keinu profetikoa

Pazkoa juduen herriaren festa handia da, Egiptoko morrontzatik irten zireneko oroimena da. Festa hau ospatzeko bildu da Jesus bere ikasleekin.

Jesusek badaki, sumatzen du bere leialtasunezko jokabide eta hitzek bere “orduaren” aurrean jarri dutela. Afari hura, topaketa hura

Jesusen maitasunaren oroigarri bihurtuko da, Aitarengana igarotzeko garaia izango da.

Afarian zeudela keinu profetiko bat egingo du eta hau Joan ebanjelariak bakarrik kontatzen digu. Hauxe irakurri dugu gaurko ebanjelioan. Jesus mahaitik jaiki eta ikasleei oinak garbitzen hasi zitzaien.

Keinu hori harrera eta zerbitzuaren ezaugarria zen, gizarte-nagusitasuna aitortzen zien pertsonaei egiten zitzaien. Jesusek giza logika honi buelta ematen dio eta berak jartzen du bere burua adibide gisa. Berak egiten duena guk ere egin behar dugu.

Halako iraulia da Jesusek egin duena Pedrok bere kexua agertzen duela. Baina, hain da garrantzitsua Jesusen keinua ez dela aukera bat gehiago, Jesusen ibilbidearen laburpena eta bere izaeraren muina bihurtzen dela.

Ez da, beraz, aukera bat. Jainkoaren maitasunaren seinale ukaezina.

1. Afaltzen ari zirela

Afari honen oroimena mahai hartako ikasleen bihotzetan geratu zen. Pentsa, bi mila urte ondoren, hementxe gaude Jaunaren Afaria ospatzen, keinu hori berritzen, Bera gure artean dagoela oroitzen.

Afariaren inguruan eskaintzen du Jesusek bere maitasun itunaren oroigarria. Horrexegatik biltzen gara gu Jaunaren mahaiaren inguruan Jesusek agindutako keinu profetiko hori oroitu, berritu eta errepikatzeko. Eskuzapia hartu, gerrian lotu eta ikasleen artean oinak garbitu.

Eukaristia eta oinak garbitzearen keinua biak eskutik doaz ezinbestean, Jesusek eragindako sakramentuaren ondoren eta hau maitasun agindu bihurtzen da Jesusen jarraitzaileontzat.

Gaur elkarren arteko maitasunaren utopiaren oroigarria da, Ostegun Santua. Halako egunez Jesusek emandako agindua betetzen saiatu nahi dugulako, bere oroigarri iraultzaileak gure bihotzetan oraindik halako zirrara sortzen duelako, guk ere elkarri oinak garbitu behar ditugulako.

2. Ulertzen al dugu?

Jesusen galdera eukaristia amaitzean zintzilik geratzen da: “Ulertzen al duzu egin dizuedana?”. Esan, bai, esaten dugu Jauna maite dugula eta berak egindako keinuari jarraipena emango diogula. Baina, elkarren arteko maitasuna ez da erraza, helburu malkartsua da.

Jaunak bere gorputza eta odola utzi digu bideko janari, Ostegun honetako oroigarria betirako geratu da azken bi mila urteotan. Gaur, berriro, Jaunaren mahaiaren bueltan jarri gara bere Hitza entzun eta bere mahaitik jateko.

Honek aurrera bultzatzen gaitu, maitasunaren agindua egunerokoan martxan jartzeko. Eta hau egiten dugun bakoitzean “Jaunaren heriotza iragartzen dugu, hura etorri arte”, esan digun Paulok.

Jauna etorri artean aurki gaitzala maitasunean leial, gizatasunean zintzo eta bere oroigarriaren aldarria ez dezagula moteldu.

Jauna gurekin dago. Jan dezagun beretik eta berak egindakoaren jarraitzaile izan gaitezela.

Homiliaren ondoren, ikuspegi pastoraletik egoki bada, oinak garbitzea egingo da. Horretarako Jainkoaren herriaren artetik aukeratuak izan direnak aurrez ipinirik dauden jarlekuetara eramango dituzte laguntzaileek. Gero, apaiza (hala behar izanez gero, kasuila utzirik) bakoitzarengana hurreratuko da, eta laguntzaileek oinak urez bustitzen eta lehortzen lagunduko diote. Bitartean kantu egokiren batzuk abestuko dira.

Oinak garbitzeari oharpena

Jesusek bere ikasleekin egin zuena, orain, elkarteko buru den apaizak egingo du. Gure Maisu eta Jaunak esana da: “Nik oinak garbitu dizkizuet, zuek ere elkarri oinak garbitu behar dizkiozue”. Hau da, denok elkarrekin zerbitzalagoak izan behar dugu.

Jainkoaren herriaren otoitza

Senideok: dei egiogun Kristori, Jainkoaren Gantzutuari, bere eskuetan utzi baitu Aitak guztia, eta eska diezaiogun entzun ditzala gure otoitzak:

Erantzuna: **Elkar maite dezagun egigun otoitz.**



El-kar mai-te de-za-gun e-gi-gun o-toitz.

- Kristau guztiek jakin dezatela bere ikasleei oinak garbitu zizkien Jaunaren apaltasun ereduie jarraitzen, eta izan dezatela ukatu zuen Pedroren malkoak onartu zituenaren onginahia bera. *℟.*
- Egun hauetan bere zerbitzuaren hasiera oroitu eta beronen promesak berritu dituzten Fernando gure Gotzainaren eta bere apaizen alde; Jesusekin erabat lotuta bizi daitezen emandako hitzarekin leial izanez. *℟.*
- Sakabanaturik zeuden Jainkoaren seme-alabak batasunean biltzeko bere burua heriotzara eman zuen Jaunak, eman diezaiela egiazko bihotz-berritzea bekatuarengatik edo axolagabekeriarengatik bere Elizatik aldendu direnei. *℟.*
- Gotzainak sagaratu-berri duen salbamenaren olio gantzutuak izango diren gaixoek bizi dezatela Jaunaren babesa eta arinduak izan daitezela bere min eta gaixotasunetan. *℟.*

—Bera beheratzean altxa, Bere burua eskainiz barkamena iritsi, Bere odolez garbitu eta Bere haragiz janaritu gaituen Jaunak, argi ditzala gure buruak gaur gertaberritzen ditugun misterioak ulertu eta maitatu ditzagun. *Rx*.

Jesu Kristo Jauna, oraindik lurrean bizi garela betiereko otorduaren aurrerapen den mahaira deitzen gaituzunez, entzun gure otoitzak eta egizu zure garaipenaren sakramentuak ospatzera biltzen garenok mahaikide izan gaitezela betiereko Pazkoaren mahaian. Errege bizi baitzara gizaldi eta gizaldietan. *Rx*. Amen.

Oparigaien gaineko otoitza

**Egizu, Jauna, parte har dezagula sarri sakramentu honetan,
gure erospena gertaberritzen baita
Jaunaren opariaren oroigarri hau ospatzen dugun bakoitzean.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *Rx*. Amen.**

Jaunartze-ondorengo otoitza

Jaunartzea bukatutakoan, aldare gainean utziko da kopoia, hurrengo egunean jaunartzeko ogi sagaratuarekin. Apaizak, jarlekuan zutik, jaunartze ondorengo otoitza esango du.

**Jainko ahalguztiduna,
gaur ospatu dugun zure Semearen Afarian indarberritu gaituzu;
egizu, betiereko mahaian ere ase gaitezela.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *Rx*. Amen.**

Sakramentu Santua toki berezira aldatzerakoan

Orain Kristoren Gorputza gordeko dugu, biharko elizkizunean jaunartzeko. Jaunak Eukaristian eman digun dohain paregabea gozatzeko aukera ematen zaigu arrats honetan. Gurtu dezagun fedez Eukaristiaren misterioa. Bihar, (*ordua zehaztu*) bilduko gara Jaunaren Nekaldiaren eta Heriotzaren ospakizuna egiteko.

Apirilaren 18an **JAUNAREN NEKALDIKO OSTIRAL SANTUA**

Sarrerako oharpena

Ostiral Santu arratsalde honetan, isilean eta otoitzean bilduak gaude, baina ez gara etorri hildako baten hilobi aurrean isilik egotera, Jesu Kristo bizi dela sinesten baitugu. Ez gara etorri saldua, torturatua eta gurutzean josia izan den gizon baten hiletak jotzera, gurutzea garaipen-ikurra baita. Ez gara bildu antzinako istorio batzuk entzutera, Kristoren nekaldia egiazkoa baita.

Kristau elkarteak Kristoren heriotza kontatzen digun Jainkoaren Hitzaren entzutera bildu da, Gurutze salbagarria gurtzera eta bere burua eskaini eta batasunean biltzen gaituenaren Gorputza partekatuz. Otoitz sendoa egin nahi dugu, uste onez eta itxaropenez betea. Bai baitakigu Kristoren heriotza eta piztueratik datorrela gizakion salbamena ere. Isilik eta begirune osoz hasten gara.

Apaiza eta diakonoa –diakonorik bada–, Mezarako bezala gorritz jantzita, aldarera doaz isiltasunean, eta, aldarea agurtu ondoren, ahuspez etzango dira edota, egokiago iritziz gero, belaunikatu; eta une batean isilik otoitz egingo dute. Gainerako guztiak belaunikatu egingo dira.

Gero apaiza, bere laguntzaileekin, jarlekura joango da. Han, zutik dagoen herriari begira eta eskuak bildurik dituela, ondorengo otoitzetako bat esango du, Egin dezagun otoitz deia egin gabe.

Otoitza

**Jauna, Jesu Kristo zure Semeak,
bere odola gugatik isuriz sortu zuen pazko-misterioa;
izan gogoan zeure bihotz ona eta agertu zeure errukia;
egitazu santu zeure seme-alabak eta zaindu beti.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. R̄. Amen.**

Edota:

**Oi Jainko,
 Kristo zure Seme eta gure Jaunaren nekaldiaz ezereztu zenuen
 lehenengo bekatuak gizon-emakume guztiengana
 zabaldutako heriotza;
 egin gaitzazu zeure Semearen antzeko,
 gure izate mugatuak beharturik
 gizaki lurtarraren irudia daramagunok
 zure grazia santutzaileari esker
 gizaki zerutarraren irudia ere eraman dezagun.
 Errege bizi bait da gizaldi eta gizaldietan. *℟*. Amen.**

I. HITZAREN LITURGIA

Hitzaren liturgiari oharpena

Hitzaren liturgia da elizkizun honen lehenengo zatia. Jaunaren Nekaldiaren kontakizuna izango da irakurgai nagusia eta Nekaldia ulertzen lagunduko digute aurreko irakurgaiek. Jaunak «bere gain hartu zituen askoren bekatuak» eta «haren esaneko egin direnentzat betiko salbamenaren iturri egin da».

Lehenengo irakurgaia (*Is* 52, 13–53, 12)

Isaias profetaren liburutik

Hara, nire zerbitzariak arrakasta lortuko du; goratua, gorengo mailara jaso izango da. Asko eta asko ikaratu ziren hartaz, hain baitzuen giza itxura ere galdua eta gizakia zenik ere ez baitzirudien; era berean, herri asko harrituko dira, erregeak haren aurrean mutu geldituko, inoiz kontatu ez zitzaiena ikusiko baitute, inoiz entzun ez zutena adituko. Nork sinetsi du gure mezua? Nori agertu zaio Jaunaren ahalmena?

Sustraiak lur lehorrean dituen kimua bezala hazi zen Jaunaren zerbitzaria haren aurrean; ez zuen duintasunik, ez edertasunik, ez gure begientzat itxura erakargarririk; mespretxatua eta jendeak baztertua, oinaze-gizona, sufritzen ikasia; ez ikusiarena egiten zaiona bezala, mespretxatu egin genuen eta aintzakotzat hartu ez.

Baina gure gaitzak bere gain hartu zituen hark eta gure oinazeak eraman. Guk, berriz, zigortutzat geneukan, Jainkoak zauritu eta atsekabetutzat. Gure bekatuengatik zulatu zuten, gure erruengatik zanpatu. Haren gainera erori zen guretzat salbagarri den zigorra: haren zauriek sendatu gaituzte.


Ardiak bezala genbiltzan galdurik, bakoitza bere bidetik, eta Jaunak haren gainera bota zuen gu guztion errua. Gaizki erabili zuten, baina hura apaldu egin zen, ahorik zabaldu gabe. Hiltzera daramaten bildotsak bezala, ile-moztaileen aurrean isilik dagoen ardiak bezala, ez zuen ahorik zabaldu.

Gogorki eta zuzengabe eraman zuten; baina haren zoria nori axola? Bizidunen lurretik erauzi zuten, nire herriaren bekatuagatik jota. Gaiztoen artean lur eman zioten, gaizkileekin batera hilobiratu, nahiz eta hark bidegabekeriarik ez egin eta haren ahoan maltzurkeriarik ez izan.

Jaunak oinazez josi nahi izan zuen. Bekatuen ordainetan bizia eman zuelarik, izango ditu ondorengoak eta bizitza luzea, eta haren bitartez Jaunaren nahia burutuko da. Hainbat neke jasan ondoren, argia ikusiko du eta ase izango da. Ikasi duenaren bidez, nire zerbitzari zuzenak asko egingo ditu zuzen, haien gaiztakeriak bere gain hartu baitzituen.

Horregatik, jendetza ugaria emango diot ordainetan, gizataldeak izango ditu garaipen-sari, bere burua heriotzara eman zuelako eta bekatarien kideztat hartu zutelako.

Denen bekatuak bere gain hartu zituen eta bekatarien alde erregutu zuen.

Erantzun-salmoa (*Sal* 31 [30], 2 eta 6. 12-13. 15-16. 17 eta 25)

- ✠. Zugar babesten naiz, Jauna, ‘
ez nadila behin ere lotsagarrri gerta;
atera nazazu onik, zuzena baitzara.
Zure eskuetan uzten dut neure bizia;
aska nazazu, Jauna, Jainko leiala. ✠.
- ✠. Iseka-bide bihurtu naiz etsai^{ent}zat, ‘
are gehiago auzoko^{ent}zat;
izua sortzen diet ezagunei; ‘
ni kalean ikusi eta alde egiten didate.
Ahaztua naute erabat, hildakoa bezala,
baztertua, alferreko tresna bezala. ✠.
- ✠. Baina nik, Jauna, Zugar dut konfia^{nt}za;
hau diot: «Zu nire Jainko».
Zure eskuan dut neure zoria,
libra nazazu etsai eta pertsegitzaileen eskutik. ✠.
- ✠. Erakutsi aurpegi argia zerbitzari honi,
salba nazazu zeure maitasunaz.
Eutsi gogor, izan bihotz,
Jaunagan itxaroten duzen guztiok! ✠.

Bigarren irakurgaia (Heb 4, 14-16; 5, 7-9)

Hebrearrei egindako gutunetik

Senideok: Gure apaiz nagusi handia, Jesus, Jainkoaren Semea, zeruetan sartua dugunez gero, euts diezaiogun aitortzen dugun sinesmenari; izan ere, gure apaiz nagusia ez da gure ahuleriaz erruki ez daitekeen norbait, hura ere, gu bezala, gauza guztietan probatua izan baita, bekatuan izan ezik. Hurbil gaitezen, bada, konfiantza osoz Jainkoaren graziaren tronura, errukia iritsi eta premialdian laguntza izan dezagun.

Kristok, bere giza bizitzaldian, deiadar handiz eta negarrez egin zion otoitz eta erregu heriotzatik libra zezakeen Jainkoari, eta, Kristok begirune izan ziolako, entzun egin zion Jainkoak. Eta Semea izanik ere, oinazearen oinazez ikasi zuen obeditzen; horrela, bere betera iritsirik, betiko salbamenaren iturri bilakatu zen obeditzen dioten guztientzat.

Ebanjelio-aurreko gorapena (Ik. Flp 2, 8-9)



✠. Kristo gugatik menpeko egin zen heriotzaraino, ‘
gurutzeko heriottzaraino.
Horregatik Jainkoak goratu egin zuen,
eta izen guztien gaineko izena eman zion. ✠.

Ebanjelioa (Jn 18, 1 – 19, 42)

Homiliarako argibideak

0. "Ez da maitasun handiagorik"

"Ez du inork maitasun handiagorik bere bizia adiskideen alde ematen duenak baino".

Esan eta egin duzu. Ez genituen zure hitzak ulertzen, harik eta zure hitza guregatik, nigatik, bete duzun arte.

Zure bizitzak maitasunetik bakarrik zuen zentzua; zure bizitza maitasunaren probokazioa izan zen; zure heriotza maitasunaren gailurra da. Ez dago maitasun handiagorik.

Zure aurka indarkeria erabili duzu, baina zuk otzantasunez erantzun duzu beti. Zu zara gure elkartearen erdigunea, zu zara gure itxaropenaren arrazoia.

Gorrotaren eta indarkeriaren aurrean maitasunez erantzun duzu beti. Egia esan, zure ekintza guztiak, zure parabolak, zure keinuak, zure begiradak,... Jainkoaren maitasunaz hitz egiten ziguten.

Maitasuna izan da zure bizitzaren helburua. Honetarako jaio eta etorri zinen mundura. Zure izaera, zure jarduna, zure hitzak maitasun hitzak izan dira beti.

Jainkoa maitasuna dela esan zenigun eta seme-alaba bezala maitatuak garela eta honek senide egiten gaituela.

Maitasunaren Jainkoa gorrotaren gurutzean iltzatua izan da.

1. Itxuraz

Zure ametsa itxuraz hautsi da, zure leialtasuna errotik erauzia izan da, zure etsaiak nahasturik daude. Zure ametsak porrot egin duela dirudi: bakarrik, abandonaturik, zure ametsaren iseka bihurtu zaituzte.

Dena gaizki amaitu da: itxuraz.

Eskaini dizuten ospina zure bizitzarekin eskaintzen zenuen ardo berria hura kontrajarrian daude.

"Dena bete" dela diozu. Orain Jainkoaren eskuetan zaude.

Batzuentzat, Jainkoaren isiltasun hori Jainkoaren Semea abandonatua izan dela frogatzen du; itxuraz.

Zure eskuak makilan iltzatuta, sufritzen ari direnen alde jarri zara, gurutzearen pisua pairatzen dutenekin gurutziltzatuta zaude, biharko egunaren etorkizun zalantzarria. Hor zaude haiengatik, gu guztiongatik...

2. Dena amaitu da

Itxuraz dena amaitu da.

Batzuk beren etxeetara joaten dira zerbaiten zain, Norbaiten zain.

Beste batzuek amore eman dute. Jesus amets bat besterik ez zen izan, profeta bat gehiago. Ondo egon zen iraun zuen bitartean. Etsita ateak itxiko dituzte.

Baina gu biharko Egunaren zain gaude, Lehen Egunaren zain, Piztueraren zain. Itxaropen mingarria da, oinaze itxaropentsua.

Batzuentzat dena amaitu da. Ez dago itxaropenerako arrazoirik. Gurutzearen lotsak Jesusek sortutako itxaropena lausotu egon du.


Baina guretzat zerbait berria hasten da. Gurutzea, tortura eta heriotza tresna, garaipenaren hatsa izan daiteke, Jainkoak maitasunez gure alde egindako eskaintza.

Jainkoak irabaziko du, maitasunak irabaziko du. Baina hori bihar izango da.

Eskerrik asko Jesus zure bizitzagatik. Eskerrik asko.

Jainkoaren herriaren otoitza

Une garrantzitsua da Jainkoaren herriaren otoitzarena. Merezi du lasai egitea, adibidez: diakonoak edo ohargileak asmoa jartzen du, isilune bat egiten da (batzarrak "Kyrie, eleison" abes dezake), apaizak otoitza eta batzarrak "amen".



I. Eliza santuaren alde

Senideok, egin dezagun otoitz Jainkoaren Eliza santuaren alde: gure Jaun eta Jainkoak bakea, batasuna eta la-guntza eman diezaiola mundu zabalean; guri, berriz, bizimodu baketsua, Jainko Aita ahalguztiduna gorestekoa. *(Isilunea/kantua)*

Jainko ahalguztidun betierekoa,
 Kristogan herrialde guztiei agertu diezu zeure aintza;
 zaindu ezazu zeure maitasunaren egintza,
 mundu guztian zabaldurik dagoen zure Elizak
 sinesmenean sendo iraun dezan eta zure izena aitortu.
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ✠. Amen.

II. Aita Santuaren alde

Egin dezagun otoitz Frantzisko gure Aita Santuaren alde: gotzain-mailara deitu duen Jainkoak sendo gorde dezala bere Eliza santuaren onerako, Jainkoaren herri santua zuzen dezan. *(Isilunea/kantua)*

Jainko ahalguztidun betierekoa,
 Zuk eratzen dituzu diren guztiak zeure jakinduriaz;
 entzun bihotz onez gure otoitzak
 eta gorde ezazu maitasunez

guretzat aukeratu duzun Aita Santua,
Zuk gidatzen duzun kristau-herriak,
artzain honen ardurapean,
aurrera egin dezan sinesmenean.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *R̥*. Amen.

III. Eliz zerbitzarien eta maila guztietako kristauen alde

Egin dezagun otoitz Fernando gure gotzainaren alde, eta Elizako gotzain, presbitero eta diakono guztien alde, baita kristau-herri osoaren alde ere. (*Isilunea/kantua*)

Jainko ahalguztidun betierekoa,
zeure Espirituaz santu egiten duzu
eta gidatzen Elizaren gorputz osoa;
entzun eliz zerbitzari guztien alde egiten dizkizugun otoitzak,
zure graziari esker, bakoitza bere eginkizunean
zure zerbitzari zintzo izan dadin.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *R̥*. Amen.

IV. Kristaugaien alde

Egin dezagun otoitz [gure] kristaugaien alde: Jainko gure Jaunak hauen gogo-bihotzak ireki eta bere errukiaren atea zabal diezaien, hauek ere, Bataioko uraren bidez be-katu guztien barkamena harturik, Jesu Kristo gure Jaunaren gorputzeko atal izan daitezen. (*Isilunea/kantua*)

Jainko ahalguztidun betierekoa,
zeure Eliza seme-alaba berriz ugaritzen diharduzu beti;
sendo ezazu [gure] kristaugaien sinesmena eta jakinduria,
Bataio-iturriko jaiotza berriaz,
zure seme-alaba ordekoen artean sar daitezen.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *R̥*. Amen.

V. Kristauen batasunaren alde

Egin dezagun otoitz, Kristogan sinesten duten senide guztien alde: egiari jarrai diezaioten beren bizitzan eta gure Jaun eta Jainkoak bere Eliza bakarrean bildu eta zaindu ditzan. (*Isilunea/kantua*)

Jainko ahalguztidun betierekoa,
zure seme-alaba sakabanatuak biltzen dituzu,
eta bildutakoak zaintzen;
begira bihotz onez zeure Semearen artaldeko ardiei,
Bataio berak santu egin dituenak
egiazko sinesmenak bat egin ditzan
eta maitasun-lokarriak elkartu.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ✠. Amen.

VI. Juduen alde

Egin dezagun otoitz juduen alde ere, Jainko gure Jaunak profeten bidez lehenengo hitz egin zion herriaren alde: haren izen santuarekiko maitasunean aurrera egin dezaten beti eta harekiko ituna zintzo gorde dezaten. (*Isilunea/kantua*)

Jainko ahalguztidun betierekoa,
Abrahami eta haren ondorengoei egin zenizkien zeure agintzariak;
entzun errukiz zeure Elizaren eskariak,
lehenengo aukeratu zenuen herria erospen osora irits dadin.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ✠. Amen.

VII. Kristorengan sinesten ez dutenen alde

Egin dezagun otoitz Kristogan sinesten ez dutenen alde: Espiritu Santuaren argiaz beterik, hauek ere salbamen-bidean sar daitezen. (*Isilunea/kantua*)

Jainko ahalguztidun betierekoa,
emaiezu Kristorengan sinesten ez dutenei,
zure aurrean bihotz leialez eta zintzo biziz,
egia osoa ezagutzera iristea;
guri, berriz, emaguzu elkar hobeto maitatzea,
eta Zu sakonago ezagutzen ahalegintzea,
zure maitasunaren aitorle hobeak izan gaitezen munduan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ✠. Amen.

VIII. Jainkoarengan sinesten ez dutenen alde

Egin dezagun otoitz Jainkoa ezagutzen ez dutenen alde: beren kontzientziari zintzo jarraituz Jainkoagana hel daitezen.
(*Isilunea/kantua*)

Jainko ahalguztidun betierekoa,
Zuk egin dituzu gizon-emakume guztiak,
beti zeure bila ibil daitezen
eta, Zu aurkiturik, Zugan atsedean izan dezaten;
egizu, mundu honetako neke eta estualdietan
denek ikus ditzatela zure bihotz onaren ezaugarriak
eta zure sinestedunen testigantza,
horrela pozik aitor dezaten
Zu zarela egiazko Jainko bakarra eta guztion Aita.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ✠. Amen.

IX. Herri agintarien alde

Egin dezagun otoitz herri guztietako agintarien alde: gure Jaun eta Jainkoak horien gogo-bihotzak bere nahiaren arabera gida ditzan, denen bakerako eta askatasunerako. (*Isilunea/kantua*)

Jainko ahalguztidun betierekoa,
zeure eskuetan dituzu
gizon-emakumeen bihotzak eta herrien eskubideak;
begira begi onez herrietako agintariei,
zure laguntzaz mundu guztian izan daitezen
herrien aurrerapena, bake iraunkorra eta erlijio-askatasuna.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ✠. Amen.

X. Atsekabetuen alde

Senideok, egin diezaiogun otoitz Jainko Aita ahalguztidunari: garbi dezala mundua oker guztietatik, uxa ditzala gaitzak, eman diezaiela ogia gose direnei, aska ditzala espetxeratuak, hautsi kateak, zaindu bidaariak, etxeratu bidez dabiltzanak, sendatu gaixoak eta salba ditzala hilzorian daudenak. (*Isilunea/kantua*)

Jainko ahalguztidun betierekoa,
atsekabetuen poza eta nekatuen indarra,
irits bitez Zugana
edozein estualditan Zuri deiez daudenen eskariak,
beren premietan zure errukiaren laguntza lortu izanaz
poztu daitezen.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ✠. Amen.

II. GURUTZEA GURTZEA

Diru-bilketari oharpena

Lur santurako diru-bilketa egin daiteke (derrigorrezkoa ez bada ere):

Ohitura zaharra da Elizan, gaurko egunez diru-bilketa berezia egiteko. Eliza guztietan lehenengoa den Jerusalemgo Elizari laguntzeko. Horixe egingo dugu guk orain, Gurutzea gurtzeko prestatzen garen bitartean (*Edota gurutzea gurtzera gerturatzean*).

Gurutzea agertu aurretik oharpena

Gurutzea dugu ospakizunaren erdigunea. Berarengana zuzentzen ditugu gure begiak eta gure bihotzak. Orain, Jesusen gurutzea, Jesus bera gurutziltzatua gurtu behar dugu. Horretarako agertuko dute denon aurrean. Isiltasun eta begirunez, onar dezagun.

Gurutze santua gurtzea

Gurutzea ohi den eran agertu ondoren, musu eman ordez, buruarekin ere gurtu daiteke.

III. JAUNARTZE SANTUA

Aldareko oihala jarriko da, eta gainean gorputz oihalak eta Meza Liburua. Ondoren, diakonoak, edota diakonorik ez balitz apaizak berak, gure Jauna ekarriko du gordeta dagoen sagrariotik aldarera, bide laburrenetik; beste guztiak zutik eta isilik egongo dira. Laguntzaile bik lagunduko diote Jaunari argizari piztuekin, eta argiak aldare inguruan edota gainean uzten dituzte.

Ondoren, Jaunartzeko ohikunea hasiko da aitagurearekin.

Jaunartze ondorengo otoitza

**Jainko ahalguztidun betierekoa,
zeure Seme Jesu Kristoren
heriotza eta piztuera dohatsuaz eraberritu gaituzu;
zaindu ezazu gugan zeure maitasunaren egintza,
misterio honetan parte harturik
zure zerbitzari izan gaitezen beti.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ℟. Amen.**

Bukaera

Bihar bilduko gara gaueko (*esan ordua*), pozez Pazko Gaubeila ospatzeko. Ospakizun horrek ematen die zentzua atzoko eta gaurko ospakizunei. Ahalegin gaitezen benetan, bertan parte hartzen. Azkeneko otoitzaren ondoren isiltasun osoan geratuko gara.

Apaizak besoak herriaren gainera luzaturik, beste otoitz hau esango du:

**Zure Semearen heriotza ospatu dugu, Jauna,
eta haren piztuera santuaren zain gaude;
bidal gugana zeure bedeinkapen ugaria,
etor bekigu zure barkamena,
emaguzu zeure kontsolamendua,
sendotu gure sinesmena
eta eraman gaitzazu betiko salbamenera.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ℟. Amen.**

Eta guztiak isilik aterako dira elizatik.

Une egokian, aldarea erantzi egingo da berriro.

Apirilaren 19an, gauean **JAUNAREN PIZTUERAKO PAZKO GAUBEILA**

Aurten sua elizaren atzealdean egitea komeni da, bertara apaiza eta laguntzaileak bakarrik joanez. Fededunak, bakoitza bere tokian gera daiteke, zutik atzera begira jarritz. Honela kanpoan eginda ilunpetan eta elkarren gainean elizara sartzea saihestu daiteke.

I. ARGIAREN LITURGIA EDO GAUBEILAREN HASIERA

Jauna zuekin.

℟. Eta zure espirituarekin.

Gero, apaizak berak, oharpena egingo du:

Senide maiteok: Jesu Kristo gure Jauna heriotzatik bizira igaro deneko Gau santu honetan, Elizak dei egiten die munduan zabalduarik dauden bere seme-alabei elkartzera eta otoitzean erne egotera. Horrela, Jaunaren hitza entzunez eta sakramentuak hartuz Jaunaren Pazkoa elkartean ospatzen badugu, izango dugu itxaropen, harekin batean menperatuko dugula heriotza eta harekin biziko garela, Jainkoagan.

Jarraian sua bedeinkatuko du, esanez:

Egin dezagun otoitz.

Oi Jainko, zeure Semearen bitartez

eman diguzu fededunoi zeure suaren argia;

bedeinka ✠ ezazu su berri hau,

eta egizu, pazko-jai hauetan zerutar gauzetarako suturik,

irits gaitezela arima garbiz betiko argiaren jaietara.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ℟. Amen.

Su berria bedeinkatu ondoren, laguntzaile batek apaizari aurrean jarriko dio pazko-zuzia. Apaizak ezten txo batekin gurutzea markatuko du argizarian. Gero, gurutzearen gainean «Alpha» eta azpian «Omega» hizki grekoak egingo ditu; eta gurutzearen lau besoetan, gauden urteko lau zenbakiak, esanez:

Kristo atzo eta gaur;
 Hasiera eta Helmuga;
 Alpha eta Omega.
 Harenak dira egunak eta mendeen mendeak.
 Berari ospea eta erregetza
 gizaldi eta gizaldietan. *℟.* Amen.

Bost intsentsu-alea ezar ditzake, hau esanez

Bere zauri santu
 eta dohatsuen bitartez,
 gorde gaitzala
 eta zaindu
 Kristo Jaunak. *℟.* Amen.

Eta su berriarekin Pazko-zuzia piztuko du esanez:

Aintzaz piztu den Kristoren argiak
 uxa ditzala gogo-bihotzetako ilunak.

Batzar-buruak hiru aldiz kantatuko du “Kristoren argia”: lehenengo sutondoan, bigarren elizaren erdialdean, hirugarren aldarearen oinetan herriari begira. Hirugarren aldiz kantatzen duenean elizako argiak piztuko dira. Pazko zuria anboiaren ondoan ipiniko da. Han egongo da Pentekoste egunean ponte-ondora eramán arte.

Pazko-deia

Apaizak lurrin-ontzian intsentsua bota eta liburua eta pazko-zuzia lurrinduko ditu. Ondoren, Pazko-deia kantatzen du anboitik.

Pazko-deia bukatuta adierazi eliztarrei eskuetako kandelak itzal ditzatela.

II. HITZAREN LITURGIA

Apaizak berak, denei esertzeko esanez oharpen hau egingo du:

Senide maiteok: Pazko-dei ospetsua entzunez hasiak gara Jaunaren piztueraren gau santua ospatzen. Entzun dezagun orain gogoeta-giroan Jainkoaren hitza. Ikus dezagun nola salbatu zuen gure Jainkoak lehenengo aldietan bere herria, eta azkenak diren aldi hauetan nola bidali digun bere Semea salbatzaile. Eta egin dezagun otoitz, Jainko gure Jaunak gugan bete dezan pazko-misterioan hasi zuen salbamene-egintza hau.

Ondoren, Itun Zaharreko irakurgaiak egingo dira. Irakurgaia, salmoa eta otoitza. Ematen diren Irakurgaietatik, bat edo beste utzi daiteke. Halere, saiatu hiru gutxienez aukeratzen, Irteera liburukoa sekula utzi gabe.

Lehenengo irakurgaia (*Has 1, 1 – 2, 2*) [kakotx] artekoa utz daiteke.

Hasiera liburutik

Hasieran Jainkoak zero-lurrak egin zituen. [Lurra nahas-mahas hutsa zen: leize handiaren gainean ilunpea. Eta Jainkoaren arnasa uren gainean zebilen.

Eta Jainkoak esan zuen: «Izan bedi argia». Eta izan zen argia. Ikusi zuen Jainkoak argia ona zela eta bereizi egin zuen ilunpetik. Argiari «eguna» ezarri zion izena, eta ilunpeari «gaua». Eta arrats eta goiz: lehenengo eguna burutu zen.

Jainkoak esan zuen: «Izan bedi sabaia uren artean, goiko eta beheko urak bereiz ditzan». Eta hala izan zen. Jainkoak sabaia egin zuen eta sabai azpiko urak sabai gaineko uretatik bereizi zituen. Sabaiari «zerua» ezarri zion izena. Eta arrats eta goiz: bigarren eguna burutu zen.

Jainkoak esan zuen: «Bil bitez zeru azpiko urak leku bakar batean eta ager bedi lehorra». Eta hala izan zen. Lehorrari «lurra» ezarri zion izena, eta ur-multzoari «itsasoa». Eta ona zela ikusi zuen Jainkoak.

Jainkoak esan zuen: «Eman beza lurak landaretza: hazidun landareak eta zuhaitzak, bakoitzak dagokion fruitua, hazi eta guzti, ekarriko dutenak». Eta hala izan zen. Lurak eman zuen landaretza: hazidun landareak, bakoitza dagokion haziarekin, eta fruitua ekarriko duten zuhaitzak, bakoitza dagokion haziarekin. Eta ona zela ikusi zuen Jainkoak. Eta arrats eta goiz: hirugarren eguna burutu zen.

Jainkoak esan zuen: «Izan bitez argizagiak zeru-sabaian, eguna eta gaua bereizteko, eta jaiak, egunak eta urteak adierazteko; distira bezate zeru-sabaian, lurrari argi egiteko». Eta hala izan zen. Bi argizagi handi egin zituen Jainkoak: handiena egunaren nagusi jartzeko, eta txikiena gauaren nagusi, eta izarrak ere egin zituen. Eta Jainkoak zeru-sabaian ipini zituen, lurrari argi egiteko, egunaren eta gauaren nagusi jartzeko eta argia eta ilunpea bereizteko. Eta ona zela ikusi zuen Jainkoak. Eta arrats eta goiz: laugarren eguna burutu zen.

Jainkoak esan zuen: «Egin bezate urek borbor bizidunez, eta egin bezate hegan hegaztiekin lurraren gainean, airean». Eta Jainkoak arrain tzarrak egin zituen eta uretan borbor dabiltzan mota guztietako bizidunak eta mota guztietako hegaztiak. Eta ona zela ikusi zuen Jainkoak. Eta bedeinkatu egin zituen, esanez: «Sor itzazue umeak, ugaritu eta bete itsasoko urak; ugari bitez hegaztiak ere lurraren gainean». Eta arrats eta goiz: bosgarren eguna burutu zen.

Jainkoak esan zuen: «Sor bitza lurak mota guztietako bizidunak: abereak, narrastiak eta piztiak». Eta hala izan zen. Jainkoak mota guztietako piztiak, abereak eta narrastiak egin zituen. Eta Jainkoak ona zela ikusi zuen.]

Eta Jainkoak esan zuen: «Egin dezagun gizakia geure irudiko, geure antzeko; mendera ditzala itsasoko arrainak, zeruko hegaztiak, etxeko abereak eta lurreko narrastiak». Jainkoak, beraz, bere irudiko egin zuen gizakia, Jainkoaren beraren irudiko egin zuen; gizaseme eta emakume kreatu zituen. Eta bedeinkatu egin zituen Jainkoak eta esan zien: «Sor itzazue umeak eta ugaritu, bete lurra eta izan haren nagusi; mendera itzazue itsasoko arrainak, zeruko hegaztiak eta lurrean dabiltzan piztia guztiak».

Jainkoak esan zuen: «Begira, zuei ematen dizkizuet lurraren azalean diren hazidun landare guztiak eta hazidun fruitua dakarten zuhaitz guztiak; janari izango dituzue horiek. Abereei, zeruko hegaztiei eta lurrean dabiltzan bizidun guztiei, berriz, belarra ematen diet janari». Eta hala izan zen. Eta egindako guztia ikusi zuen Jainkoak, eta oso ona zen. [Eta arrats eta goiz: seigarren eguna burutu zen.

Honela, burutuak gelditu ziren zeru-lurrak eta hauetan dagoen guztia. Zazpigarren egunerako burutu zuen Jainkoak egindako lana, eta zazpigarren egunean, egindako lan guztiaren ondoren, atsedean hartu zuen.]

Erantzun-salmoa (Sal/ 104 [103], 1-2a. 5-6. 10 eta 12. 13-14ab. 24 eta 35c)

Zu - re ar-na - sa bi - dal gu-ga - na ta lur-a-za - la be-

1 rri - tu, Jau - na. 2 Zu - -rri - tu, Jau - na.



- ∞. Bedeinka beza nire ar**im**ak Jauna!
 Jauna, ene Jainkoa, bai handia za**re**la!
 Distiraz eta handitasunez zaude **jant**zia,
 argiz inguratua, soinekoz **be**zala. R̃.
- ∞. Sendo ezarri zenu**en** lurra
 eta ez da sekula koloka **egongo**.
 Ozeanoz estali zenuen soinekoz **be**zala,
 eta urek azpian hartu zituzten **mendi**ak. R̃.
- ∞. Ibaiak sorrarazten dituzu iturri**et**atik,
 eta mendi artean doaz isur**ian**.
 Ur-bazterretan bizi dira zeruko heg**az**tiak,
 hosto artean **kant**ari. R̃.
- ∞. Zeure goi-geletatik dituzu mendiak ure**z**tatzen,
 zeure biltegietako emaitzez lurra a**se**tzen.
 Abereentzat ernearazten duzu **be**larra,
 lanerako animalien**tzat** bazka. R̃.
- ∞. Bai ugariak, Jauna, Zuk **egin**ak!
 Denak jakinduriaz egin di**tu**zu,
 zure sorkariz betea dago **go** lurra.
 Bedeinka beza nire ar**im**ak Jauna! R̃.

Otoitza

Egin dezagun otoitz.
 Jainko ahalguztidun betierekoa,
 gauza guztiak harrigarriro sortu dituzu;
 egizu, Zuk salbatutako gizon-emakumeek ikus dezatela,
 aldi guztien hasieran mundua sortzea harrigarria izan bazen,

are harrigarriagoa dela
 azken aldietan Kristo gure Pazkoak
 eskainitako bere buruaren oparia.
 Errege bizi baitzara gizaldi eta gizaldietan. *℟*. Amen.

Edota, gizakiaren sortzeaz:

Egin dezagun otoitz.
 Gizakia harrigarriro egin
 eta modu harrigarriagoan salbatu duzun Jainkoa,
 emaguzu bekatuaren liluramenduari zentzu onez gogor egitea,
 betiko pozetara irits gaitezen.
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *℟*. Amen.

Bigarren irakurgaia (*Has 22, 1-18*) [*kakotx*] *artekoa utz daiteke*

Hasiera liburutik

Egun haietan, Jainkoak Abraham aztertu nahi izan zuen eta dei egin zion: «Abraham!» Eta Abrahamek erantzun: «Hemen nauzu». Eta Jainkoak: «Hartzazu Isaak zeure semea, hain maite duzun seme bakarra, eta zoaz Moriako lurraldera, eta eskainiezadazu erre-opari, Nik erakutsiko dizudan mendi gainean».

[Jaiki zen Abraham goizean goiz, txalmatu zuen astoa eta, erre-oparitako egurra txikiturik, Jainkoak esandako lekura joan zen, bi morroiekin eta bere seme Isaakekin. Hirugarren egunean, begiak jatorik, lekua ikusi zuen urrutira, eta esan zien morroiei: «Gelditu hemen astoarekin. Mutikoa eta biok haraino goaz, Jainkoa gurtzera. Ondoren, hona itzuliko gara».

Hartu zuen Abrahamek erre-oparitako egurra eta Isaak bere semeari bizkarreratu zion; berak sua eta aiztoa zeramatzan. Biak batera zihoazela, Isaakek esan zion bere aita Abrahami: «Aita!» «Zer duzu, seme?», erantzun zion hark. Eta semeak: «Sua eta egurra

baditugu; baina non da oparitako bildotsa?» Abrahamek erantzun zion: «Jainkoak eratuko digu oparitako bildotsa, seme». Eta biak batera zihoazen.]

Jainkoak esandako lekura iritsi zirenean, [Abrahamek aldarea eraiki zuen eta egurra prestatu; gero, bere seme Isaak lotu eta aldarean egur-pila gainean ipini zuen.] Eskua luzatuz, aiztoa hartu zuen Abrahamek semea hiltzeko. Baina Jainkoaren aingeruak hots egin zion zerutik: «Abraham, Abraham!» Eta Abrahamek erantzun: «Hemen nauzu». Aingeruak, orduan: «Ez luzatu eskua zeure semearen gainera, ez egin ezer. Ikusi dut Jainkoari begirune diozula, ez baitiozu zeure seme bakarra bera ere ukatu».

Abrahamek begiak jaso eta ahari bat ikusi zuen adarretatik sastraka artean kateatua; hartu eta erre-oparitzat eskaini zuen semearen orde. [Abrahamek leku hari «Jaunak du hornitzen» ezarri zion izena, eta gaur egun ere hala dio jendeak: «Mendian Jaunak du hornitzen».]

Berriz ere dei egin zion Jaunaren aingeruak zerutik Abrahami, esanez: «Hau dio Jaunak: Ala Ni Jainkoa! Horrela jokatu duzulako, zeure seme bakarra ukatu ez didazulako, bedeinkatuko zaitut eta zure ondorengoak zeruko izarrak eta itsasbazterreko hondarra bezain ugari egingo ditut, eta etsaien hiriez jabetuko dira. Zure ondorengoen bidez lurreko herri guztiak bedeinkatuko ditut, nire esana egin duzulako».

Erantzun-salmoa (*Sal* 15, 5 eta 8. 9-10. 11)





℣. Jauna, Zu zaitut neure ondarea, neure **edontzia**,
zure esku dago nire **zorria**.

Begi aurrean dut Jauna **etengabe**;
hura eskuinean dudala, ez naiteke **dardara**. ℟.

℣. Horregatik, alai dut bihotza, pozik **erraiak**,
atsedenean lasai gorputa.
Ez baituzu nire bizia Herio-leizera **egotziko**,
ezta ere zeure fededuna hilobian galtzen **utziko**. ℟.

℣. Bizirako bidea erakutsiko **didazu**;
alaitasunez beteko nauzu zeure **aurrean**,
zorionez betiko zeure **ondoan**. ℟.

Otoitza

Oi Jainko, fededunen Aita gorena,
zure seme-alaba ordezkotzaren grazia isuriz,
lur guztian ugaltzen dituzu
Zuk hitzemaña hartuko duten seme-alabak,
eta, Bataioko pazko-sakramentuaren bidez,
herri guztien aita egin duzu Abraham zeure zerbitzaria,
Zeuk agindu bezala;
egizu, arren, zure herriak
erantzun diezaiola behar bezala zure deiari.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ℟. Amen.

Hirugarren irakurgaia (Ir 14, 15—15, 1a)

Irteera liburutik

Egun haietan, Jaunak esan zion Moisesi: «Zergatik ari zatzaizkit oihuka? Esan israeldarrei aurrera egiteko. Eta zuk jaso makila eta luzatu eskua itsas gainera: erdi bi egingo da itsasoa eta israeldarrak erditik igaroko dira, oinik busti gabe. Nik setatsu bihurtuko ditut egiptoarrak, atzetik jarrai diezazueten, eta neure aintza agertuko dut faraoiaren eta haren gudarostearen bizkar, haien gurdien eta zaldizkoen bizkar. Orduan jakingo dute egiptoarrek Ni naizela Jauna, neure aintza agertuko dudanean faraoiaren eta haren gudarostearen bizkar, haien gurdien eta zaldizkoen bizkar».

Israeldarren aurretik zihoan Jainkoaren aingerua atzealdera pasatu zen; laino-adarra ere lekuz aldatu eta atzealdean kokatu zen, israeldarren eta egiptoarren tartean jarritz. Lainoa ilunpe bihurtu zen, eta ezin izan ziren gau osoan elkarrengana hurbildu.

Luzatu zuen Moisesek eskua itsas gainera eta, Jaunak eraginda, ekialdeko haize indartsuak jo zuen gau guztian. Haizeak itsasoa lehortu zuen, eta urak erdibi egin ziren. Itsasoan zabaldutako lehorbidetik igaro ziren israeldarrak, oinik busti gabe, urak ezker-eskuin zituztela harresi gisa. Egiptoarrak, faraoiaren zaldi, gurdi eta zaldizko guztiak, israeldarrei erasoka itsas erdiraino sartu ziren.

Goizaldean, Jaunak su- eta laino-adarretik egiptoarren gudarosteari begiratu zion eta nahasmendua sortu zuen haren baitan. Gurdien gurpilak trabatu zituen, nekez mugitzen zirela utziz. Orduan, egiptoarrek esan zuten: «Goazen ihesi israeldarrengandik, Jauna ari baita haien alde eta gure aurka».

Baina Jaunak esan zion Moisesi: «Luzatu eskua itsas gainera, urak egiptoarren gainera, haien gurdien eta zaldizkoen gainera, bihurtu daitezten». Luzatu zuen Moisesek eskua itsas gainera; eguna argitzean urak ohiko lekura itzuli ziren, eta egiptoarrek, ihes egiteko ahaleginean, urarekin aurrez aurre topo egin zuten; Jaunak itsas hondora amildu zituen egiptoarrak. Beren lekura itzultzean, urek

estali egin zituzten israeldarren atzetik itsasoan sartu ziren guriak, zaldizkoak eta faraoiaren gudaroste osoa; ez zen bat bakarra ere bizirik atera. Israeldarrak, berriz, oinik busti gabe igaro ziren itsas erditik, urak ezker-eskuin zituztela harresi gisa.

Egun hartan Jaunak salbatu egin zuen Israel egiptoarren eskuetatik, eta hilik ikusi zituen Israelek egiptoarrak itsasbazterrean. Eta Jaunak egiptoarren kontra erabili zuen ahalmen handia ikusirik, herriak begirune izan zion Jaunari, eta Jaunagan eta honen zerbitzari Moisesengan jarri zuen uste ona.

Orduan, Moisesek eta israeldarrek kantatu hau abestu zioten Jaunari:

[Irakurgai honen bukaeran ez da "Jaunak esana" esango].

Erantzun-salmoa (*Ir 15, 1-2. 3-4. 5-6. 17-185, 5 eta 8. 9-10. 11*)

Kan -ta Jau - na - ri kan - tu be - rri, e - gin bait di -

tu hain - bat ha - rri - ga - rri.

✠. Jaunari diot kantatzen, ‘
garaipen handia lortu duelako,
zaldi eta zaldun itsasora amildu dituelako. ‘
Jauna dut indar eta kemen, hura neure salbamen.
Hura dut neure Jainkoa: gorespen hari,
neure aitaren Jainkoa: goraipatua izan bedi. ✠.



- ✠. Gudari da Jauna, '
 Jauna du hark izena.
 Itsasoan hondoratu ditu '
 Faraoiaren gurdiak eta gudariak,
 Itsaso Gorrian amildu
 haren buruzagirik aukerarakoenak. R̃.
- ✠. Ur handiek estali zituzten,
 harria bezala hondora joan ziren.
 Zure eskuina, Jauna, biziki indartsua,
 zure eskuinak, Jauna, xehatzen du etsaia. R̃.
- ✠. Sarrarazi duzu zeure herria '
 eta zeure mendian landatu, zeure ondarean,
 zeure egoitza egin duzun tokian, Jauna,
 zeure eskuz, Jauna, eraiki duzun santutegian.
 Jauna errege da betidanik betitidaino. R̃.

Otoitza

Egin dezagun otoitz.

Oi Jainko, gure egunotan ere ikusten dugu
 argitsu berritzen dituzula lehengo zeure mirariak;
 aldi hartan, herri bakar bat Faraoiaren menpetik askatuz
 erakutsi zenuen zeure indarra;
 orain, herri guztiak salbatzen dituzu,
 Bataioko uretan zehar igarotzean bizi berria emanez;
 egizu, mundu guztiko herriak irits daitezela
 Abrahamen seme-alaba eta Israel berri izatera.
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. R̃. Amen.

Edota:

Egin dezagun otoitz.

Oi Jainko,

Itun Berriaren argiaz argitu dituzu Itun Zaharreko mirariak,
eta horrela Itsaso Gorria

Bataioko iturriaren iruditatz hartzen dugu,

eta Egiptotik askaturiko judu-herria

kristau-herriaren iruditatz;

egizu, gizon-emakume guztiak,

sinesmenari esker, Israel bezala hautatuak izanik,

zure Espirituaren bitartez bizi berrira etor daitezela.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *℟*. Amen.

Laugarren irakurgaia (*Is 54, 5-14*)

Isaias profetaren liburutik

Zure egileak bere emaztetzat hartuko zaitu:

haren izena Jaun ahalguztiduna;

Israelen Jainko santua da zure askatzailea,

lur osoaren Jainko deritza.

Emakume baztertu eta atsekabetuari bezala

dei egiten dizu Jaunak berriro,

gaztetako emazte zapuztuari bezala –dio zure Jainkoak–.

Apur batez baztertu zintudan;

baina maitasun handiz bilduko zaitut berriro.

Haserrealdi batean, unetxo batez gorde nizun aurpegia;

baina betiko maitasunaz errukitu natzaizu,

dio Jaunak, zure askatzaileak.

Noeren egunetan bezala izango da Niretzat:

zin egin nuen orduan


uholdeak ez zuela aurrerantzean lurrik estaliko,
 eta halaxe egiten dut zin orain ez natzaizula berriz haserretuko,
 ez dizudala aurrerantzean mehatxurik egingo.
 Mendiak beren lekutik aldendu eta muinoak koloka egonik ere,
 nire maitasuna ez da zugandik aldentuko,
 nire bake-ituna ez da koloka egongo,
 honela dio maite zaituen Jaunak.

Zorigaiztokoa zu, Jerusalem, ekaitzak astindua,
 inork kontsolatu gabea!
 Malakitazko oinarri gainean eraikiko zaitut,
 zafirozko zimendu gainean ezarriko;
 dorreak errubiz eta atea esmeraldaz egingo dizkizut,
 harribitxiz harresi guztiak.

Zure seme-alabak Jaunaren ikasle izango dira
 eta bake osoan biziko.

Justizian oinarrituko zara sendo.
 Zapalkuntzatik urruti egongo zara
 eta ez zara ezeren beldur izango,
 ikara ez zaizu inoiz hurbilduko.

Erantzun-salmoa (Sal 29, 2 eta 4. 5-6. 11-12a eta 13b)





- ✠. Goratzen zaitut, Jauna, onik atera nauzulako,
etsaiei nire lepotik pozten utzi ez diezulako.
Jauna, Herio-leizetik atera nauzu,
zulora jaistear nengoela biziberritu. ✠.
- ✠. Kanta Jaunari, haren fededunok, ‘
goretsazue, haren santutasuna gogoratuz.
Une baterako da haren haserrea, ‘
bizi guztirako haren onginahia.
Arratsean negarra da gurean,
poz-oihua goizean. ✠.
- ✠. Entzun, Jauna, eta erruki nitaz,
izan zakizkit laguntzaile, Jauna.
Negarra dantza bihurtu didazu,
Jauna, ene Jainkoa, eskerrak emango dizkizut beti. ✠.

Otoitza

Egin dezagun otoitz.

Jainko ahalguztidun betierekoa,
zure izenaren aintzarako, ugari itzazu
gure fede-gurasoei agindu zenizkien ondorengoak
eta hazi zeure seme-alaba ordekotzat aukeratuen taldea,
zure Elizak ikus dezan, oraintxedanik betetzen ari dela
antzinako arbasoek zalantzarik gabe itxaro zutena.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ✠. Amen.

Bosgarren irakurgai (Is 55, 1-11)

Isaias profetaren liburutik

Honela mintzo da Jauna:

«Egarri zareten guztiok, zatozte ur bila,
etorri, dirurik ez duzuenok ere;
erosi garia eta jan ordaindu gabe, erosi ardoa eta esnea hutsean.
Zergatik gastatu dirua, goserik utziko zaituzten janaritan,
eta lansaria, aseko ez zaituzten gauzatan?
Entzun Niri arretaz, eta ondo jango duzue,
janari gozo mamitsuz elikatuko zarete.

Etorri Nigana eta egon adi,
entzudazue eta biziko zarete.
Betiko ituna egingo dut zuekin,
Davidi eginiko maitasunezko agintzariari leial eutsiz.
Herrientzako testigu jarri nuen David,
nazioen buruzagi eta agintari.
Ezagutzen ez zenuen herriari egingo diozu dei,
eta ezagutzen ez zintuen herria lasterka etorriko da zugana,
Jaunagatik, zure Jainkoagatik,
ospez jantzi zaituen Israelgo Santuagatik.

Bila ezazue Jauna, aurki daitekeen bitartean;
hots egiozue, hurbil dagoen bitartean.
Utz beza gaiztoak bere bidea,
gaizkileak bere asmo txarrak;
itzul bedi Jaunagana, errukiz hartuko baitu,
gure Jainkoagana, guztiz barkabera baita.
Nire asmoak ez dir v a zuenak bezalakoak,
ezta zuen jokabidea ere nirea bezalakoa –dio Jaunak–.
Nola zerua lurraren gainetik garai,
hala nire jokabidea zuen jokabidearen gainetik,
nire asmoak zuen asmoen gainetik.

Euria eta elurra zerutik jaisten dira
 eta ez dira berriro hara itzultzen,
 lurra ase, ernaldu eta ernamuindu gabe,
 ereiteko hazia eta jateko ogia eman ditzan;
 hala egingo du nire ahotik ateratako hitzak ere:
 ez da Nigana hutsik itzuliko,
 baizik eta egingo du Nik nahi dudana
 eta beteko Nik ezarritako helburua».

Erantzun-salmoa (Is 12, 2. 3 eta 4bcd. 5-6)



- ✠. Jainkoa dut sal**bat**zaile!
 Badut uste on eta ez **naiz** beldur,
 Jauna baitut indar **eta** kemen,
 hura neure **salb**amen. ✠.
- ✠. Aterako duzue ura pozik ‘
 salbamenaren iturri**et**atik.
 «Eskerrak Jaunari, egin dei haren **izen**ari,
 iragarri haren egintzak **herriei**,
 aldarrikatu zein bikaina den haren **izena**. ✠.
- ✠. Kanta Jaunari, bikain jokatu baitu,
 jakin bezate honen berri mundu **oso**an.
 Egin poz-irrintzi eta oihu, Siongo bizi**la**gunok,
 handikiro ari baita zuen alde Israelgo **Santu**a». ✠.

Otoitza

Egin dezagun otoitz.

Jainko ahalguztidun betierekoa,

munduaren itxaropen bakarra,

profeten ahoz erakutsi dituzu aldez aurretik,

orain betetzen diren misterioak;

indartu bihotz onez zeure herriaren salbaziorako gogoia,

fededunak ez baitezake zure graziarik gabe

onbidean aurrera egin.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *Rx*. Amen.

Seigarren irakurgaia (*Ba* 3, 9-15. 32—4, 4)

Baruk Profetaren liburutik

Aditu, Israel, bizira daramaten aginduak,

entzun, zuhurtasuna ikasteko.

Zer dela eta, Israel, zer dela-eta zaude etsaien lurraldean,

lurralde arrotzean zahartzen?

Zer dela-eta hildakoekin kutsaturik,

Herio-leizean daudenen parekotzat emana?

Utzi egin duzu jakinduriaren iturria!

Jainkoaren bideari jarraitu izan bazenio,

bakean biziko zinatekeen betiko.

Ikasi non dagoen zuhurtasuna, non indarra eta zentzu ona,

eta jakingo duzu era berean

non dagoen bizitza luzea eta benetako bizia,

non, gidatuko zaituen argia eta bakea.

Nork aurkitu du jakinduriaren bizilekua?

Nor iritsi da haren altxorretaraino?

Dena dakien Jainkoak ezagutzen du jakinduria,

bere adimenaz aztertzen du.

Hark eratu du lurra betiko eta lauoineko abereez bete;
argiari joateko agindu, eta joan egiten da,
deitu, eta hark esana egiten ikaraz.

Izarrek ere distira egiten dute
beren zaintza-postuetan, pozez beterik;
deitzen ditu, eta «Hemen gaituzu» erantzuten diote,
eta pozik distiratzten beren Egilearentzat.

Hura da gure Jainkoa, ez da beste inor hura bezalakorik.

Hark aurkitu ditu jakintzaren bide guztiak,
eta bere zerbitzari Jakobi erakutsi dizkio,
hain maite duen Israel herriari.

Gero, munduan agertu zen jakinduria
eta gizakien artean bizi izan zen.

Jainkoaren aginduen liburua da jakinduria,
betiko irauten duen legea;
hura gordetzen dutenak bizira doaz,
bazterrera uzten dutenak heriotzara.

Onartu berriro jakinduria, Jakobena herri,
zabiltza haren argiaren distiran.

Ez utzi besteri zeure aintza,
ezta jende arrotzari ere zeure duintasuna.

Zorionekoak gu, Israel, Jainkoari atsegin zer zaion dakigunok.

Erantzun-salmoa (*Sal* 19 [18], 8-9. 10-11)





- ✠. Jaunaren legea bikain, barrena arnasberritzen du;
 Jaunaren manamendua fidagarri, heldugabea zuhur egiten du.
 Jaunaren arauak zuzen, bihotzaren pozgarri;
 Jaunaren agindua distiratsu, begien argigarri. ✠.
- ✠. Jaunaganako begirunea garbi, iraunkor betiko,
 Jaunaren erabakiak egiazko, den-denak bidezko.
 Urrea, urre araztua baino desiragarriago,
 ezti, ezti berria baino gozoago. ✠.

Otoitza

Egin dezagun otoitz.

Oi Jainko, gizon-emakume guztiei sinestera dei eginez
 zeure Eliza beti handiago egiten diharduzu,
 zaindu itzazu onez zeure babespean
 Bataioko uraz garbitu dituzunak.
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ✠. Amen.

Zazpigarren irakurgaia (Ez 36, 16-17a. 18-28)

Ezekielen Profezia liburutik

Honela hitz egin zidan Jaunak: «Gizaseme! Israel herriak, bere lurraldean bizi zenean, kutsatu egin zuen lurraldea bere jokabide eta egintza txarrez. Orduan, haien gainera isuri nuen neure sumina, lurraldean odola isuri eta idolatriaz kutsatu zutelako. Atzerriko nazioetan eta lurraldeetan sakabanatu nituen. Beren jokabide eta egintza txarren arabera epaitu nituen. Eta nazio haietara iritsi zirenean ere, nire izen santua belztu zuten, jendea hau esatera bultzatuz: “Jaunaren herria dira, eta haren lurraldetik irten egin behar

izan dute". Orduan, nire izen santua garbitu nahi izan nuen, belztu egin baitzuen Israel herriak, egon zen nazioetan.

Esaiozu, beraz, Israel herriari: Hau dio Jaunak: "Ez dut hau zuengatik, israeldarrongatik, egiten, baizik eta zuek egon zareten nazioetan belztu duzuen nire izen santuagatik. Santu agertuko dut neure izen handia, nazioetan kutsatua dagoena, haien artean zuek kutsatu duzuen nire izena. Eta zuen bidez haien aurrean santu agertuko naizenean, orduan jakingo dute nazio haiek Ni naizela Jauna –dio Jainko Jaunak–.

Nazioen artetik hartuko zaituztet, lurralde guztietatik bilduko eta zeuen lurraldera ekarriko. Ur garbiz zipriztinduko zaituztet, eta garbi geldituko zarete; zeuen kutsadura eta idolatria guztietatik garbituko zaituztet.

Bihotz berria emango dizuet eta barnean espiritu berria ezarriko. Harrizko bihotza kenduko dizuet eta haragizkoa emango. Neure espiritua ipiniko dut zuengan, eta gai egingo zaituztet nire legeen arabera ibiltzeko eta nire aginduak arretaz betetzeko. Zuen arbasoei eman nien lurraldean biziko zarete; nire herri izango zarete zuek, eta Ni zuen Jainko"».

Erantzun-salmoa (Sal 50, 12-13. 14-15. 18-19)

Bi-hotz gar-bi - a gu-gan sor - tu, ar - nas biz - ko -

rra bar-ne mui-ne - tan e - ma - gu - zu.



- ✠. Jainkoaren egarri naiz, Jainko biziareren egarri:
 noiz iritsiko ote naiz Jainkoaren aurpegia ikustera?
 Gogoan dut, nola joaten nintzen tenplura, Jainkoaren etxera,
 poz-oihuz eta goraka, jai-giroan, jendetzarekin batera. ✠.
- ✠. Bidal zeure argia eta egia, gida nazatela, ‘
 eta eraman zure mendi santura, zure bizilekura.
 Eta iritsiko naiz Jainkoaren aldarera,
 neure poz betea dudana Jainkoagana.
 Zitaraz goretsiko zaitut, Jainkoa, ene Jainkoa. ✠.

Otoitza

Egin dezagun otoitz.

Oi Jainko, indar aldaezina eta argi ilunezina,
 begira bihotz onez misterio harrigarria den Eliza osoari
 eta, betidanik nahi izan duzun bezala,
 berri ezazu bakean
 gizon-emakume guztien salbamen-egintza;
 mundu guztiak ezagut dezala eta aitortu gauza miragarri hau:
 eroria zegoena altxatu egin duzula,
 zaharra berriztatu eta dena bere betera eraman,
 diren guztien hasiera den
 Kristo zure Seme eta gure Jaunari esker.
 Errege bizi bait da gizaldi eta gizaldietan. ✠. Amen.

Edota:

Egin dezagun otoitz.

Oi Jainko, pazko-misterioa ospatzeko
 Itun Zaharreko eta Berriko irakurgaiez eskolatzen gaituzu;

egizu, ezagut dezagula zure errukia,
orain hartzen ditugun dohainek sendo dezaten gugan
gerokoak eskuratzeko itxaropena.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *Rx*. Amen.

Itun zaharreko irakurgaiak bukatzean Aintza kantatuko da. Une honetan piztuko dira aldareko kandelak eta joko dira dorreko kanpaiak nahiz elizako txilinak.

Aintza zeruetan

Testamentu Zaharretik salbamen-historiaren zenbait aldi ezagutu ondoren, orain Testamentu Berrira igarotzean, kanta dezagun pozez Aintza Zeruetan.

Otoitza

**Oi Jainko,
Jaunaren piztueraren distiraz argitzen duzu gau santu hau;
susper ezazu zeure eliz elkartean seme-alabatzako espiritua;
gorputz-arimaz berriztaturik,
bete-betea izan gaitezen zure zerbitzari.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. *Rx*. Amen.**

Epistola (*Erm 6, 3-11*)

San Paulo Apostoluak Erromatarrei egindako gutunetik

Senideok: Bataioaz Kristo Jesusekin bat egin dugunok, haren heriotzarekin egin dugu bat. Bataioaren bitartez harekin heriotzan hobiratuak izan gara, Aitaren aintzaz Kristo hilen artetik piztu zen bezala, guk ere bizi berria bizi dezagun.

Izan ere, harena bezalako heriotzan hari itsatsiak izan bagara, halaxe izango gara harena bezalako piztueran ere. Badakigu lehengo

gure izaera Kristorekin gurutziltzatua izan dela, bekatzeko gure izaera hori ezereztua geldi zedin eta aurrerantzean bekatuaren esklabo izan ez gintezen. Izan ere, norbait hiltzen denean, bekatutik aske gelditzen da.

Beraz, Kristorekin hil bagara, sinesten dugu, bizi ere harekin biziko garela. Badakigu Kristo, hilen artetik piztuz gero, ez dela berriro hilko; herioak ez du gehiago aginterik harengan; haren hiltzea bekatuarentzat behin betiko hiltzea izan baitzen, eta haren bizitzea Jainkoarentzat bizitzea da. Berdin zuek ere; hartu kontuan bekatuarentzat hilik zaudetela eta Jainkoarentzat bizirik, Kristo Jesusengan.


Epistola irakurritakoan, guztiak zutik daudela, apaizak –edota, hala behar izanez gero, salmolari batek– Alleluia kantatuko du jaieratsu, eta gero guztiek abestuko dute berriro.

Gero, abeslariak salmoa abestuko du, herriak tarteka Aleluia erantzunez.

Ebanjelio aurreko oharpena

Iritsi da gau honetako mezua hotsegiteko garaia: Jesus piztu da. Hau da historia osoa berritzen duen egia. Guztiontzat bizitza dakarren mezua da. Horregatik, Aleluia abestuko dugu. Aurrena apaizak bakarrik kantatuko du eta gero guztiok errepikatuko dugu.

Aleluia (Sal 117, 1-2. 16bc-17. 22-23)





- ℣. Eskerrak Jaunari, ona baita,
haren maitasuna betikoa baita.
Esan bezate israeldarrek:
haren maitasuna betitikoa. ℟.
- ℣. «Jaunaren eskuinak indarrez jokutu du,
Jaunaren eskuina guztiz garaia da».
Ez naiz hilko, ez, bizi baizik,
Jaunaren egintzak kontatutzeko. ℟.
- ℣. Etxegileek baztertutako harria
giltzarri gertatu da.
Jaunak egin du hori,
gure begien harrigarri. ℟.

Ebanjelioa (Lk 24, 1-12)

Homiliarako argibideak

0. Asteko lehen eguna

Egun berri bat hasten da gizateriaren historian. Mundua erortzera zihoala zirudienean Jaun Onak berriro askatu digu eta bizitza berria eman. Horrexegatik gaurko ebanjelioa, pozaren pozez, berriro hasten da: “asteko lehen-eguna” da gaurkoa.

Igandea, Jainkoaren eguna, salbamen eguna da, Kristo Jesusek heriotza gaindituena.

Juduen Pazkoa, Jesusek heriotza atzean utzi eta bizitza berrian eman duen lehen urratsa izan da, loturatik askatasunerako urratsa, ilunpeetatik argira.

Asteko lehen eguna da Jaunari esker berritua izan da. Jesusen piztuerak kreaio berriari atea irekitzen dio, gizakiak etengabeko aukera berri bat du Jesusen piztuerari esker.

Eta Jainkoa, orduan bezala, apal eta txikiei agertzen zaie. Emakumeak, elkartearen muin apalena eta isilena osatzen zutenak, berri onaren berri emateaz arduratzen dira. Gizonaren aurrean burumakur zaudenak berri ona dakarte. Jainkoak bere beldurak utzi begiak eta burua altxatzeko oinarrizko arrazoia eman die.

Jesus denontzat piztu da, baina apalak, etsipenean erortzeko arriskuan zeudenak bizi dute sakonetik astearen lehen-egun hori, hilobira joan eta Jauna ikusi ez zutenean.

1. Hilobia hutsik

Hilobia hutsik aurkitzeak ez du bere adierazten Jauna piztu dela. Jauna ez dagoela badakigu. Baina, zehatzago esanda, hor ia ez dago.

Hilobi hutsak galdera sortzen du oraingo fededunon artean. Horregatik, galdera horren erantzuna Piztu denarekin aurrez-aurre topo egitearekin dago.

Alferrik dira kontakizun edota azalpen teologikoak Piztu den Jaunaren bila joaten ez bagara.

Jesusen piztuerarekin gure piztueraren atea ikusten dugu. Heriotza garaitua izan bada Jaunarengan, gu ere ez gara hilko. Kristoren hil bagara, bizi ere harekin biziko gara, dio Paulok. Kontua da hori sinestea, hori sakontzea eta eguneroko bizitza apalean fundamentuz txertatzea.

2. “Zer zabiltzate hilen artean, bizi denaren bila?”

Lukas ebanjelariak argi agertzen du kristau fedearen mezu ederra: ez gara hildako baten jarraitzaile. Gure artean bizi denaren ikasle gara.

Alferrik da hilobira itzuli eta gorpu hura gantzutzea, ez baitugu guk hildako baten hilotza adoratzen. Ez dugu gizon on baten ibilbidea, esanak eta ekintzak bakarrik miresten. Jauna zerbait gehiago zen.

Ezin dugu hilen artean bilatu bizi dena. Horixe da zeruko bi gizasemeen mezua. Eta oraindik gure artean, gaurko ospakizun honetan entzuten duguna.

Ilunpetan hasi dugu gaurko ospakizuna, Jaunak bakarrik eman zezakeen argia eskatuz, erregutuz. Kristoren argiak erakutsi digu bidea eta apaltasunez Pazko zuzia piztu dugu, bere argia eskaintzen zaigu eta Piztu denaren oparia eskaintzen zaigu gaurko ospakizunak gure bihotzetan ahaztuko ez den erabateko zirrara sor dezan.

Baina, gaur hain dotore ospatzen dugunak ezin du urte osoan iraun, bitarteko argitxoak pizten ez baditugu, Jesusen heriotza eta piztuera aldiro berritzen ez badugu, astearen lehen-eguna igandero egiten ez badugu.

Jesusen piztueraren lekuko gara gaur bertantxe, hementxe bertan. Kristauon fedearen argitxoa errazegi epeltzen zaigu. Horrexegatik, gaurkoan Piztu denaren indarrak Berri On hau zabaltzea eta hedatzea garamatza.

Piztu denaren opariak salbatu gaitu, askatu gaitu, bizi oparoaren eskaintzen egin digu. Honek misiolari egiten gaitu, bizi dugunaren iragarle, testigu. Zorionak!

III. BATAIOAREN LITURGIA

Bataio-harria dagoen tokian, baina Bataiorik ez denean erabiltzeko lagungarria da hau. Bataiorik bada Meza-liburuan eta Bataioko Ohikune liburuan datozenak begiratu.

Senide maiteok: Eska diezaiogun Jainko Aita ahalguztidunari isur dezala bere grazia bataio-iturri honetara, ur honetatik bizi berrira jaioko direnak Kristogan zure seme-alabaordeko egin daitezen.

Santuen letaniak: *Meza liburuko 301-303. orrialdeetan.*

Bataio-harria aldare ondoan ez dagoenean, Santuen letaniak kantatu bitartean egingo da bertara gerturatzeko prozesioa, Pazko-zuzia daramana aurretik doala.

Ponteko ura bedeinkatu aurretik

Orain apaizak ur berria bedeinkatu eta sagaratuko du. Ur horretan zehar igaro ginen gu ilunpeetatik –bekatutik- argitara, hau da, santutasunera. Horixe izan zen gure pazkoa, eta Jesusen Pazkoan parte hartzea.

Bedeinkapen otoitza

Oi Jainko, gauza harrigarriak egiten dituzu
sakramentuetan zeure indar ezkutuaz,
eta era askotan erabili izan duzu ura
Bataioko grazia guri adierazteko.

Oi Jainko, munduaren hasieratik
zure Espiritua bazebilen ur gainean,
ordutik har zezan urak santutzeko indarra.

Oi Jainko, uholde handiko uren bidez erakutsi zenigun,
bizi berria ematen digun Bataio bera izango zela
bekatuaren bukaera eta izaera berriaren hasiera.

Oi Jainko, Abrahamen ondorengoak, Itsaso Gorrian zehar,
oinik busti gabe eraman zenituen,
Faraoiaren menpetik ateratako herria
bataiatuen familiaren irudi izan zedin.

Oi Jainko,
Joanek zure Semea Jordan ibaian bataiatu zuenean,
Espiritu Santuaz gantzutu zenuen;
gurutzean zegoela, ura eta odola isuri zituen bere saihetsetik,
eta, piztu ondoren, hau agindu zien bere ikasleei:
«Zoazte eta egin herri guztiak nire ikasle,
Aitaren, eta Semearen,
eta Espiritu Santuaren izenean bataiatuz».

Begira orain zeure Elizari eta ireki iezaiozu bataio-iturria;
har beza ur honek Espiritu Santuagandik
zure Seme bakarraren grazia,
gizakia, zure irudiko egina,
Bataioko sakramentuaren bidez
izaera zaharreko kutsu guztietatik garbituta,
uretik eta Espiritu Santuagandik biziera berrira jaio dadin.

Jaits bedi, Jauna, zure Semearen bidez,
ur honetara Espiritu Santuaren indarra,
Bataioan Kristorekin hil eta hobiratuak,
harekin piztu daitezen bizirako.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *Rx*. Amen.

Bataioko aginduak berritzea

Une honetan, Pazko-zuzitik kandelak piztuko dituzte berriz eliztarrek.

Senide maiteok: Pazko-misterioaren bidez Kristorekin hil eta
hobiratuak izan gara, harekin biziera berrian bizi gaitezen.

Horregatik, Garizumako ekitaldia bukaturik, berritu ditzagun Bataio santuan agindutakoak, Satani eta haren egiteei uko egin baikenien, eta Jainkoaren zerbitzari leial izango ginela agindu Eliza santu katolikoan.

Uko egiten al diozue Satani?

R̃. Bai, uko egiten diot.

Eta haren egite guztiei?

R̃. Bai, uko egiten diot.

Eta haren bekatu-bide guztiei?

R̃. Bai, uko egiten diot.

Sinesten al duzue Jaungoiko Aita ahalguztiduna, zeru-lurren Egilea?

R̃. Bai, sinesten dut.

Sinesten al duzue Haren Seme bakar Jesu Kristo, gure Jauna, Maria Birjinagandik jaioa, oinazetan hila eta hobiratua, hilen artetik piztua eta Aitaren eskuinaldean jarririk dagoena?

R̃. Bai, sinesten dut.

Sinesten al duzue Espiritu Santua, Eliza santu eta katolikoa, santuen elkartasuna, bekatuaren barkamena, haragiaren piztuera eta betiko bizitza?

R̃. Bai, sinesten dut.

Jaungoiko ahalguztidunak, Jesu Kristo gure Jaunaren Aitak, uraren eta Espiritu Santuaren bitartez jaiotza berria eta bekatuaren barkamena eman dizkigunak, gorde gaitzala, Kristo gure Jaunagan, betiko bizirako.

R̃. Amen.

Bataioko urez zirtatzea

Bataioko uretatik igaro eta Kristorekin betiko piztu ginela gogoratzuz, ur bedeinkatuz zirtatu eta bustiko gaitu apaizak.

Jainkoaren herriaren otoitza

Jaunaren piztueraz santu eta bizi-emailearen pozez, gure gogo-bihotzak eraberriturik, egiogun otoitz Jaunari:

Erantzuna: **Entzun Zuk, Kristo, herri honen oihua!**



En - tzun, Zuk Kris - to, he-rri ho - nen oi-hu - a.

- Kristori, bere piztueraz heriotza garaitu eta bekatua desegin duenari eska diezaiogun, kristau guztiak izan daitezela leialak gau santu honetan berritutako bataioko hitzekin. Egigun otoitz.
- Kristori, bere piztueraz Elizaren seme-alabak urez eta Espiritu Santuaz berriztatu dituenari eska diezaiogun, sendo ditzala beraiangana Pazko honetan eman dizkigun dohainak. Egigun otoitz.
- Kristori, bere piztueraz ilunpean bizi zirenei erreinuko atea ireki dizkienei eta gizakiari bizia eskaini dionari, eska diezaiogun sufritzen duten guztien alde. Egigun otoitz.
- Kristori, bere piztueraz emakumeei poza eman zienak eta emakumeen bidez apostoluei eta hauen bidez mundu guztiari zabaldu zienak, eska diezaiogun, gaur, hemen, bere garaipena ospatzen dugunon alde. Egigun otoitz.

Jesu Kristo Jauna, zeruan goratzen zaituzte aingeru eta santuek eta lurrean goستن zaitu eta adoratzen zure Elizak; zure Piztueraren egun honetan eskatzen dizugu entzun ditzazula gure otoitzak eta zabal dezazula zure errukia zure piztueran itxopena jartzen duen herri honengan. Errege bizi baitzara, hilezkor eta aintzatsu, gizaldi eta gizaldietan. *Კ*. Amen.

IV. EUKARISTIAREN LITURGIA

Eukaristi otoitza hasi aurretik

Orain iristen gara Gau santu honen bihotzera: Jesus piztua gurekin izango da ogi-ardotan.

Oparigaien gaineko otoitza

**Onartu, Jauna, eskaintza honekin batean
zeure herriaren otoitzak,
pazko-misterioetan hasi duguna
zure indarraz. betiko bizirako sendagarri izan dakigun.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez** *℟*. Amen.

Jaunartze ondorengo otoitza

Isur iezaguzu, Jauna, zeure maitasun-espirtua,
pazko-sakramentuez ase gaituzunok
zure maitasunean bat eginik bizi gaitezen.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *℟*. Amen.

Bedeinkapen nagusia (*Ikus liburuxka honetako 141. orrialdean*)

Apirilaren 20an
JAUNAREN PIZTUERAKO PAZKO IGANDEA

Agurra

Jesus piztuarekin hitzekin agurtzen zaituztet: Bakea zuekin!

Sarrerako oharpena

«Itxaropenak ez du huts egiten» esan zitzaigun Jubileu Urte Santu honen hasieran, eta gaur urtearen gailurra dugun Pazko Igande horretan hitz horixe dugu EGIA nagusia: Kristok ez digu huts egin, bizi da! Jainkoak baietz esan dio bere Semearen eskaintzari, eta heriotza desegina geratu da betiko! Ospa dezagun pozik!

Bataio-urez zirtatzea

Senide maiteok, egin diezaiogun otoitz Jainko geure Jaunari, Pazko gau santuan bedeinkatu genuen ura Bataioaren oroipenez geure burua zirtatzeko erabiltzera goazen honetan. Ur honek berrizta gaitzala, hartu dugun Espirituari beti leial izan gakizkion.

Ura bedeinkatu nahi bada, ikusi otoitza Meza-liburuko 1286. orrian.

Kantu egoki bat kantatuz, herria zirtatuko du apaizak.

Jainko ahalguztidunak garbi gaitzala bekatutik eta, Eukaristia honen bidez, bere erreinuko mahaian jartzeko gai egin gaitzala.

✠. Amen.

Erruki, Jauna. ✠. Erruki, Jauna.

Kristo, erruki. ✠. Kristo, erruki.

Erruki, Jauna. ✠. Erruki, Jauna.

Aintza zeruetan

Pozez beterik, Kristoren garaipena ospatuz, kanta dezagun zeruko eta lurreko Elizarekin batean Jainkoaren aintza.

Otoitza

**Oi Jainko, egun honetan,
heriotza garaitu duen zure Seme bakarraren bidez,
betiereko biziaren ateak zabaldu dizkiguzu;
egizu, gure Jaunaren piztuerako festaburua ospatzen dugunok,
zure Espirituak eraberriturik, biziaren argira piztu gaitezela.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. *Ix.* Amen.**

Hitzaren liturgiari oharpena

Apostoluen testigantza entzungo dugu orain bi irakurgaietan. Jesusen piztueraren berri ematen duen Pedorena eta Bataioaz Kristoren Piztueran parte hartu dugula esaten digun Paulorena. Biak ditugu Elizaren oinarri eta on egiten digu bere hitz bizkortzaileak.

Lehenengo irakurgaia (Eg 10, 34a. 37-43)

Apostoluen Eginak liburutik

Egun haietan, honela mintzatu zen Pedro: «Badakizue zer gertatu zen, Galileatik hasi eta Judea osoan, Joanek hots egin zuen bataioaren ondoren: Nazareteko Jesusena, alegia; Jainkoak Espiritu Santuaren indarraz gantzutu zuen, eta hark on egiten eta deabruak hartutako guztiak sendatzen igaro zuen bizitza, Jainkoa berekin baitzuen.

Eta gu gara hark juduen lurraldean eta Jerusalemen egindako guztien testigu. Jesus hau habe batetik zintzilik hil zuten; baina Jainkoak piztu egin zuen hirugarren egunean eta agertzeko ahalmena eman zion; ez, ordea, herri guztiari, Jainkoak aurrez testigutzat aukeratutakoei baizik: guri, alegia, hura hilen artetik piztu ondoren harekin jan eta edan dugunoi.

Jesusek berak agindu zigun herriari predikatzeko eta aitortzeko, bera dela Jainkoak bizien eta hilen epaile ipini duena. Profeta guztiek aitormen hau egiten dute hartaz: harengan sinets dezaten guztiek bekatuen barkamena hartuko dutela, haren izenean».

Eta agindu zigun, herriari erakuts geniezaiola eta aitortu, Bera dela Jaungoikoak bizien eta hilen epaile ipini duena. Profeta guztiek egiten diote aitormen: Harengan sinesten duten guztiek hartzen dutela, Beraren izenean, bekatuen barkamena».

Erantzun-salmoa (*Sal* 118 [117], 1-2. 15c-16a eta 17. 22-23)



- ℣. Eskerrak Jaunari, ona baita,
haren maitasuna betikoa baita.
Esan bezate israeldarrek:
haren maitasuna betitkoa. ℟.
- ℣. «Jaunaren eskuinak indarrez jokuatu du,
Jaunaren eskuina guztiz garaia da».
Ez naiz hilko, ez, bizii baizik,
Jaunaren egintzak kontatzeko. ℟.
- ℣. Etxegileek baztertutako harria
giltzarri gertatu da.
Jaunak egin du hori,
gure begien harrigarri. ℟.

Bigarren irakurgaia (*Kol 3, 1-4*)

San Paulo Apostoluak Kolosarrei egindako gutunetik

Senideok: Kristorekin berpiztu zaretenez gero, bila itzazue zeruko gauzak, han baitago Kristo, Jainkoaren eskuinaldean eserita. Irrika itzazue goiko gauzak, eta ez lurrekoak, hilik baitzaudete, eta zuen bizia Kristorekin dago Jainkoagan gordea. Kristo, zuen bizia, agertuko denean, zuek ere aintzatsu agertuko zarete harekin batean.

Edota: (*1 Ko 5, 6b-8*)

San Paulo Apostoluak Korintoarrei egindako lehenengo gutunetik

Senideok: Ez al dakizue legami apur batek ore guztia harrotzen duela? Bazter ezazue legamia zaharra, eta izan ore berri, legamiagabeko pazko-ogiak bezala; izan ere, horixe zarete, Kristo gure Pazko Bildotsa opari eskainia izan denez gero. Ospa dezagun, beraz, Pazko-jaia, ez legamia zaharrarekin, bekatzeko eta gaiztakeriazko legamiarekin, legamiagabeko pazko-ogiekin baizik, hau da, bihotz-garbitasunez eta egiaz.

Aleluia (*1 Ko 5, 7b-8a*)

✠. Kristo gure Pazko **B**ildotsa
opari eskainia **i**zan da;
ospa dezagun Paz**k**o-jaia. ✠.

Ebanjelioa (*Jn 20, 1-9 edota, arratsaldean: Lk 24, 13-35*)

Homiliarako argibideak

0. Hilobira joan ziren

Atzoko Pazko Gaubeilan Lukas ebanjelaria zen kontatzen ziguna hiru emakumeak joan zirela hilobira Jesusen bila, baina ez zutela gorpua aurkitu.

Gaur, Pazko Igande honetan Joan ebanjelariak hartu du hitza bere elkarteak jasotakoa kontatzeko. Gauza bera da, Jesusek hilen artetik piztu behar zuela eta Liburu Santuak zioten moduan, Jaunak hitza bete duela.

Gaurko protagonistak ere hiru dira: Maria Magdalena, Pedro eta, berak idazten duenez, “beste ikaslea” zela esaten digu.

Maria Magdalena da goizean goiz, artean ilun zegoela, hilobira joan zena eta, harri kendua ikusi ondoren Jauna eraman egin dutela pentsatzen du. Mariak bizkortasuna, samina, maitasuna, etsipena adierazten du. Galduta dago oraindik.

Maria Magdalenak Pedro eta Joani adierazi ondoren ikusitakoa, hauek lasterka irten dira hilobira bidean. Pedro taldeko burua da eta bera da hilobira sartzean lehena.

1. Ikusi zuten eta sinetsi

Pedro eta Maria Magdalenak ez dute haratago ikusi hilobian. Joan da, besteak ikusi duten bera ikustean, sinesten duena.

Maitasuna da Piztuera ikusarazten laguntzen diguna. Piztuerak errealitatea beste modu batera ikusten hasteko gonbidapena egiten digu, Jainkoaren antzera, Jesusek bere ibilbide historikoan jokaturako modura.

Gauzak beste begi batzuekin begiratu, ikusi eta sentitzen hasi behar dugu Jesusen Piztueraren ikasleak bagara. Haratago begiratzen

ikasi behar dugu, Jesusek zituen duintasun eta errukiaren begiekin ikusten hasi.

Jesusen Piztuerak mundu honetan, historia honetan, ordukoan eta oraingoan, heriotza gure patua ez dela adierazi nahi digu. Maitasunetik sortuak gara eta maitasunerantz goaz, Jaunari esker.

Jesusen Piztuerak, ezer baino lehen, Jainkoak heriotza dagoen tokian bizitza jarri duela, etsipena nagusi den tokian esperantza, gizakiok hondatzen dugunari Jainko Onak konponbidea eskaintzen digula.

2. Lekukoak gara

Jesusen Pazkoak eta Piztuerak logika guztia hankaz gora jarri du. Zaila da oraindik itxuraz gurutzean azken arnasa hartu zuena gure artean bizi dela. Gure artean bizilekua jarri zuenak ez duela etsi.

Piztuera da Jainko Onak Jesus gure senidearen bidez eskaintzen digun oparia. Baina piztuera ez da Jesus Jaunak beretzat bakarrik jaso duen saria, mahaikide garen guztioi eskaintzen zaigun emaria.

Pedro apostoluak hala mintzatzen da Jesusi buruz: “Badakizue zer gertatu zen...” Pazko Hirurren honetan ere gure fedearen misterioa ospatu dugu eta egunez egun Jaunaren Hitzaren eskutik eta mahaikoa partekatuz esan zaigu Jesus, habe hartan zintzilik hil zutena, Jainkoak hirugarren egunean piztu duela.

Hilobia hutsik geratu da. Orain bizitzan ditugun zeinuak irakurtzea dagokigu: behartsuen testigantza, zuzenbidearen alde lan egiten dutenen poza, barkatzen dutenen zoriontasuna, errukia eskaintzen dakitenen samurtasuna.

Hauxe da Piztu denaren arrastoa jarraitzen dugunon helburu eta zeregina: bere urratsak jarraitu eta gure artean bizi denaren lekuko izatea nonahi.

Jaunaren piztuera santu eta bizi-emailearen pozez, gure gogobihotzak eraberriturik, egiogun otoitz Jaunari:

En - tzun, Zuk Kris - to, he-rrí ho - nen oi-hu - a.

- Kristori, bere piztueraz heriotza Elizaren Buru eratua izan denari, eska diezaiogun, bere maitasunez, eman diezaiela zoriona, poza eta alaitasuna bere garaipena ospatzen dutenei. Egigun otoitz.
- Kristori, bere piztueraz gure piztueraren ateak zabaldu dituenari, eska diezaiogun alai dezala oraindik bere garaipena ezagutzen ez duten gizakiak eta Ebanjelioaren bidez poztu ditzala herri guztiak. Egigun otoitz.
- Kristori, bere piztueraz herri guztiak poztu, bere dohainez aberastu eta gure bihotzak alaitasunez bete dituenari, eska diezaiogun berri dezala sufritzen dutenen eta negarrez daudenen itxaropena. Egigun otoitz.
- Kristori, bere piztueraz mundu osoa alaitu duenari, eska diezaiogun berri dezala gure espiritua eta eman diezagula bere garaipenean parte hartu eta bizi berrira pizteko itxaropena. Egigun otoitz.

Jesu Kristo Jauna, zeruan goratzen zaituzte aingeru eta santuek eta lurrean goستن zaitu eta adoratzén zure Elizak; zure Piztueraren egun honetan eskatzen dizugu entzun ditzazula gure otoitzak eta zabal dezazula zure errukia zure piztueran itxaropena jartzen duen herri honengan. Errege bizi baitzara, hilezkor eta aintzatsu, gizaldi eta gizaldietan. ~~R~~. Amen.

Oparigaien gaineko otoitza

**Pazko-pozez eskaintzen dizugu, Jauna, sakrifizio hau,
honek sortzen baitu eta janaritzen harrigarriro zure Eliza.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. R̃. Amen.**

Jaunartze-ondorengo otoitza

**Oi Jainko, zaindu zeure Eliza maitasun handiz,
pazko-sakramentuez biziberriturik
piztueraren argira irits dadin.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. R̃. Amen.**

Bedeinkapen nagusia

Jauna zuekin. Eta zure espirituarekin.

Makur zaitezte, Jaunaren bedeinkapena hartzeko.

(Eskuak herriaren gain zabalik bedeinkapena esango du:)

Bedeinka zaitzatela Jainko ahalguztidunak

Pazko-festaburu honetan

eta zaindu, erruki handiz, bekatu-bide guztietatik. R̃. Amen.

**Bere Semearen piztueraz biziberritu zaituzten Jainkoak
eman diezazuela betiko biziaren saria. R̃. Amen.**

Jaunaren nekaldiko egunak igaro ondoren

Pazko-festaburua ospatzen duzuenok,

irits zaitezte haren laguntzaz

zeruan betiko pazko-jaietara. R̃. Amen.

Bedeinka zaitzatela Jainko ahalguztidunak:

Aitak, eta Semeak, ✠ eta Espiritu Santuak. R̃. Amen.

Zoazte Jaunaren bakean, aleluia, aleluia!

Eskerrak Jainkoari, aleluia, aleluia!

ERANSKINA

Pazko-zuzia pizteko ohikunea *(Nahi bada erabiltzekoa)*

Bezpera arratsean Pazko Gaubeila ospatu ez den elizetan, Pazko-zuzia pizteko ohikune hau egin daiteke damu-otoitzaren ordeztu:

Kristau senide maiteok: Bart gauean, Pazko Gau santuan, kristauak dauden munduko bazter guztietan Kristoren piztueraren berri ona entzun da. Pazko Gau santuan, Pazko zuzia piztua izan da mundu guztian: zuzi hori Kristo piztuaren ezaugarri da. Pazko Gau santuan Aleluia abestu dute Jainkoarekiko gorespenez eta esker onez. Gure Elizan Pazko Gaubeila ospatu ez bagenuen ere, pazko-zuziak toki berezia izatea nahi dugu, bihotzaren eta espirituaren ilunak bere argitasunez argi ditzan. Horregatik Pazko-eguneko ospakizuna hasterakoan, handikiro eta jai-giroan piztuko dugu.

Jauna, zure izenean sagaratutako pazko-zuzi honek
argi egin dezala itzali gabe,
bekatuaren eta heriotzaren iluna suntsitzeko.
Argi honek, Kristo gogora ekar diezagula,
bera baita zure Seme Piztua, itzalik gabeko argia,
hilobitik zutituta gizadi osoarentzat distira egiten duena.
Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

℟. Amen.

Pazko-zuzia piztu bitartean, Aintza zeruetan abestuko da.

